

UZEI

MENDEZ MENDE

HISTORI AGIRITEGIA

ARO GARAIKIDEA

fitxak

ELKAR

Hezkuntza Sailak onetsia 1988ko otsaila

© UZEI. Esterlines, 8. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 429838 - 429839

© ELKAR, S.A. Esterlines, 10. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 426319

Depósito Legal: NA. 226-1988
ISBN 84-7529-534-7

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.
Tafallarako bidea, 1 Km. - Lizarra (Nafarroa)

Zuzendaritza
Joseba Intxausti

Koordinazioa
Jose R. Kortabitarte

Aholkularitza didaktikoa
Rafael López Atxurra

Itzulpenak
Joseba Intxausti
Fernando Mendizabal

Lankidetzak
Maria Jesus Aranburu
Pello Arrieta
Txema Elvira
Lourdes Herrasti
Karlos Kortabarría
Jesus Odriozola
Maiteder Uribe-Etxebarria
Rosa M. Virto

Argitalpen-moldaketa

U.Z.E.I.

AURKIBIDEA

HA 5:001	Amerikara	
HA 5:002	Badator trenea!	022 AG*
HA 5:003	Berlineko hiria (1800-1900)	026 AG
HA 5:004	Egitarau politikoak (1789)	030 AG
HA 5:005	Iraultza: Sistemaren arriskua	039 AG
HA 5:006	Eliz Estatuak zertarako?	048 AG
HA 5:007	Gurutze Gorria (1864)	049 AG
HA 5:008	Emakumezkoak lantegietan	055 AG
HA 5:009	Legea eta haur-lana	057 AG
HA 5:010	Manifestu komunista	058 AG
HA 5:011	Iraultza-ondokoa (1871)	061 AG
HA 5:012	Konbentzioa eta Euskal Herria (1793-1795)	067 AG
HA 5:037	Kolonien konkista	079 AG
HA 5:038	Inperialismo kolonial kapitalista	082 AG
HA 5:039	Baserritik Pampara (1865)	087 AG
HA 5:040	Potentzia lehiakideak	088 AG
HA 5:041	Kolonialismoaren kontra	090 AG
HA 5:042	C. Rhodes, kolonialista	092 AG
HA 5:043	Vietnam-dar anticolonialista	093 AG
HA 5:044	Mexiko ala Estatu Batuak?	111 AG
HA 5:045	Telegrama anticolonialista	112 AG
HA 5:046	Berlin (1885)	116 AG
HA 5:047	Kolonialismoaren izugarrikeria	122 AG
HA 5:048	Asimilazio kolonialaren kontra	126 AG
HA 5:071	Analfabetismoa eta eskola	129 AG
HA 5:072	XIX.eko eskolagintza	133 AG
HA 5:073	Kimika eta industria	138 AG
HA 5:074	Mendel: Genetika	140 AG
HA 5:075	Eskola laikoa?	152 AG
HA 5:076	Heinaren kezak	159 AG

 *AG = "Mendez Mende. Aro Garaikidea".

HA 5:077	Musika nazionalista	170 AG
HA 5:078	Iruñea, Bilbo eta Donostia zabaltzen	173 AG
HA 5:079	Inpresionismoa: garaiko artea	182 AG
HA 5:080	Aita Santuaren boterea zaintzen	201 AG
HA 5:081	Eliz desamortizazioa	212 AG
HA 5:082	Katolikoak Errepublikarekin	214 AG
HA 5:083	Hizkuntza, balio nazionala	215 AG
HA 5:084	"Eskualduna": Apaizak eta Errepublika	218 AG
HA 5:085	Unibertsitatea (1874)	222 AG
HA 5:086	Unibertsitatea, ukatuta (1924)	222 AG
HA 5:087	Eritasunak eta medikuntza prebentiboa (1899)	224 AG
HA 5:140	Euskara ere eskolara?: Gobernuaren 1923ko zirkularra	228 AG
HA 5:141	Zibilizazio indiarak	232 AG
HA 5:142	Minhas Velhas: meatz-arrakasta	246 AG
HA 5:143	Esklabutza: Kristauen lotsakizun	251 AG
HA 5:144	Biztanleriaren hazkundea (1745-1815)	055 AG
HA 5:145	Ingalaterrari leialak	255 AG
HA 5:146	EE.BB.etako iraultzaren oihartzunak	257 AG
HA 5:147	Batasun ahula (1783)	270 AG
HA 5:149	Fernando VII.a: Independentzia amerikarra	276 AG
HA 5:150	Iguala (1821): Independentziarako egitaraua	280 AG
HA 5:151	"Pioneer": aitzindaria	288 AG
HA 5:152	Latin Amerika: atzo, gaur, gero	332 AG
HA 5:180	Amerikarentzat Konstituzio espainol berria?	276 AG
HA 5:194	Txinako mandarinak	AG
HA 5:195	Txinako biztanleak	339 AG
HA 5:196	Txinako minoria nazionalak	340 AG
HA 5:197	Bizitza, interesen truke (1929)	365 AG
HA 5:198	Indiako kastak	AG
HA 5:199	Hinduismoaren balioa	381 AG
HA 5:200	Gosete bat behinolako Indian	386 AG
HA 5:201	Gazte abertzaleak	392 AG
HA 5:221	Ehiza, lanbide noblea da	406 AG
HA 5:222	Zinjantropoa	408 AG
HA 5:223	Madagaskar	412 AG

HA 5:224	Historiaurrean, Europa-Afrikak elkarrekin?	416 AG
HA 5:225	Abadiatar euskaldunak Ethiopian (1837-1848)	426 AG
HA 5:226	Ekialdeko merkatalgoa	429 AG
HA 5:227	Artisau aztia: erremintaria	440 AG
HA 5:228	Nilo-ren ibilbide bitxiak	442 AG
HA 5:229	Bidaia, Sahara zehar (XIV. mend.)	456 AG
HA 5:230	Gao-ko aberastasuna: esploradore baten kontaketa	458 AG
HA 5:231	Zinbabue: Monomotaparen "gorte"a	461 AG
HA 5:232	Esklabu berriaren izua	474 AG
HA 5:268	Kristautasuna Japonian	498 AG
HA 5:269	Iraultza Meijia (1868)	499 AG
HA 5:270	Krisia eta multinazionalak	519 AG
HA 5:271	Australia "Zuria"	523 AG
HA 5:272	Petrolioaren pribilegioak	534 AG
HA 5:273	Xa-ren gobernuaren kritika	536 AG
HA 5:297	Auschwitz	543 AG
HA 5:298	Nazio Batuen Gutuna (1945)	550 AG
HA 5:299	Deskolonizazioaren zenbait arrazoi	560 AG
HA 5:300	Ho Txi Min-en testamentua	564 AG
HA 5:301	Neokolonialismoa (1961)	566 AG
HA 5:302	Guatemala/EE.BB.	569 AG
HA 5:315	Zertarako bizi izan naizen	581 AG
HA 5:316	Artea: tradizioaren eta berrikuntzen artean	596 AG
HA 5:317	Proletkultura: arte plastikoak	599 AG
HA 5:318	"Bauhaus"en funtsa eta egitaraua	602 AG
HA 5:319	Pintorea, obraren teorikari ote?	608 AG
HA 5:320	Fededun eta konformazale naiz	612 AG
HA 5:321	Surrealismoaren azalpenetik	614 AG
HA 5:322	Pintagaien hautapena	616 AG
HA 5:342	Einstein-en zenbait pentsamendu	640 AG
HA 5:343	Espazio ez-euklidearra	642 AG
HA 5:344	Armamenduen aurrekontuen esanahia	656 AG
HA 5:345	Enpresen estrategia geografikoa	658 AG
HA 5:346	Ipar Korea/Hego Korea: bi sistema ekonomiko	660 AG
HA 5:347	Hazkunde ekonomikoaren mugak	662 AG

1870etik 1914erarte Estatu Batuetako biztanleria 39'5 milioietatik 97 milioietaraino igo zen, gehikuntza honetan etorkinen zentsuak ukaezinezko eragina zuelarik: 1820tik 1920. urterarte 36 milioi etorkin haratu zen (1905. urtean soilki, 1.126.000 etorkin). Ellis irla da 1954. urteraino etorkin masa horiek hartzeko leku berezia, non Inposizio Bulegoa jarri bait zuten.

"Ellis irla da gobernu amerikarrak etorkinak hartzeko duen lekua: berau da Agindutako Lurraldearen ataria; hortik pasata ez bada, ezin daiteke kolonu bat ere lehorreratu...

Ontzia kaira iritsi zen eta desfilea hasi: Italiarrak, eslova-kiarrak, errusiarrak, holandar eta armeniarrek, juduak, alemaniar-
rak, errumaniarrak... Gasteak, zaharrak, haurrak, emakumeak...
Denak pardel gaiski lotuekin zamatuta, maletak erropa zahar eta
mantaz lehertzeak..., bioloi eta mandolina-karak...

...Han daude, 3.000, bakoitza paper berde bat eskutan, zenbaki
bat orratsez jarrita bularrean. Bultza hona, bultza hara, ez diote
ezer, ez dira batere kezku...

Miseriaz betetako jendetza honek... beren ondasun guztiak soi-
nean dakartzaten hauek... Amerikan daude!" (J. HURET, 1905)

Europatik Amerikarako migrazio hauen lekukoak, kazetari, idazle na-
hiz politikari izan, ohartuta zeuden, zetozenentzat "Agindutako Lurral-
dea" zela Amerika. Baliabide eskasekin eta ahul zetozen haiek izango
ziren, gerora, beren ilusioak eta aurrera-grinak eramanda, Muga Berria
bultzatuko zutenak.

Emigrazio europarren fenomenoa aztertzeko, ik. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n 13-16. orr., eta zehazkiago Ameriketarakoak ezagutzeko: 84-88, 244 (Brasil: mapa), 262, 284-294 (EEBB), 321 (Brasil), 324 (Kanada) orrialdeak; Euskal Herrikoaz 86-87.

EGJTEKOAK

- a) Bila atlas batean Ellis irlaren kokalekua.
- b) Entziklopedia baten laguntzaz eman datu historiko eta geografiko gehiago irla honetaz.
- c) Bila Euskal Herrian nola izan diren migrazioak 1939-1985. urte-tartean: kopuruak eta eboluzioa. Egin grafikoak.
- d) Migrazio-mugimenduen arazoa ukitzen duen filmeren bat ikus daiteke (adibidez: Elia Kazan-en "Amerika, Amerika!", edo Truett-en "Joaleak" eta "Lur berria").

ERANTZUTZEKOAK

- a) Agiria irakurri eta gero, zer esango zenuke Estatu Batuetan sartzeko ezarri izan diren arauei buruz.
- b) 1954. urteraino Ellis irlan kokatzen zen inmigrazioaren kontrol-bulegoa. Zein helburu betetzen zuen hark?
- c) Zergatik abiatzen zen Europako jendea Estatu Batuetara?
- d) Nolako "abantailak" zituzten hara joaten zirenek?
- e) Nola deskribatzen du agiri honen autoreak Ellis irlatik pasatzen zen "desfile" hura?
- f) Oru har hartuta, zein faktorek bultzatuta aldegitzen zuen jendeak bere jaioterriak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

1825ean Stephenson-ek lehen lokomotora martxan jartzean, "The Times" aldizkariak trenbidearen irekiera hura honela deskribatu zuen. Azpimarrazekoak dira testu honetan kazetaria gehien hunkitu zuten datuak: bagoien kopurua, abiadura, zaldia baino bizkorragoa izatea, etab.

"Berrogeitamarna zaldi-indarreko hiru lurrin-makina aski izan dira salgaiz eta hainbat produktuz kargatutako hamahiru bagoi eramateko. 'The Experience' deritzan makina mugikor batilotu dira bagoi hauek, eta agintariak, inbitatuak eta akzio-dunak zeramatzen bagoi batzuk ere bai. Gustira hogeitamalau ibilgailu zeuden, hauetako bat soinu-jolez beteta, doinu alaiak jotz. Bestea zera zioen bandera batez apainduta zihoan: 'Periculum privatium, utilitas publica'. Seinalea eman ondoren, hasi zen ibiltzen tren-errenka. Oihuka ekin zuen jendeak, posarren: zenbait lagunek zaldiz segi nahi izan zien bagoiei, baina laster geratu ziren atzera. Aldapan, pikoenetakoa zen uneetan orduko 40 km-ko abiadurataraino iritsi zen".
(*'Times'* 1825-Iraila-27)

Britainia Haundiko egunkaria da "The Times": 1785ean sortu zen bes-telako izen batekin, eta 1788an hartu zuen izen hau. XIX. mendeko kazetaritzaren literatura britainiarrean leku eragingarria izan zuen. XX. mendean ere, Erreinu Batuko gidari politikoaren artean itzalik handiena izan du.

Aro Garaikideko Industri Iraultzan, kolonialismoan, Estatu berriak eraikitzean eta abarretan trenbideak izan duen esanahia ezagutzeko, ik. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea" n 19-23, 76 (irudia), 108 (irudia), 285 (EE.BB.).

EGJTEKOAK

- a) Bila itzazu entziklopedia batean gaur eguneko trenak dituzten berezitasunak: abiadura, materialak, kapazitatea, merkatalgoarako gaitasunak, etab. Ahal baduzu, presta galdeketa bat, eta zure herriko geltokian eska teknikoren bati datu horiek.
- b) Egin zure herrialdeko mapa bat, eta aditzera eman bertan lehorreko garraio-sistema garrantzitsuenak.
- c) Zeintzuk dira, garraibideetan, trenbideak dituzten abontailak? Bai al du trenbideak benetako lehiakiderik?
- d) Konta ezazu trenez egindako ibilbide baten esperientzia.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein betekizun dute trenbideak gaur eguneko merkatalgoan?
- b) Zeintzuk dira aire-garraioen eta itsas garraioen berezitasunak behin-nak?
- c) Seinala itzazu zure hiri/herrian dauden trenbide-geltokien zehaztasunak: bide luze/motzekoak, nondik nona doaz; zein elektrifikazio maila du, eta abar?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste-kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1800-1914

Industrializazioaren ondorioz, Europako hiri-hazkundera garrantzitsuenetarikoa dugu, nekazal populazioaren hiritaratzeak bultzatuta. Izan ere, 1870etik 1914era bitartean hiri-hazkunderik nabariena somatzen da: XIX. mendearen erdialdean bi hiri bakarrik ziren (Londres eta Parise) 500.000 biztanletik gorakoak; 1910ean, ostera, 25 baino gehiago ziren holakoak.

"Hirietan haskuntzarik iraultzaileena Berlin-ekoa izan zen. Mende-hasieran apenas zituen 150.000 biztanle. 1896an, ostera, 1.300.000 ziren hauek. Atzo oraindik Alemaniako hiri handien artean agertzen ez zena, munduko handienen artean topatsen dugu. Dantzing-i kendu dio aleen burtsa-eginkizuna, Breslau-ri ehunen hiriburutza, Essen-i siderurgiaren buruzagitza. (...). Baina Berlin da, gainera, Alemaniako lehen unibertsitatea. Honela, jatorriz bertakoen biztanle-kopurua, % 30 baino gutxiago duen hiri hau (hain ugariak bait dira etorkin frantses eta eslaviarren ondorengoak) (...) industriaren indarrez Alemaniaren etorkizunaren jabe bilakatu da". (Ch. MORAZÉ, 1965)

Charles Morazé, historilari frantsesa da, eta XX. mendeaz arduratu da batipat; L. Febvre eta Braudel, Frantziako historilari askoren maisuen itzalpean eman zituen bere lehenengo sintesi handiak Morazé-k. Beraren "Les Bourgeois conquérants" obrak hemeretzigarren mendearen biziera bere sakonean eskaintzen digu: gertakariak bai, baina batez ere horien azpitik doazkeen egitura iraunkor, isil eta eragileak. Liburu horretatik hartu da hemengo atal hau.

Europako hirien hazkundea ez-ohizkoa izan zen, Industri Iraultzaren ondorioz. Adibide gisa, ikusi besterik ez dago "Mendez Mende. Aro Garai-
kidea"n: 13-15 (hainbat hiri); baina Mundu Berriko Estatu independentee-
tan ere sumatu zen hori: ik. 284. or. (EE.BB.), 484-485. orr. (Afrika).

EGJTEKOAK

- a) Egizu Alemaniako mapa politikoa, 19. mendearen erdialdekoa, testuan aipatzen diren hiri guztiak kokatuz. Begira Konfederazio Alemaniarrak zituen mugak. Konpara ezazu hori Bigarren Mundu Gerra-ondoko batekin.
- b) Hartu Berlin-eko hiri-planoa (Larousse bezalako hiztegi entziklopediko batean aurki dezakezu). Azaldu zein motatakoa den, hiriak izandako zabalkundea, etab.
- c) Hiri-plano berean koka hiriko komunikazio sarea (errepide eta trenbi-
deak), zerbitzu-guneak, industrialdeak, Berlin-eko harresia, etab.
- d) Egin, ondoren ematen zaizkizun datuekin, Berlin-eko demografi hazkun-
de-grafikoa (datuak milakotan: 1800: 172, 1850: 419, 1880: 1122, 1895:
1300, 1910: 2071, 1976: 3100).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Testua irakurri ondoren, Berlin-ek gero eta garrantzia gehiago hartzen zuela ikusten da. Zein faktore aipatuko zenituzke hau esplikatzeko?
- b) Hazkunderik iraultzaileena Berlin-ena izan zela dio agiriak: Zergatik esaten da hori?
- c) Ematen du Berlin-ek gero eta funtzio gehiago biltzen zituela: nolako betekizunak ziren haiek?
- d) Berlin-eko bertakotarren biztanle-kopuru handia zela pentsatzen duzu? Zein garrantzi izan zezaketen etonkinek hirian?
- e) Berlin-eko adibideaz kanpo, zein faktore da hiri baten hazkundea hobeki esplikatzen duena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota atzergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Frantses Iraultzaren hastapenak aurkezten dizkigu historilariak, eta zehazkiago Estatu Nagusietara eginiko deialdia. Arazo sozio-politiko ezberdinetan Estamentu bakoitzaren jarrerak azpimarratzen zaizkigu.

"Koadernoak aztertuz argi dago, hiru Estamentuak puntu askotan ados zeudela. Hirugarrenak bezala nobleziak ere, Monarkia, konstituzionala izan zedila nahi zuen; hark bezala, askatasuna zaindu egin nahi zuen arbitrarietatearen kontra, eta administrazio-adar gustien erreforma sakona erabat premiazkoa ikusten zuen. Gizartearen egituraz hitzegin zenean agertu zen gatazka; ez noski salbuespenik gabe, baina onartzen zuen nobleziak bere pribilegio fiskalak baztertzea, hala ere gainerako guztiak gorde egin nahi zituen: Ordena bereizia osatuz segi, nekazarien gain zuen agintea mantendu, jain-eskubideen bidez. Hirugarren Estamentuak eskubide-berdintasuna eskatzen zuen eta ez zedila egon frantsesen artean kategoria bat baizik". (G. LEFEBVRE, 1960)

G. Lefebvre (1874-1959). Historilari frantsesa. Clermont-Ferrand, Strasbourg eta Pariseko Unibertsitateetan irakaslea. Frantses Iraultzaren egitura sozial eta egite ekonomikoak aztertu zituen batipat: "Les Paysans du Nord sous la Révolution Française" (1900). Lefebvre izan da Frantzia Historiaren sozialaren gurasoetako bat, "Annales" aldizkaria M. Bloch-ekin batera sortuz (1929). Beste funtsezko obra batzuren artean, azpimarratzekoa da hemen, bere gaiagatik, Iraultza hari berari eskaini zion sintesi erabilgarria.

Begira ezazu "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 30-38. orrialdeetako azalpen irudi eta agiriak argigarri izango dituzu hemengo testu aukeratu hau ulertzeko.

EGJTEKOAK

- a) Histori liburu eta entziklopedietan aztertuz egizu 1789ko Frantziako egoera sozio-ekonomikoaren azalpen bat.
- b) Ahal duzun eskematikoki eman Inaultza Frantzesaren epeak.
- c) Inaultza Frantzesaren ondorio politiko, demografiko eta sozialak azter.
- d) Egizu konparaketa-taula bat Antzinako Erregimena eta Inaultza-ondoko gizartea parekatuz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esaten zaio "Antzinako Erregimena"?
- b) Zein motatako gizartea da Antzinako Erregimeneko hura? Zeintzuk dira beraren ezaugarriak?
- c) Aipa itzazu Inaultza Frantzesaren zergatiak.
- d) Nola zegoen osatuta Hirugarren Estatuak? Zein portzentaia suposatzen zuen Frantziako populazioaren kopuruan?
- e) Zer ziren Estatu Nagusiak? Zergatik deitu ziren horrela?
- f) Zer eskatzen zuen Hirugarren Estatuak?
- g) Estamentu pribilegiatuak, nola zeuden osatuta? Eta zeintzuk ziren beraien eskaerak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1800-1825

Hobsbawn historilariaren dibulgazio-liburu batetik hartua da pasarte hau. XVIII. mende bukaerako eta XIX. mendeko lehen urteetako egoera politiko sozialaren ikuspuntua ematen du. Antzinako Erregimena Iraultza Frantsesarekin bukatu zen, baina, artean ere, bizirik iraun zuten egoera leheneratzeko ahaleginek.

"Iraultza Frantsesa lehertu zenean nahikoa odol hotzez hartu zuten gertakaria Europako gobernuak: Erakundeak bapatean aldatzeak, matrindak sortzeak, dinastiak erasteak eta erregeak asiatu edo leporatzeak ez zituen hunkitzen XVIII. mendeko gobernarriak, halako gertakarietara ohituak bait zeuden. (...). Baina, 1815.ean, Iraultzari burus gustiz bestelako jarrera zen nagusi potentzien politikan. Ordurako jakina zen erresuma bateko iraultza ere fenomeno europarra izan zitekeena; haren doktrinak mugetatik kanpo ere hedatu zitezkeela, eta --okerragoa ere zena-- armada iraultzaileek (helburu iraultzaileen gurutzatu bihurtuta) kontinenteko sistema politikoak ere garbi zitsaketela. Beraz, ikusita segoen iraultza soziala posible zena; nazioak Estatuetatik zerbañ independente bezala ere egon baseudela, eta pobreak berak ere bazirela zerbañ klase-gidarietatik independente bezala ere".

(J.E. HOBŠBAWN)

Hobsbawn historilariak idatzitako "Iraultza Burgesak" liburuiko zati honetan, beharbada, gizadiaren historian gertatutako mementurik garrantzitsuenetariko bat aztertzen digu autoreak. Iraultza frantsesari buruz, historia katastrofista nagusitu bada ere garai batean, mende honetan alde sozialei garrantzi handiagoa ematen zaie.

1815-1848. urte-tarteko gorabeherak ezagutzeko, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 39-46. orr. Esan gabe doa, hori dena ulertzeko, komeni dela Iraultza Frantsesaren proposamen politiko-ideologikoei beren lekua ematea: ik. 27-38.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko batean bila eta azter itzazu arazo hauek: 1) Iraultza Frantsesaren aurreko Europaren mapa politikoa. 2) Armada Iraultzaileak, Frantziarentzat lortu zuen hedapena. 3) Vienako Kongresuaren ondoko Europaren mapa politikoa.
- b) Vienako Kongresuan definitu zen mapa politikoa egin ondoren, landare-paperean egindako gaur eguneko Europaren beste bat haren gainean jarri, zein alde dauden begiraturaz.
- c) Azter itzazu zeintzu diren Iraultza Frantsesa bultzatu zuten kausak: egin, arrazoi-mota ezberdinekin, lauki bat.
- d) Hiztegi historiko batean bila kontzeptu hauen definizioa, eta emun adibide bana: Iraultza, Iraultza soziala, Iraultza politikoa, Iraultza burgesa, Iraultza proletaria.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola ulertuko zenuke testuaren izenburua?
- b) Noiz lehertu zen Iraultza Frantsesa, eta noiz jar daiteke haren azken burua?
- c) Bi zati nabarmen bereiz daitezke testuan: Zeintzuk dira? Zein da lehen zatiko ideia nagusia? Ados al zaude ideia horrekin? Zer gertatzen zen Espainiako monarkiaren kasuan?
- d) Zein da 1815eko dataren esanahia?
- e) Zein ondorio izan zezakeen Iraultzaren doktrina mugetatik kanpo hedatzeak? Nola erreakzionatu zuten Iraultzaren aurrean potentzia politikoeak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Goiz Erdi Arotik hasita, Eliza Katoliko Erromatarren Aita Santuek Estatu-buruzagiak izan ziren Italiako ertaldean, benetako tradizio politiko-instituzional bat eta kristauen artean horrekiko pentsamolde egina sortuz. Honela segitu zuten gauzak XIX. menderaino, eta orduantxe etorri zen tradizio horren krisia.

"Urte-sail batean Imperio napoleondarraren parte izan ziren eta urte gusti horietan begiz jota zeukan Austriak beretzat herentzia posible hori. Baina Pio VII.aren Estatuko Kardinal-idaskari Consalvi-ren diplomaziak irabazi zuen orduan. 1815etik aurrera, bc, independentzia horren ordain bezala, Aita Santuek berriz ere beren bizkar hartu zuten lurralde baten gobernu-eginkizun ezinkonpondu bat. (...) Estatu hartan administrazio osoa (gehiegikeriarik gabe esan daiteke), subiranoarengandik hasi eta bulego publikoetako enplegatuenganaino klero-jendea zen.

Eta inefikaza zen. Zergak ez ziren pisuegiak, baina ez zegoen industria eta merkatalgorik eta herriaren itzelesko portzentaia bat eguneroko esketik bizi zen. (...).

Frantsesen garaiko gobernaera eraginkorraren oroitzapenak, orduan sistema juridiko eraberdin definitu batetik atera zitezkeen abantailak, edo legearen aurrean denak berdinak ziren denbora haien oroitzapenak (...): gusti horrek Aita Santuaren, fagore izpiritual edo eskomikoen kontrako gogoa piztu eta gogortu baizik ez zuen egiten hiritarren. Izan ere, propaganda iraultzaileari ezin bait zioten bestelakorik kontrajarri Leon XII.ak (1823-1829), Pio VIII.ak (1829-1830) eta Gregorio XVI.ak bezalako Aita Santuek".
(Ph. HUGHES, 1971)

Philip Hughes, eliz historilari britainiarra da. Askorentzat, ingelesez Eliz Katolikoaz diharduen historilaririk sonatuena. Beraren obra berezituena ondoan, eliz historia osoaren sintesi trinko eta atsegin bat idatzi du: "A Short History of the Catholic Church" (1958). Gaztelaniaz ere badaukazu (Barcelona: Herder. 1971).

Eliz Estatuek bi arazo-modu bildu zituzten beren baitan: a) Eliz Erakundearen munduko presentzia politikoa, eta b) Italiako batasun-asmoaren eta Eliz Estatuaren arteko zerikusiak. Biotarako begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 46-50 eta 199-201 eta 207-209. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Eliz Estatuaren mapa bat (1800ekoa edo): gaur eguneko Italiako zein eskualde hartzen zituzten haiek?
- b) Badago "Konstantinoren Dohaintza" (Donación de Constantino) deituriko bat: bila entziklopediaren batean zer esan nahi zuen?
- c) Begiratu, hiriburuan bizi baldin bazara, Hemerotekan Erroma Vittorio Emanuele-k armaz hartu zuen egunetako prentsa (1870-VII-18).

ERANTZUTEKOAK

- a) Kristau fededunen Eliza nola eta zertan lagun lezake Estatu bat bere-na izateak?
- b) Nazioartean onartutako Eliza-Estatu batek zerbait berezirik ekar ote lezake nazioarteko harremanetarako?
- c) Gaur egunean, Vatikanoko Estatu da Eliz Estatu haien segida: Nola ikusten duzu Vatikanoa?
- d) Zer deritzozu agirian Eliz Estatuetakoko bizitza politikoaz esaten denari buruz?
- e) On eta egokitzat emango ote zenuke Eliz Estatuaren galera (1870)?
- f) Italian zauri gorritan egon zen "arazo erromatarra" (=cuestión romana) deitua (1870-1829): zer zen arazo hori?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. qr.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1863

Gurutze Gorria 1863ean sortu zen; genevatar batek, beste lau aberkiderekin batera eraiki zuen. Talde-txo hark eraginda gobernu askok onartu zuen Geneva-ko Konferentzia. Erakunde berriaren xedea gerrateetan, edozein naziotako zaurituei mediku-laguntzak segurtatzea da.

"1. Art. Anbulantzia eta Ospitaleak neutraltzat hartuko dira, eta halakotzat aitortuz, gerraegileek babestu eta errespetatu egingo dituste.

2. Art. Ospitale eta anbulantzieta langileek, eta kapeilauek, neutraltasun horrek babestuta lanegingo dute.

7. Art. Bandera eta jantzi ezagugarriak... Banderak eta besoeta-koek, hondo zuri baten gain gurutze gorria izango dute".

(Gurutze Gorriaren Arautegia, 1863)

Henri Dunant (1828-1910) filantropo eta idazle suitzarrak sortu zuen Gurutze Gorria. Solferino-ko guduan zaurituekiko utzikeria eta beraien egoera negargarria ikusita, 1862an "Solferinoko oroipen bat" kaleratu zuen: berau izan zen eritzi publikoa hunkitu eta Genevako Konferentzia bultzatu zuen idatzia. Biltzar honetatik jaio zen Gurutze Gorria. Azken mende osoko gerretan erakunde gizatiar baliagarria izan da harez gero Erakunde hori.

Entziklopedia batekin, egizu Gurutze Gorriaren historia labur bat; era berean, gertakarien testuinguru politikoa, "Mendez Mendeko Aro Garaiak"en aurki dezakezu 47-50. orr. Ohar Elizanbururen "Solferinoko itsua"z, 49. orrialdean.

EGJTEKOAK

- Dakizunez, Gurutze Gorria sortzeko ideia Solferinoko guduko ezbeharretatik jaio zen. Ea atlas edo entziklopedia batean datu historiko gehiago biltzen duzun gudu hari buruz.*
- Aipa Gurutze Gorriak gaur egunean dituen helburu nagusienak.*
- Elizanburuk "Solferinoko itsua" olerkia idatzi zuen (ik. 49. or.): bila ezazu osorik, antologiaren batean edo, poema hori.*
- 1919an Gurutze Gorriko Elkargoen liga fundatu zen: aipa laburki beronen iharduera eta helburuak.*
- Egizu zure herriko Gurutze Gorriko zerbitzuan inkesta bat, zera galde-tuz: - Zenbat zerbitzu egiten dituzte egunean? Nolakoak dira? - Nolako baliabide daukate? - Zenbat taldekide du?*
- Fronteko bere zerbitzuetan gurutze-gorritar asko hil ote dira? Eska estatistikak herriko Gurutze Gorrian.*

ERANTZUTEKOAK

- Zer deritzozu Gurutze Gorriak duen egitekoari? Denborarekin egiteko hau aldatu egin dela uste al duzu? Zertan?*
- Munduko gobernuak itzalez jokatzeko dutela uste al duzu erakunde honetan?*
- Nola finantzatzen da Gurutze Gorria?*
- Gurutze Gorriak eskaintzen dituen zerbitzuetatik, zein da, zure eritziz, goraipagarriena?*
- Gurutze Gorriak dauzkan antzeko zerbitzuak eskaintzen dituen beste erakunderik ezagutzen al duzu Euskal Herrian?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1870

Industri Iraultzak, hainbat ezbehar eta tratu txar ere ekarri zituen gizartera. Horien artean ezin ahantzia da emakume eta haurrekiko lan-politika eta legeria. Egoera berrion aurrean, garaikoek --pentsa litekeenez-- gisa ezberdinez erantzuten zuten. Hemen Prentsako testu bat jaso dugu, Frantziako langile-egoeraz ari dena.

"Hamar-hogei urteko neskatzak goizeko laurak edo bostetatik gaueko hamar-hamaikak arte, eta gauerdinaraino ere, lanegitera behartuta daude; oso mais, lanak presa duen aitzakiarekin, gau osoa pasatzera behartzen dituzte... Baina Lyon-eko ospizioetako heriotz erregistroak begiratsen badira, berehala ikusiko da, biriketako eritasunez hildako ehunetik bi heren gutxienez Lyon-eko harildegietatik irtendako neskatzak direna. Badago zenbait lantegi, bizpahiru urte ospitaleetara egonaldi bat egitera joan gabeko apendizik ez duenik". (LE PROGRES, 1870)

Agiri honen garai beretsuan (1874), Frantzian 219 egunkari zeuden: 40 Parisen eta 179 departamentuetan. 1870ean 1.070.000 ale banatzen zizuten denen artean. Egunkari hailetako bat zen "Le Progrès", Lyon-ekoa. Gaur egun ere bizirik dago, eta 1974-75etan 428.000 ale saltzen zituen batez beste. Titulu honekin egunkari asko atera ziren XIX. mendean, eta eskierki liberalismo ekintzale baten bozeramale izan ohi ziren.

Industri Iraultzak sortu edo larriagotutako gizarte-arazoa bere tes-
tuinguru historikoan begiratzeko, ikus "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n
54-63. orrialdeetan daukazun argibideak.

EGITEKOAK

- a) Egin, aurkez eta komenta ezazu 19. mendeko Europaren industrializazioa-
ren mapa.
- b) Begira, batez ere, Frantzia, eta koka hango industrialde garrantzitsue-
nak. Ikus Lyon: non dago kokatuta?
- c) Langileriaren garai bateko egoera ezagutzeko, hitz egizu zure aitona
edo adineko batekin, azken gerraurreko lan-egoera, lanordu, gaixotasun
eta bizi-mailaz argibideak eskatuz.
- d) Ehundegi eta metal-lantegiren batera bisitaldi bat egizue: zein alde
aurkitu dituzue bi lantegi-mota hauetan?
- e) Konpara itzazu 19. mendeko lanorduak eta zure familiakoren baten egungo
lanorduak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Eman zure eritzia deskribatzen den egoera horretaz.
- b) Testuan agertzen denetik aparte, zertan datza Lyon-en garrantzi ekono-
mikoa?
- c) Zertarako balio dute heriotze-erregistroek? Beste erregistro-motarik
eramaten al da? Ikusi al duzu inoiz horrelakorik?
- d) Nolako problemak zituen orduan langileak?
- e) Zein sektoretan oinarritu zen industrializazio-prozesua?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko
lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35.
or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta,
denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala,
ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Frantzian haur-lana arautzeko emaniko Guizot Legea daukagu hemen. Industri Iraultzak, erlazio sozialak eraldatu egin zituen, enpresarien eta langileen klaseak elkarri kontrajarriz. Ahulenari suertatu zitzaion galtzaile izatea. Eta langilegai guztien artean haurrak ziren ahulenak. Azkenean, abusu haren aurrean Liberalismoak ere erabaki politikoak hartu behar izan zituen.

"2. Artikulua. Haurrek, lantegietan hartuak izateko, gutxienik zortzi urte beteta izan beharko dituzte.

Zortzi urtetatik hamabitara, hogeitalau orduero ezin ihardun dezakete lanean zortzi ordu baizik, atsedenaldi bat tartean dela.

Hamabi urtetatik hamaseitara, hogeitalau orduero ezin ihardun dezakete lanean hamabi baizik, atsedenaldi bat tartean dela.

Lan hau esingo da egin goizeko bostetatik gaueko bederatzirdu-taraino baizik.

3. Artikulua. Gaueko bederatzietatik goizeko bostak arte egindako lana gau-lan bezala hartzen da. Gau-lan oro debekatuta dago hamahiru urte bete ez dituzten gutxietsat". (GUIZOT LEGEA, 1841)

François Guizot, historilari eta estatista frantsesa izan zen (1787-1874). 1812an Sorbona-ko Historia Modernoko katedra lortu zuen. 1830ean, Diputatuen Asanbladarako aukeratu zuten, eta Luis Felipe-ren monarkia burgesaren etorrera lagundu zuen. Guizot-en garaian, Frantzia industrializatuz doa eta kapitalismoak garapen handia izan zuen: meatzak, trenbide-sarea... Aurrerapen guztien artean ere kontserbadorea zen, eta beharreko ziren erreforma politikoak garaiz egiten jakin ez zuelako lehertu zen Guizot-en kontra 1848ko Iraultza. Guizot, Frantziako historilari klasikoetako bat izan da.

"Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n topa ditzakezu, alde batetik Guizot-en inguruko politika-arazoen argibide batzuk (ik. 40-46. orr.), eta bestetik, arazo sozialari dagozkionak (ik. 54-61. orr.). Begira 208-209. orrialdeak ere. "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n baduzu Industri Iraultza-ren kronologia bat: ik. 401. or.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko bat kontsultatu ondoren koka itzazu, mapan, Frantziako industrializazio-gune garrantzitsuenak.
- b) Informa zaitetz zure herrian edo inguruetan zaharragoek ezagutu dituzten langile-mugimenduari buruz: grebak, sindikatuen jaiotza eta bizitza, etab.
- c) Eskatutako informazioa lantegi handiren batean: erreleboak, lanorduak, oporrak, etab. nola egiten dira? Nola erabakitzen da urteko ordutegia? Ondoren konpara ezazu huri dena lantegi txiki batekekin.
- d) Gau-lana normalean dela uste al duzu? Zergatik? Nolako lantegi edo enplegutuan izan daiteke beharrezkoa?
- e) Konpara ezazu, agirion agertzen diren kasu desberdinekin, zuk ezagutzen duzun langile baten ordutegia.

ERANTZUTEKOAK

- a) Labur ezazu artikuluko bakoitzeko ideiarik garrantzitsuenak eta egin iruzkin bat.
- b) Noiz jar daiteke industrializazioaren hastapena? Eta non? (ik. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea" 26. or.)
- c) Noiz doa jaiotzen langile-mugimendua, edo noizkoak dira lehenengo erreibindikazioak?
- d) Aurrerakoa iruditzen al zaizu lege hau?
- e) Gau-egun haur-lana baimenduta al dago?
- f) Konpara ezazu zure egoera testuan agertzen denarekin.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Marx eta Engels-ek, azterketa historikoa egitean, gizarte guztien historiak klase-borrokaren argitan begiratu zituzten. Beraien ustez, zapaltzaile eta zapalduak beti egongo dira aurrez aurre. Horren kontra, iraultza komunistaren helburuak honela definitu zituzten: proletalgoak boterea bere eskuetan hartu behar du, eta jabego burgesa abolitu. Hori da iraultza jatorra.

"Gure egunetararte izan diren gizarte guztien historiak klase-borrokaren historia izan dira.

Gizaki libre eta esklabuak, patrizio eta plebetarrak, jawn eta serbuak, maisu eta ofizialeak, hitz batez: zapaltzaile eta zapalduak aurrez aurre egon dira beti, etengabeko borrokari eutsi diote, batzuetan isil-estalia, bestetan zabal eta irekia; beti gizarte osoaren eraldakuntza iraultzailearekin edo klase borrokari hondamenarekin amaitu izan den borroka (...).

Komunisten berehalako helburua gainerako alderdi proletari guztiena bera da: proletariak klase bezala biltzea, menperakuntza burgesa hondatzea, proletargoak botere politikoa hartzea (...).

Komunismoaren berezgarri behinena ez da jabegoa bere orokorrean abolitzea, jabego burgesa abolitzea baizik (...).

Zentzu honetan, formula bakar honetan laburbil dezakete komunistek beren teoria: jabego pribatuaren abolizioan (...)"

(C. MARX; F. ENGELS, 1848)

Karlos Marx (1818-1883), familia burges batean jaio zen. 18 urterekin, Hegel-en filosofia ikasi, eta kazetari gisa egunkari batean lan egin zuen. 1844ean, Parisen Engels-ekin elkartu zen. Vienen egon ondoren, Londres-era joan zen bizitzera. 1867an eman zuen argitara bere obra nagusiaren lehen parte: "Das Kapital". Engels (1820-1895), industrigizon handi baten semea zen. Gazterik ezagutu zuen langileriaren bizi-egoera (Manchester). 1848an, Marx-ekin batera kaleratu zuen "Manifestu Komunista". Bere obra pertsonalaz gain, Marx-en "Das Kapital"aren bigarren eta hirugarren parteak argitara zituen, haren heriotzaren ondoren.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 54-63. orrialdeetan topa dezakezu oinarritzko lehen informazioa. Marxismoaz baduzu argibide franko UZEIren "Filosofia/3" (UBI) liburuan ere: ik. 63-112. orr.

EGITEKOAK

- a) Zein puntu zehatz begiratu beharko lirateke langile-egoera jakin bat ongi deskribatzeko? Adieraz puntuok lauki batean.
- b) Itasgelako lagunon artean egin, taldeka, norberak ezagutzen duen langile baten lan-egoeraren deskribapena, dena lauki batean emanez (kasuak elkarrekin konparatzeko moduan).
- c) Eztabaida itzazu deskribatutako kasu bakoitzaren alde on eta txarrak.
- d) Ahal baduzue, jvon lantegiren batera, eta ikus nola egiten den lan hango lanpostu bakoitzean.
- e) Herrietan izan dira, inoiz, Marxismoa dela eta ez dela, eztabaida gogorak: galde eztabaidaren arrazoiak haietan parte hartu zuenen bati.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esan nahi du. "Komunismoaren bereizgarri behinena ez da jabegoa bere urokorrean abolitzea, jabego burgesa abolitzea baizik" horrek?
- b) Komenta ezazu esaldi hau: "Proletarگوak bere iraultza amaitu ondoren ezarriko duen gizarte komunistan ez da gizarte klasedunik eraikiko".
- c) Zein alde jakingarri edo estimagarri izan ditzake Marxismoak, zure ustez?
- d) Zerk eraman ote zituen Marx eta Engels bere teoria soziala lantzena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1871

Hemeretzigarren mendeak iraultza odoltsuak ezagutu zituen Frantzian. Lehenik guztien ataria izan zen Iraultza Frantsesa bera (1789-1794), eta honek egindako proposamen sozio-politiko burutugabeak ondoko hamarkadetan indarka etorri ziren, behin eta berriz Iraultza berrietan lehertuz. Unerik larrietakoa Pariseko Komunarena izan zen: honen ondoko justizia ez zen samurra izan.

*"Eta errepresioa bihoskabeki etorri zen. Zigortuak guztira 17.000-35.000ren bat izan zirela uste da(...). Poliziaren beldur-
rrez, zenbat langilek egin zuen hanka Parisetik? Pariseko Udalaren
inkestak batek 100.000tan jarri zuen desagertutako kopurua. Zen-
bait lagunek, gainera (eta hau ez da hain ezaguna), epaiketarik
gabe, bere eskubide politikoak galdu egin zituen. Pariseko barruti
batsuetan hautesle inskribatuen zerrendak % 25 murriztu ziren.
Honela, alderdi iraultzailea, lepamostuta eta eratsita, eszenategi
politikotik desagertu egingo zen, beraz... Usteenez, iraultzai-
leak hilda, Iraultza hiltzen zen; baina, egiaz, mitoa sortzen ari
ziren, luzarora gabe 'Commune' deituko zen hark zabalduko zuen
eragina izango zuen mitoa".*

(J. GAILLARD)

Iraultza denak ez dira berdinak izaten, ezta iraultza herritar beza-
la deskriba ditzakegunak ere: batzuetan tirania politiko baten aurka
izan dira, baina zenbaitetan zentzu sozialagoa hartu izan dute, eta
inoiz mugimendu herritar sozialek benetako buruzagi gidariak izan dituz-
te, gainera. Honelakoetan, sistema sozial eta politiko osoa jartzen du
arriskutan Iraultza herritarrak. Hauxe gertatu zen Komunarekin, eta ho-
rregatik, azkenean, halako zigorra.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n aurki ditzakezu agiriko gertakariak ulertzeko argibide orokorrak: 40-45. orr. (aurreko urteetakoak), 58-61. orr. (mugimendu sozialak).

EGITEKOAK

- a) Bila ezazu testu libururen batean 19. mendeko langile-iraultzek zein berezitasun izan zituzten.
- b) Herrian gerraurreko sozialistarik, edo errepublikazalerik, edo sindikalistaren bat balego, egin berari garai hartako borrokei buruzko galdeketa bat.
- c) Zuen herrian gorabehera handiak gertatu al ziren Errepublika etorri zenean (1931): galde herriko zaharrei. Zer izan ote zen herritarrentzat gertakari hura?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer izan zen 1871ko Pariseko Komuna?
- b) Zein berrikuntza finkatu ziren langileentzat eta irakaskuntzan Pariseko Komunaren ondorioz?
- c) Zer zen 1. Internazionala?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Iraultza Frantsesaren epealdi batek, Konbentzioak hain zuzen, Euskal Herrian izan zuen eragina azaltzen da hemen. Frantzian, geldiezina gertatu zen Iraultza, eta mementu hartan garrantzizko erabaki eta pausoak eman ziren. Espainiak bere jarraera argitu zuen Iraultzaren aurrean, baina Euskal Herriak ez zuen adostasun osorik Koroaren politikarien jokabidearekin.

"Gipuzkoako Diputazioko 'Batsorde batek akordio batetarako proposamenak idatzi zituen eta hauen artean zera: 1200. urterarte bezala probintzia independente izan dadila Probintzia. (...). Getariako Batsarrea ere independentziarenean mantendu egiten da. Abuztuaren 24ean, ordea, Probintzia herrialde konkistatu bezala goberna zedila agindu zuen Konbentzioak. (...)

1795ean aldatu egiten da Konbentzioaren jarraera hau. Maiatzaren 10ean Getariako Batsarreak Foruak ezetik Gipuzkoaren independentzia ere esagutu egiten bait ditu. (...). Gipuzkoako Batsarreak zera eskaini zuen: Espainiarekin bateginda zeukatzen lokarriak hautsi eta errepublika independente egitea; eta Araba eta Bizkaia ere laster elkartuko zitzaizkiola (espero zuen)".

(R. LOPEZ ATXURRA, 1980)

R. López Atxurra, E.H.U.ko Irakasle-Eskolako irakasle eta ikertzailea da. "Historia de Euskal Herria" obraren autoreetako bat da. Obra honek (gutxitxo zabaldua) euskal historia osotasun eta testuinguru orokor batean hartzen du. Euskal Herriari bere osoan begiratzen diolako, dituen irudiengatik eta lanaren seriotasunagatik oso baliozkoa izan liteke obra hau eskola-biblioteka batean.

"Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n baduzu XIX. mendeko Euskal Herriaz informazio erabilgarririk: lehenik, 64-70. orrialdeetan, baina baita 210. eta hurrengoetan ere.

EGJTEKOAK

- a) Ikus, Atlas Historiko batean, Konbentzioaren garaiko Frantziaren lurralde-hedadura noraino heltzen zen.
- b) Euskal Herriari buruzko Histori liburu batean, ikus Konbentzioko Gerrateak nolako eragina izan zuen gure lurraldean.
- c) Begira ea frantsesen okupazioa zure herriraino iritsi zen.
- d) Zure herriko Udaletxean edo eliz artxiboan, garai honetako dokumentazioen bat bilatu, eta komenta ezazu gelan.
- e) Mementu hartako Euskal Herriaren egoera ezagutu ondoren, nolako harremana izan ote zuten hemen frantses armadakoei: adieraz idazketa edo marrazketa baten bidez.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk dira Inaultza Frantsesaren faseak?
- b) Noizkoa da Konbentzioa?
- c) Zeintzuk dira Konbentzio-garaiko gertakari behinenak?
- d) Zer esan nahi du "Foru" kontzeptuak? Eta "Errepublika" hitzak?
- e) Nola ulertzen duzu Gipuzkoako Batzarrearen eskaintza: "Espainiarekin bateginda zeukaten lokarriak hautsi eta errepublika independente egitea".
- f) Gaurko politikatik zer esan ote liteke agirian ematen zaizkigun gertakari haietaz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Pasarte hau argitara eman zen garaia (1762) sinbolikoa gerta daiteke: Urte haietantxe Zazpi Urteko Gerratean zeuden Frantzia, Ingalaterra, etab. Bi Monarkia hauen artean, Amerika eta Indiako kolonien banaketa berri bat jaiotzear zegoen. Rousseau-ren eritziak europar antikolonialisten ideien oihartzuna dakar hona.

"Konkistatik sortutako eskubideak, eskubidea ez izanik ez dezake oinarritu beste inolakorik, izan ere konkistaria eta herri konkistatuak gerra-egoeran aurkitzen ziren, nola eta nazioak, berririo ere bere askatasun osora itzulita, ez duen garaitzailea buruzagitzat borondatez aukeratzen. Une horretararte, kapitulazio asko egin arren, denak bortxakerian bakarrik oinarritzen zirenez eta, hortaz, deus ez direnez, hipotesi horren gain ez dago, horregatik ere, ez egiasko gizarterik, ez elkarte politikorik, ez eta indar-tsuenaren legea ez den besterik". (J.-J. ROUSSEAU, 1762)

J.-J. Rousseau (1712-1778). Pentsalari suitzarra, absolutismoaren kritikari zorrotza. Hiritar guztien berdintasuna eta aginte demokratikoa defendatu zituen. Era berean, heziketa libre batean oinarritutako gizarte-aldaketa proposatu zuen. Bere obra aipagarrienak: "Le Contrat Social" (1762), "La Nouvelle Héloïse" (1761), "L'Émile" (1762). Ilustrazioaren teorikaririk garrantzitsuenetakoa.

Ilustrazioaz ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 412-414. Kolonialismoaz, ostera, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": hainbat argibide, 71-126. or., azalpenean bezala irudi eta agirietan.

EGITEKOAK

- a) Liburutegietako entziklopedietan aztertu ondoren, idatz J.-J. Rousseau-ren bizitzako datu interesgarrienak.
- b) Labur itzazu politika- eta gizarte-mailan dituen ideia funtsezkoenak.
- c) Ilustrazioari buruzko informazio orokorra jaso ondoren, idatz hark he-
datu zituen ideien berri labur bat.
- d) Egizu taula bat Antzinako Erregimena eta ilustratuen ideia politikoak
parekatuz.
- e) Bila eta sakon esaldi hauen esanahia:
 - Akordio edo hitzarmen soziala
 - Subiranotasun herriturra

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nor izan zen J.-J. Rousseau?
- b) Zerk bereizten du haren pentsamendu politikoa?
- c) Zer da "Le Contrat Social" (= hitzarmen soziala)?
- d) Zein aginte-motaren aurka errebollatzen da? Zergatik?
- e) Zeintzuk izan ziren Ilustrazioaren ideien ondorioak?
- f) Iestuan "koloniak" aipatzen dira, baina zein koloniaz ari da?
- g) Zein da zure eritzia Iestuan ageri diren ideiei buruz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu honek berezko balio historikoa du, duen autorea Lenin, Iraultza baten teorikaria eta protagonista izan bait zen) eta dokumentuaren datagatik (1916): Lehengo Mundu-Gerratearen argitan, Iraultzaren aurreko hilabeteetan egindako gogoeta da hau. Inperialismoaren interpretazio ekonomikoa da Lenin-en hau.

"Oro har, kapitalismoaren funtsezko ezagugarrien segida eta garapen zuzen bezala agertu zen inperialismoa. Baina kapitalismo hura garapen handi batera iristean bakarrik bihurtu zen inperialismo kapitalista, hau da, kapitalismoaren funtsezko ezagugarri batzuk beren antitesi bihurtu zirenean (...). Bizitza ekonomikoaren ikuspuntutik begiraturuta, prozesu honetan dagoen oinarritzkoa zera da, lehiakidetzaz kapitalista librea monopolio kapitalistekin trukatzea.

Inperialismoaren definizio ahalik laburrena ematea beharrezkoa balitz, inperialismoa kapitalismoaren epe monopolista dela esan beharko litzateke. (...). Komeni da inperialismoaren definiziorako bost ezagugarri hauek ematea:

1. Produksioaren eta kapitalaren kontzentrazioa garapen-maila hain garaira iritsi da, ze monopolioak sortu ditu, bizitza ekonomikoan betekizun erabakiorra duten monopolioak.
2. Banku-kapitala industrialarekin bateginda, 'finantz kapital' honen gain oligarkia finantzaria sortu da.
3. Kapitalen esportazioak --merkantzien esportazioaren ginetik-- zeresan handieneko garrantzia lortzen du.
4. Mundua banatuko duten kapitalisten nazioarteko elkargo monopolistak eratu dira.
5. Potentzia kapitalista handien arteko munduaren lurralde-banaketa burutu da".

(V. I. LENIN, 1916)

Lenin (Vladimir Ilitx Ulianov: 1870-1924), iraultzaile eta politikari errusiarra zen. Kazan eta San Petersburg-eko unibertsitateetan Lege-ikasketak egin zituen. Ikastuna eta ekintzale iraultzailea izan zen, biak aldeberean, beti ere Marx-en teorizazioaren ildotik. Presondetia eta erbestealdiak jasan ondoren 1917ko Iraultza Sovietarraren sustatzaile erabakiorra gertatu zen. Beste idazlan askoren artean, "Inperialismoa, kapitalismoaren goi-unea" (1916-17) idatzi zuen, eta bertatik hartu dugu testu hau.

Begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n Amerikaz: 180-232. orr. Baina batez ere "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n gai honi eskaini zaion kapitulu oso bat: 71-126. orr. Gaia hainbat alde ezberdinetatik ikutu dezakezu; aurkibidean ik. 702-703 eta 717-719 (beste agiriak eta irudiak). Liburu berean Amerika eta Afrikarentzat ere badauzkazu albisteak.

EGITEKOAK

- a) Liburutegietako entziklopediak, histori liburuak azter itzazu, XX. mendeko hastapenen garapena laburtzeko.
- b) Emazu mapa batean 1880arteko hedapen koloniala: Frantzia, Ingalaterra, Holanda eta Estatu Batuen Koloniak margo ezberdinez bereiziz.
- c) Laburbil eskema batean: 1) Inperialismoaren kausak, 2) Epe nagusienak (Mediterraneoa, Afrika Beltza, Ekialde Urruna). Hobe balitz, maparen bat egin.
- d) Azter Lehen Mundu Gerratean Koloniek izandako betekizuna.
- e) Jar ezazu mapan Afrikaren banaketa koloniala.
- f) Eman eskema batean inperialismoari buruzko interpretazio ezberdinak.
- g) Argitu hiztegi ekonomikoan hitz hauen esanahia: kapitalismoa, monopolioa, kolonia, oligarkia finantzaria, inperialismoa.
- h) Ahalbiderik baldin baduzu, ez laga filme hau ikusi gabe: M. Eisenshtein-en "Potemkin Korazatua" (SB, 1925).

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zergatik izan da Lenin horren pertsonaia garrantzitsua?
- b) Zer dio inperialismoari buruz? Zeren ondorioa da berau?
- c) Inperialismoaren hedapenaren kausa ekonomikoak, zeintzuk dira? Eta estrategikoak?
- d) 1914ean zenbat nazio ziren Afrikaren jabe? Nola? Zergatik?
- e) Munduko potentziak Afrikan inperio iraunkor bat lortzearen burukatu ziren: Zeintzuk lotu zuten Kostalde mediterranearra Afrikako hegoaldearekin? Eta Afrikako Ekialde-Mendebaldeak elkarrekin? Zein gatuzka-mota sortu zen?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1865

Euskal Herriko nekazal munduan egoera ekonomikoa ez zen batere ona. Baserriko maiorazgoak ez ziren seme-alabek, bizi-irteera beren gisara bilatu behar zuten. Batzuk industri lanetan sartu ziren, beste batzuk morroi-lanetan, baina zenbait jende urrutira abiatu zen: euskal emigrazioa Europakoen artean ulertu behar da. Euskal artxiboak, egunkari-aldizkariak eta literatura bera ere emigrazio hauen oihartzunez beteta daude.

"Nere aita Argentinara 1865ean etorri zen. Ibarra ondoan, Izaskundik hurbil, mendi-maldia batean dagoen Gorotxun baserriko semea zen... Argentinarako atera zenean 13 urteko mutil koskorra zen, eta familiaren eta herriaren egoera ekonomiko txarrak behartuta egin zuen. Mendiko gisaseme galanta zen, baina analfabetoa. Haren lehenengo lana, indiarren kontra defendatzeko zangak ondatzen zebiltzan peoiei balde batekin edateko ura inguratzea izan zen. Gero harategi batean jarri zen lanean eta haren egitekoa hiltzeko animaliak ekartzea zenez, zaldisko lanak egiteko grina bisia piztu zitzaion gure aitari, eta abeltsain izatera pasa zen, eta eginkizun honetan eman zuen bere gastaro osoa. Egoerak lagundu zionean, 'estantzietan' animaliak erosten hasi zen, eta arreatuz hasitegitara ekartzen.

1890ean lur-sail bat hartu zion errentan La Colina-n (General Lamadrid hiriko partiduan) Krabbe eta King firma ingelesari. Sailak 'Los Pozos' du izena, han baster batean izen horixe zuen aintzira bat segoelako. Trahal-zekorren negualdiak egiteari ekin zion: asienda-taldeak prestatu eta Buenos Aires-era ekartzen zituen, saltzeko. Ustiatagia sabaldus, taldea garraiatzen lagunduko zioten abeltsain batzuk hartu zituen, kapataz bezala. Nik, gizon helduak sirela esagutu nituen (...). Garraio hauetan aita bera ere ibiltzen zen; asapalan itsultzen zen lagun-taldea hiritik landara, 100 legoatan. Batezbeste bost egun ematen zituzten horretan eta uda-partean gaue bakarrik ibiltzen ziren". (J. GOITXEA)

Interesgarria da honelako lekukoek aitortena: euskaldun pobre asko hartu behar izan zuen XIX.ean Ameriketarako bide, hemengo ezinetatik irten eta hango aberaspideez baliatzeko. Han ere lana ez zen samurra; baina, ahaleginaren poderioz, batzuentzat posible gertatu zen amestutako ondasunak eskuratzea. Horien artean dago kasu hau ere.

Emigrazio-fenomenoak ezagutzen hasteko, begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 13-16. orr.; lur berriek erakarmen handia zuten, 233. or. (irudia); kolonizazioen erakarmena, berriz, ikus 84-89. orr.; 314. or. (gautxo).

EGJTEKOAK

- a) Euskal Herriko egoera ekonomikoa azter, 18. bukaeratik 19.aren erdiraino, baina nekazal munduan oinarrituz.
- b) Argentina-ren mapa egin, bertan eskualde garrantzitsuenak markatu, eta baliabide ekonomiko aipagarrienak adieraz.
- c) Bila ezazu zerbait gautxoaren irudi literarioaz, *Literatur Historia* batean. ("Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ere baduzu argibiderik: 314. or.).
- d) Bila entziklopedia batean, Argentinaren mapa ekonomiko batzuk.
- e) Zure herrian ezagutuko da Argentinara joandakoen bat: Zergatik joan zen? Zein lan egin izan ditu han? Nola bizi da orain? Itzultzeko al da? Zergatik?
- f) Bila "Auspoa" liburu-bilduman Ameriketara joandakoen bertsoak.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Maionazgoak bai al du zer ikusirik emigrazioarekin?
- b) Endaraz "hacer las Américas" esaten denean, zer esan nahi da?
- c) Herri askotan dago "amerikano-etxe" bat: normalean, etxeok zer izan ohi dute latxadetan?
- d) Gaur egun nortzuk dihoaz Ameriketara?
- e) Ezagutzen al duzu gaitxo literario sonatu baten izena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

"Saturday Review" aldizkariko artikulu honetan, XIX. mende bukaeran Ingalaterra-Alemanien artean piztu zen lehiaketa kolonialaz hitz egiten da, fenomeno horren arrazoi batzuk aipatuz. Bestalde, nabariak ziren, arlo honetan, haien arteko desberdintasunak ere. 1885ean Berlineko Kongresuan onartutako lasterketa kolonialaren garaiko lekuko da kazeta honen pasarte hau.

"Bi botere handi elkarrekin kontrajarriak eta konponesinak daude European, beren ekimena mundu osora zabaldu nahi duten bi nazio handi eta munduari merkatal zerga bat ezarri nahi diotenak. Ingalaterra, alde batetik: arrakasta izan duten erasoen bere historia luzearekin, bere interes propioa asetz ilunbeetan murgildutako nazioak argitzen ari den bere konbentsimendu harrigarriarekin beti. Eta Alemania, odol berekoa: borondate ez hain adoretzuarekin, baina beharbada adimen biziagoarekin, munduko puntu gustietan agertu da, eskean. Transvaal-en, Cape Town-en, Ertafrikan, Indian, Ekialdean, Hegoaldeko itsasoetako irletan eta Ipar-mendebalde urrunean, Bibliari jarraikiz bandera bat ezarri den tokietan, eta banderaren ondoren merkatalgoa, horrelakoetan ofizial bidari alemaniarra kinkilari ingelesarekin lehiakide da".

(Saturday Review: 1897-Iraila-11)

XIX. mendeko kazetaritzak zeresan handia izan zuen Erreinu Batuan, bai oro har jendearen eritziak gidatzen, baita unean uneko arazo larrienak aztertzen ere. Hauetako bat izan zen "Saturday Review". Bizitza luzea izan zuen astekari honek (1855-1935), eta ez zitzaion lankide onik falta izan; kritikari bezala, adibidez, G. Bernard Shaw.

XIX-XX. mendeetako kolonialismoaz kapitulu oso bat daukazu "Mendez Mende. Aro Garaikidea": "Mundua, Mendebaldearen menpe: Inperialismoa", 71-126. orr. Ingalaterraren politika koloniala ezagutzeko, gainerako ohar orokorren ondoan, gertakariak 98-103. orr. ikus litezke. Kolonialismo alemaniarraz, ostera, ik. 107. or. Afrikaren banakuntzaz esaten direnekin ere osa daitezke argibide horiek: ik. 114-117. or. (ik. mapa, 116. or.).

EGJTEKOAK

- a) Alemania eta Ingalaterraren zabalkunde kolonialak koka mapu batean, kronologia ere kontutan izanik.
- b) Artikuluak dienez, Alemania eta Ingalaterra potentzia lehiakideak ziren: arlo kolonialean bakarrik ote zen hori horrela?
- c) Bi potentzia hauen lasterketa koloniala ulertzeko, eman lau ki batean bakoitzairen indar ekonomikoen berri.

ERANTZUTIKOAK

- a) Zein arrazoi aipatzen dira kolonizazioarako, testu honetan? Besterik ezagutzen al duzu?
- b) Testuan esaten denaren arabera, Alemaniak "atzerapen" kolonial bat zuen ("munduko puntu guzietan agertzen da, eskuan"): azter atzerapen horren arrazoiak. Nolakoa ondorioak ehar zitezakeen atzerapen horrek, garai hartan Alemaniak goraldi ekonomiko handia izanez gero?
- c) Testu hau 1897.ekoa da. Garai hau, eta bereziki 1898. urtea, oso istilutsua izan zen mundu kolonialean: Zeintzuk izan ziren gatazka-une eta -lekuak? Nola lotuko zenuke testu honek dioena 1. Mundu-Gerrarekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

G. Clemenceau, frantses politikariak kolonialismoaren kontra egindako hitzaldi bat da hau; dokumentu historikoa, beraz. Kolonialismoaren arazoa, Industri Iraultzaren ondorio bat izan zen: ekonomiari ere geroz eta irtenbide erosoago bat eman nahi zitzaion: kolonialismoaren arrazoizkotasuna frogatu nahi izan zen, beraz. Europako potentzien artean lasterketa bat piztu zen. Ez zen, ordea, kontrako jarrera eta kritikarik ere falta izan, nahiz eta konkista kolonialen aldekoen eritzia garaile atera.

"Goiko arrazak! Beheko arrazak!". Jakitun alemaniarrek, frantsesa alemaniarra baino arraza apalagokoa dela, eta gerrate franko-prusiarrean bentsutua izan behar zuela zientifikoki erakusten ikusi ditudanetik osorik arbuiatzen dut tesi hori... Arraza apalagoa hinduak? Arraza apalagoa trinarrak? ... Es. Egon, ez dago goikoak deituriko nazioek behekoen gain omen duten eskubiderik. Ez dezagun, beraz, biolentzia zibilizazioaren isenaz jantzi: ez gaitezen betebeharraren eskubideaz mintza. Proposatzen duzuen konkista, indarrezko abusu huts-hutsa da, zibilizazio zientifikoak eskasagoen gain duen indarrez egina; gizonak menperatu, torturatu eta, gainera, zibilizatsaile omen den horren probetzutan menperatuok duten lan-indar osoa zurrupatzeko bidea. Horretaz zibilizazioa aipatzea biolentziaz gain hipokresia pilatzea da!"

(G. CLEMENCEAU, 1885)

Georges Clemenceau, politikari frantsesa (1841-1929). Asanblada Nazionaleko diputatu bezala, Komunarekin porrot egin zuten negoziazioetan parte hartu zuen, eta geroxeago dimititu. "Ultra-ezkerreko buru bezala, Jules Ferry-ren eta beronen politika kolonialaren etsairik handienetakoa izan zen. Bestalde, sozialistek, metodo autoritarioak eta agindutako erreformak ez betetzea leporatzen zizkieten. Akademia Frantseseko kidea izan zen (1919). "Tigrea" eman zitzaion izengoitizat.

Ongi etorriko zaizu kolonialismoa gidatu zuten faktore eragileak ezagutzeko, "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n begiratu on bat ematea: ik. 84-92, 96. orr. Orrialde beretan daukazu kolonialismoa eta antikolonialismoa defendatu zituztenen beste pasarte batzuk. Dakizunez, liburu horretan 2. kapitulua osorik kolonialismo europarrari eskainita dago. Interesgarria izan liteke XVI. mendeko eztabaidekin alderatzea: "Mendez Mendeko Aro Modernoa", 190-192, 216-224. orr.

EGJTEKOAK

- a) Nora hedatu zen orokorki europarren kolonizazioa? Eta, zehazkiago, Frantziarena? Erakus ezazu mapa batean.
- b) Hiztegi batez baliatuz, bereiz ongi "zibilizazio" eta "kultura" kontzeptuak. Berdinak al dira?
- c) Azter, kolonialismo frantseak Asiako kontinentean sortutako ondorioak.
- d) Esprika itzazu testuan agertzen diren esaera zati hauek: "Ez dezagun, beraz, biolentzia zibilizazioaren izenaz jantzi"; "Ez gaitzen betebeharraren eskubideaz mintza".

ERANTZUTEKOAK

- a) "Gerrate franko-prusiarra" esatean, zeri egiten dio erreferentzia agiriak?
- b) Zeintzuk dira, autoreak, kolonialismoaren kontra aipatzen dituen arrazoiak?
- c) Testutik atera daitezke, orokorki, hedakuntza kolonialaren aldekoek defendatzen zituzten arrazoiak: Zeintzuk ziren? Besterik ezagutzen al duzu?
- d) Nortzuk agertzen dira kolonialismoaren alde? Nortzuk kontra?
- e) Nolako problemak konpon zitzaizkion kolonien ekonomia europarrean?
- f) Kolonialismoak, nolako arazoak planteatzen zitkien koloniei: laborantzan, industrian, populazioan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Hona hemen C.J. Rhodes-ek Ingalaterrako politika kolonialaren sostengatzailerik handienetako batek idatzi zuen gogoeta hau. Londres-en ikusitako langileen protestak inperialismo koloniala iradoki zion Rhodes-i. Erreinu Batuan bizi zen egoera ekonomikoa larriarentzat, "bakezko" irtenbide bakarria sistema koloniala sortzea zen: gerra zibilaren arriskua, herriarteko eraso kolonialean ito nahi zuen.

"Londres-eko East End-en (langile-auzoan) isan nintzen atzo, eta langabetuen asanblada batean egon. Eta 'ogia, ogia!' eskatsen zuten hitzaldi sutu haiek entzun ondoren, etxera nentorrela, entzundakoa nere gisara gogoematen, inoiz baino areago konbentzitzen ari nintzen inperialismoaren garrantziaz (...). Buruan darabilan ideiak arazo sozialaren irtenbidea erakusten du, hau da: Erreinu Batuko berrogei milioiak zorigaistoko gerrate zibil batetik salbatzeko, guk, politikari kolonialok, lurralde berriak hartu behar ditugu, bistanle-soberakina berorietan kokatzeko, gure meatz eta lantegietako produktuak saltzeko, merkatu berriak aurkitzeko. Inperioa, beti halaxe esan dut, lapiko-arazoa da. Gerra zibila nahi ez baduzue, inperialista bihurtu behar duzue".

(C.J. RHODES, 1895)

Cecil J. Rhodes (1853-1902), finantzari eta kolonialismoaren defen- datzaile britaniarra zen. 1870.ean Cape Town-era joan zen, eta bertako diamante-mehategietan aberastu zen Cecil: De Beers Mining Company sortu zuen, munduko diamanteen monopolioa eskuratuz. 1889.ean British South Africa Company eraiki zuen, eta egungo Zambia eta Zinbabwe (koloni garaietan Rhodesia deitua) kolonizatze baimena lortu. Hego Afrikan lehen ministrari izan zen; Britainia Haundiaren kontrolpean, Hego Afrikaren batasuna eratu zuen, baina ez gatazka gaiztorik gabe: Boerren gerratea (1899-1902).

Begira "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n 84-92. orr. Kapitulu osoa da hor, kolonialismoaren arazoari eskainitakoa: ez duzu ezer galduko begiratu on bat ematen badiozu. Hego Afrikari begira ere ik. 97, 101-102 (Boerak), eta orokorkiago: 98-103. orr.

EGITEKOAK

- a) Munduko mapa batean koka Ingalaterraren Inperio koloniala, bere interes-gune ekonomikoak eta bideak.
- b) Egizu Ingalaterraren zabalkunde kolonialaren kronologia bat.
- c) "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n, adierazitako orrialdeetan, irakurritakoetatik eratu ikasgelan kolonialisten eta antkolonialisten artean erabili ziren arrazoiekin lauki bat.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nolako arrazoiak agertzen ditu testuan Rhodes-ek kolonialismoa zuzenestatzeko?
- b) Rhodes-en ustez, Ingalaterran dauden arazo eta tentsioak Inperioak leunduko zituen: zer deritzozu zuek?
- c) Zer esango zenuke "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n 112. orrialdean daukagun agiriak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Idazle vietnamdar baten testua dugu hau. Europarrek zeramaten kolonizazio-prozesua indartuz zihuan, eta herri kolonizatuetakoa aurkako erreakzioak berehala sortu ziren: lehenengo, talde intelektual gutxi batzuk; ondoren talde nazionalisten antolamenduak. Baina, XIX. mendeko hori ez zen Vietnam-eko historian lehenengo esperientzia koloniala, izan ere lurraldearen historia lau epealditan bana daiteke: Txinaren menperaketa, independentzia, eta kolonizazio frantsesa eta askapen nazionala.

"Gure Erregeren gobernuak galtzean, gurasoak galdu dituen haurraren goibelaldi berean gaude. Zuen erreinua Mendebaldeko itsasoetako da; gurea, Ekialdekoetakoa.

Trakala eta bufaloa bata bestearengandik bereizten diren bezala, bereizten gara gu gure idazkera, hizkuntza eta ohituretan. Gizakia arraza ezberdinetakoa da; hala ere, denek balio bera dute, baina berorren izaera ez da bat bera.

Eskerronak gure Erregerekin lotzen gaitu, egin zaizkion laidoen ordaina hartuko dugu edo haren alde hilko gara. Burdina-suak gutartera ekartzeko segitzeko baldin baduzue, luzea izango da desordena; baina seruari legeen arabera borrokatuko gara eta gure kausa hau, askenik, irabazteko aterako da.

Bakea nahi baldin baduzue, itzul gure Erregeri bere lurraldeak. Aspertzeko, betiren beti borroka egitea zinegiten dugu".

(Idazle vietnamdarra, 1862)

Azken mendeko historiari begiratzen badiogu, idazle vietnamdarren kulturak, barneko tradizioaz gain, kanpoan bi inspirazio-iturri izan ditu batipat: Txina eta Europa. Berezikiago, Frantzia izan da, bere presentzia kolonialak lagunduta, erakarmen ideologiko eta formal biziaren izan duena. Dena den, kolonialismoak ezarritako kontraesanen hildotik bietatik dago hango gogoeta kulturalen: iragan propio jatorra ezagutu nahia, eta europarrek sortzen duten lilura.

Frantses kolonialismoak izan dituen osagai ideologikoak zerbait ezagutzeko, begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 104-106, eta, orokorki-ago, 92-93. orr.; zenbait agiri jakingarri: 89-93, 125-126. orr. Interes-garria duzu beste herri kolonizatueta-ko erreakzioak ezagutzeko.

EGITEKOAK

- a) Atlas historiko batez baliatuz, ikus eta egin Vietnam-en mapa bat.
- b) Atlas historiko bateko mundu-mapa batean begira kolonizazioak nolako itzala izan duen Asian.
- c) Azter noiz eta nortzuek eraman zuten kolonizazioa Vietnam-era.
- d) Egin Vietnam-eko independentzi mugimenduaren historia labur bat.
- e) Golan aipatu diren agiriak erabiliz, eman lauki batean, parekatuta, kolonialismoaren alde nahiz kontra erabili izan ziren arrazoiak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Labur ezazu idazle vietnamdarraren jarrera ideologiko-politikoa.
- b) Zeintzuk dira idazlearen eritzien aldeko arrazoirik funtsezkoenak?
- c) Arrazen ezberdintasuna onartzen du, baina baita ezberdintasun horretan norberaren balioa ere. Nola ulertuko zenuke hori?
- d) Erlijioari zein betekizun ikusten dio idazle abertzaleak?
- e) Nonengan oinarritzen du idazleak, bere izaeraren nontasuna? Zer suposatzen du horrek?
- f) Gaur egun nola aurkitzen da Vietnam?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Fohlen historilariaren testu honen gaia politikoa da, zuzenean: askatu-berriak ziren bi Estatu arteko lurralde-politika. Europarrok errazkiegi ahanzten dugun gatazka bat da hau: kolonietatik sortutako Estatu berriek ere eduki ditzaketela beren proiektu inperialistak. Ipar Ameriketako Estatu Batuak, jatorrizko Hamahiru Estatuetatik hasita, 1815-1848 urteetan iritsi ziren beren hedakuntzari Pazifikoraino. Baina, tartean beste subiranotasun batzuk egon ziren: nagusienetako bat Mexiko-rena izan zen. Mexikori Texas, Mexiko Berria eta Kalifornia hartu zitzaizkion, 1845-1848.

"1830az geroztik gutxi gorabehera, kolonizazio anglo-saxoniarrak bat garatu zen Texas-eko lurralde honetan. Gerta zitekeena aise aurrikusia zegoen. 1835ean, Texas-eko Errepublikak bere independentzia aldarrikatu zuen, eta hurrengo urtean Batasunean onartua izatea eskatu. (...). Hamar urtetan egon zen oraindik arazoa esekita, 1845ean hogeitazortzigarren Estatu bezala onartua izan zen arte. Baina orduan sortu ziren beldur izatekoak ziren katramilak, Europak parte hartu gabe, eta Batasunaren onetan askenik. Ekintza militar distiratsu eta errazen ondoren, garaitua izan zen Mexiko, eta etsi-etsian Guadalupe-Hidalgo-ko Tratatuaren izenpetu egin behar izan zuen, Estatu Batuei Mendi Arrokatuen hego-mendebaldea eta Mexiko Berriko eta Kaliforniako lurraldeak emanaz".

(C. FOHLEN, 1967)

Claude Fohlen Besançon-eko Unibertsitateko irakaslea izan da, eta Amerika anglo-saxoniarraren sintesi historiko on bat eman digu: "L'Amérique anglo-saxonne de 1815 à nos jours" (Paris. Ed. Labor-ek gaztelaniaz emana). Liburuak balio bikoitza du guretzat: lehen partean, gertakarien laburpen objektiboa egiten da, eta bigarrenean, ostera, gaur eguneko eztabaida eta azterkizun jakingarrienen aurkezpena.

EE.BB.en inperialismoaz zerbait jakiteko, ik. "Mendez Mendek. Aro Garaikidea"n 109-113 orr., eta "barneko" zabalkundeaz, hainbat datu duzu 285-291. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin Estatu Batuen mapa bat, eta adieraz bertan lurralde berrien eskuratzeko-une eta alde nagusiak.
- b) Andatz kronologiko batean eman Estatu Batuen Independentzi eta zabal-kunde-une handiak.
- c) Ikus "Far West"-eko filme bat, eta eztabaida, ezagutu ahal izan dituzuen datuen argitan filmeko gertakariak.
- d) Mapa batean adieraz Mexiko norantz zabal zitekeen, bere independentziaren ondoren, eta non galdu zituen zeuzkanak ere, EE.BB.en mesedetan.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zein urtetan independizatu zen Mexiko Espainiatik?
- b) Zergatik jabetu ziren EE.BB.ak, hain erraz, Mexikoren iparraldeaz?
- c) Zeintzuk ziren EE.BB.en interesak lurralde hauetan?
- d) EE.BB.ek izan duten kolonialismo-motari neoinperialismoa edo kolonialismo ekonomikoa deitu izan zaio. Zertan oinarritzen da hori?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1902

EE.BBak 1902an Kubako irlari independentzia politikoa eman zion, lau urtez bere kontrolpean egon ondoren. Hau zela eta S. Arana Goirik zorionak ematen dizkio EE.BB.etako lehendakariari, Th. Roosevelt-i. XIX-XX. mendeetan, Europako nazio Estatugabeek sinpatiaz ikusi izan dituzte, beti ere, kolonien independentziak. Telegrama hau zela eta, preso hartu zuten Arana, fiskalak salatuta.

"Roosevelt. Estatu Batuetako Lehendakaria. Washington. Eusko Alderdi Jeltzaleak zorionak ematen dizkio Federazio txit leinargi horretako Lehendakariari esklabutzatik askatutako Kubaren independentzia aitortzeagatik. Estatu boteretsuok horrekin eman dizuen Justizi eta Askatasun-erexple eta jaiera ezezagunak dira Historian, eta imitaezinak Europako potentsientzat, latinoentzat bati-pat. Europak hori imitatuko balu, librea isango litzateke eusko nazioa ere, bertoko herririk zaharrena, Estatu Batuen laudorioak merezi izan zituen konstituzio batez susenduta Libertatea menderik gehien gozatu duen nazioa" (S. ARANA-GOIRI, 1902)

Sabin Arana Goiri (1865-1903), familia karlista batean sortua zen. Karlismoa bide itxi bat bezala ikusi zuen, eta eusko abertzaletasunari berak eman zion batez ere formulazio politikoa, beste herrietako ereduak ere gogoan zituela (Kataluniakoa batipat). 1890.eko hamarkadan lan handiak egin zituen bere ideia politikoa euskotarren artean zabaltzen. Alderdi Jeltzalearen sortzailea da Arana Goiri.

"Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n baduzu informaziorik deskolonizazioei buruz: Amerikaz kapitulu oso bat daukazu: 229-333. orr., baina Kubakoaz zehazkiago nahi baduzu, ik. 328-330. orr. Afrikaz baduzu zerbait: 485-490. Europako abertzaletasun berriei buruz, ik. 46-54. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin inperialismo amerikarraren kronologia bat (adibidez, ik. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n, 112. orrialdeko mapa).
- b) Entziklopedia batean ikus EE.BB.ekin Kubak izan dituen harreman-arazo handienak.
- c) Zer da Guantánamo? Begira entziklopedia batean.
- d) Bila "Auspoa" bilduman Kubako gerrari eskainitako bertsoak: zer esaten zuten bertsolariak? Diotena, eta hemen Ananak esaten duena, bct al datoz? Zergatik?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Telegramaren asmoa zorianak ematea dela esan dugu; baina bai al dago beste xederen bat?
- b) Euskadi eta Kubako egoerak paraleloak direla sinesten zuen Sabin Ananek? Baina ez ote dago benetan alderik ere? Zertan?
- c) Nazionalismoa eta kolonialismoa, kontrako kontzeptuak al dira?
- d) Ananak, zergatik dio European ez zela halakorik egingo?
- e) Zer gertatu zen 1. Mundu-Gerratearen ondoren European mapa politikoan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak berraukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Europarrek beren artean egiten ari ziren Afrikaren partiketa, arriskutsua zen potentzia kolonialen arteko bakerako ere. Bereziki Frantzia eta Inglaterraren harremanak ozpinduta zeuden, errezeloz beteta. Bestalde, Alemaniak ere prozesu kolonialean partaide izan nahi zuen. Arazoari jokatibide-kode bat emateko bildu zituen Bismarck-ek potentzia kolonialak Berlin-en, horretarako alde aurretik Frantziaren oneritzia hartu ondoren. Nazioarteko Zuzenbidearentzat Berlin-en geratu zen Afrikaren banakuntza koloniala bere lerro nagusietan finkatuta.

Azken xedeak. "Merkatalgoaren eta Afrikako eskualde jakin batzuetarako zibilizazioaren garapenerako baldintzarik onuragarrienak elkarren arteko ulerpen-gogo bates jarri nahirik,

Eta Ozeano Atlantikora doazen bi ibai afrikar nagusienetan nabigazio librearen abantailak herri gustiei segurtatzeko asmoarekin;

Bestalde, Afrikako kostaldeetan lekuhartze berriak egitean etorkizunean piz liteskeen estabaida eta gaiski-ulertzapenei itsurtzeko,

Eta aldiberean bertako herrien ongizate moral eta materiala gehitzeko baliabideez arduratuta:

Zera *erabaki dute* (bildutako Estatu-buruzagiek): Nazio gustietako merkatalgoak askatasun osoa izango du bere harremanetan (...). Pabiloi gustiek, inolako nazionalitate-bereiztasunik gabe, aipatu lurraldeetako kostaldeetarako, berrietako ibai-bokaleetarako, Kongoko uretarako eta beronen ibaiadar eta lakuetarako sarbide libre izango dute (...).

Bertakotarren, misiolari eta bidarien eta erlijio-askatasunerako *babes-baldintzak* (...). Lurralde horietan subiranotasun-eskubideak edo eragina izango dituzten potentzia gustiek hits ematen dute, bertakotarren herriak zainduko ditustela eta beraien bizi-aukera moral eta materialak hobetuko ditustela. (...)"

(BERLINeko KONFERENTZIA, 1885)

Berlin-eko Konferentzian (1885) Europako potentzia kolonialak bildu ziren, hain zuzen beren antsia kolonialen gatazkak samurtu asmoz. 1855ean, Kongoko Estatu Askea ezartzeak, 1884etik aurrera Alemaniaren Afrikako presentziak eta, azkenik, lehiaketa franko-belgiarrak behartu zuten konferentzia hau, biltzera, geroan potentzien arteko iskanbilak larriago ez zitezen.

"Mendez Mendek Aro Garaikidea"n atal bat daukazu Berlin-eko Konferentziaz eta Afrikaren banakuntza kolonialaz: ik. 114-119. Hori dena osatuagoa nahi baduzu, kapitulu berean aurreko eta ondoko orrialdeetan daukazuna izango duzu laguntza egokia.

EGITEKOAK

- Inperialismoa azaltzen duten faktoreekin egin sinopsi grafiko bat, faktore ekonomiko, politiko eta ideologikoak eratu.
- 1850etik 1900era Europan ezagutu ziren aldakuntza demografikoak izan zuten kolonialismoarekin zerikusirik. Begira "Mendez Mendek Aro Garaikidea"n estatistikak (13-16. orr.). Egin aldakuntzaren diagrama bat.
- Egizu beste grafiko bat ikatzaren eta burdinaren ekoizpena azalduz (1850-1914). Begira entziklopediaren bat.
- Eman mapa batean, Afrikaren banakuntza koloniala: 1870ean eta 1914ean.
- Frantzia eta Britainia Handiaren inperio kolonialak adieraz, mundu-mapa batean.
- Gai honen inguruan dihardute Emilio Salgari, Pierre Loti eta Rudyard Kipling-en obrak. Zerbait irakur dezakezu.

ERANTZUTERAKOAK

- Bai al dakizu nor egin zuen Konferentziarako deialdia? Zeintzuek hartu zuten parte?
- Nola laburtuko ote zenituzke Konferentzia hartako xedeak?
- Afrikarren eritzia aintzakotzat hartu ote ziren Konferentzia hartan?
- Azken xedeen artean, zibilizazioaren garapena segurtatu nahi zutela esaten da. Noren zibilizazioaz ari dira?
- Nolako ondorioak ehar zitzaizkeen merkatalgoak "sarbide libreak" izateak?
- Zer deritzezu potentzia kolonialet eskainitako babes-baldintzei? Zein desberdintasun suma daiteke 16. mendeko kolonialismoaren eta 19. mendekoaren artean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Agiri honetan, L.S. Senghor, Senegaleko lehendakari ohia, kolonizazioak planteiaturiko problematikaz ari da; beraren ustez kolonialismoaren historian alde negatiboak izan dira nagusi, alde positiboen gainetik. Hala, Senghor-ek, XIX. mendeaz geroztiko Afrikak jasandako esplotazio sistemati-koa salatzen du.

"Kolonizazioak alde positibo eta negatiboa ditu. Alde batetik, garbi dago, luditartze-prozesu natural baten garapena lagundu duela. Zentzu horretan, kolonizazioari esker, unibertsa deituriko zibilizazio bat mamituz joan da mendez mende. Bestalde, hala ere, jokaera kolonialak bere baitan duen ustiapenagatik zoritzarreko fenomeno bilakatu zen.

Gertatzez, noiznahi ere, kolonizazioak alde oso negatiboak izan ditu. Nahikoa da, adibidez, Afrikaren historia astertzea. (...) XIX. menderarte, arabiarrek eta europarrek antolatu zuten 'beltzen tratua' deritsan gizaki-merkatalgoa. Hogei bat milioi beltz izan ziren Ameriketara eramanak. (...). Genozidio horrek ehunen bat milioi hildako utsi zituela kalkula liteke. Berrehun bat milioi izan zirela uste dut nik neuk. Historiako genozidiorik basatiena da. Afrika beltzari egin zaion kaltea, etnia bati sekula egin zaion izugarriena izan da". (L.S. SENGHOR, 1975)

Léopold Sédar Senghor, Joal-en, Dakar-etik gertu jaioa, 1906an. Politikari gogatsua: "Frantses Batasuna" sortu zuen, Lamine Gueye-kin batera, 1958an PRA alderdia fundatu zuen. 1960an Senegaleko lehendakari; 1968, 1973 eta 1978an karguan aukeratua izan zen. Barne-politikan gogor aritu zen oposizioa kontrolatzen. Kanpo-politikan, portuges, espainol eta frantses hizkuntzazko herrialdeen arteko batasuna erreibindikatu izan du.

Afrikako esperientzia koloniala ezagutzeko, lehen argibideak "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n topa ditzakezu: 114-119. orr.; eta azken urteetako, osera, 483-490. orr. Ez ahantz, gainera, kapitulu oso batean esaten zaizkizunek, argibide onak ematen dizkizutela liburu berean: 379-490. orr.

EGJTEKOAK

- a) Kolonizazioak, alde positibo eta negatiboak izan ditu: sailka itzazu diagrama batean.
- b) Bila, entziklopediaren batean, L.S. Senghor-en datu biografiko gehiag^o.
- c) Testuan, Beltzen Tratua aipatzen da: azaldu diagrama, grafiko edo mapa baten bitartez, tratu horren "merkatal bideak" (ik. MM/AG 470-476).
- d) Har Afrikaren gaurko mapa politiko bat, eta 19. mendearen batekin konpara.
- e) Argi, hiztegi baten bidez, ondoko kontzeptuok: antikolonialista, genozidioa eta etnia.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola laburtuko zenituzke L.S. Senghor-en ideiak? Nola interpretatuko hark kolonialismoaren aurrean duen jarrera?
- b) Kolonialismoaren alde positibo eta negatiboak ikusi ondoren, zein eritzi duzu fenomeno historiko hartaz?
- c) Gaur egunearn bai al dago kolonialismoa? Non? Aipa potentzia kolonialen bat, eta huren koloniak.
- d) Afrikaren atzerapenak (ekonomikoak batez ere) bai al du zerikusirik kolonialismoarekin? Zergatik?
- e) Kolonialismoak luditartze-prozesu natural baten garapena lagundu duela irakuritzen da agerian, eta kolonizazioari esker zibilizazio unibertsal bat mamituz joan dela. Zertaz ari da, hau esatean?
- f) Senghor-en zat kolonialismoak ustiapena dakar. Zergatik ote?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1936

30. urte-hamarkadan mugimendu nazionalista sortu zen Algerian, "ulemen" inguruan. (Ulema = teologo eta jakitunak). Algeria-ren nortasuna eta eskararak, arlo sozialean bezala politikoan ere kolonizazio frantsesaren aurka egin ziren, noski. Mugimendu hau Algerian Alderdi Herritarra bilakatu zen 1937an. Testu historiko honetan, ulemen arrazoiak eta ideologia ikus ditzakegu.

"Guk, gure aldetik, Historiaren orrialdeetan, eta orainaldian ere, bilatzen saiatu gara. Eta ohartu gara, munduan dauden beste nazio guztiak bezala mamitu dela nazio algeriarra ere. Nazio honek badu bere historia, kontaezin ala gertakari handirekin argitua; badu bere batasun erlijioso eta linguistikoa; baditu bere berarizko kultura eta tradizioak, bere ohiturak, beste nazio guztietan bezala onak edo txarrak izan daitezkeenak.

Horren ondoren Nazio algeriar musulman hau ez dela Frantzia esaten dugu: ez da posible hau Frantzia izatea. Ez du Frantzia bihurtu nahi, eta nahi izango balu ere, ezingo luke. Aitzitik, Frantziatik erabat urruna da nazio hau, bere hizkuntzaz, bere ohiturez, bere jatorri etnikoz, bere erlijioz. Ez du nahi, inola ere, asimilaziorik".

(ALGERIAKO ULEMAK, 1936)

Erljio-bizitza sozialki ongi eratuta zegoen herrialde batzuetan, kolonialismoaren aurkako indarrak talde edo pertsonalitate erlijiosoen antolatu eta gidatu zituzten. Askapen-borroka, horrela, lehendik zetorren tradizioari eutsiz egin nahi izaten zen. Hauxe da Algeriako kasua ere, 1930. etako borroka goiztar haietan.

Algeriako askapen-mugimenduak, batez ere bere azken urteetan (1954-1962) interes handia sortu zuen Euskal Herrian. "Mendez Mendeko Garaikidea"n badaukazu informaziorik franko: 104-106, 117-118, 417-419, 523-524. orr. Komeni da kolonialismoaren ondorioak ikustea: 120-126. orr. Erresistentzia anticolonialak: 531-535. orr.

EGITEKOAK

- a) "Nazio" hitzaren kontzeptuak azter, hiztegi on baten laguntzarekin.
- b) Afrikan burututako kolonizazioa azter, eta mapa egin.
- c) Egin 104. eta 418. orrialdeetan dauden mapei iruzkin bana, eta aldera elkarrekin.
- d) Algeria-ko kultura, ohitura, hizkuntza eta erlijioaren datuekin lauki historiko-etnografiko bat egin.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer da 'ulema' bat? Azter pertsonaia honek duen garrantzia soziala.
- b) Zer esan nahi da, zure ustez, "nazio guztiak bezala mamitu dela nazio algeriarra ere" idaztean?
- c) Erakus "kolonizazio" eta "asimilazio"ren arteko ezberdintasunak. Aipa itzazu adibideak.
- d) Beste erizpide politiko-erlijiosven artean Islam-ak "Gerra Saindua" proposatzen du. Zein erlazio egon liteke asimilazioarekin ala erresistentzia nazionalarekin?
- e) Gaur egun, zenbat hizkuntza erabiltzen dira Algerian? Zeintzuk?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XIX. mend.

R. Schnerb-en testu honetan analfabetismoaren aurkako borrokan gertatzen den hainbat kontraesan eta arazo agerian jartzen da: Eskola-obligazioa, esaterako, oso berandurarte ez da legean sartzen, eta, beste beharretarako ematen denarekin konparatuz gero, oso atzera gelditu ohi ziren Gobernuetako Hezkuntz aurrekontuetan eskolarekikoak.

"Analfabetismoa gizarteko huts handi bezala agertu arren ez da eskola-obligazioa legeetan berandu baizik sartzen eta leku gutxietan ez da, gainera, bete erosten. Iparraldeko herrietan --Alemanian, Frantsian eta Suitzan-- lehen irakaskuntzak aurrerapen askarragoak egiten dituela ikusten da. Herri batetik bestera oso modu desberdinean, ordea, eta defentsa nazionalerako ematen direnen ondoan oso atzera geratzen dira irakaskuntzaren alde egiten diren sakrifizioak.

Dena dela, Eskolaren inguruko borroka klase zuzendarien mentalitatea ispilatzen du, 'progresu' ideia-aren eta ordena-senaren artean galduta bait dabilta klaseok". (R. SCHNERB, 1960)

R. Schnerb historilari frantsesa da, irakaslea. XX. mendeko sintesi zabal bat du, "Le XIX^e siècle. L'apogée de l'expansion européenne (1815-1914)" tituluarekin. Garaiko gizarte europarra hainbat aldetatik deskribatu du, eta beti ere ez du ahanzten Historia, unean uneko gertakari puntualek ezezik, izaera luzeagoa eta iraunkorra duten korronteeke egiten dutela.

"Mendez Mendeko Aro Garaikidea" liburuan aurki ditzakezu argibide berriak: ik. 128-133, 149-152, 222-224, 225-228. orr.

EGJTEKOAK

- a) Komenta "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n daukazu kronologia kulturala: ik. 127. Zer da, zure ustez, azpimarragarriena?
- b) Zein iruzkin kritiko egingo zenioke liburu bereko 129. orrialdeko marrazkiari?
- c) Egizu mapa bat, 19. mendearen bigarren parteko industrialdeak kokatuz.
- d) Galdetu familiako edo herriko adinekoei non eta zenbat denboratan egin zituzten beren eskola-urteak: herriko eskolan, mojetan...?
- e) Saia zaitetz 19. mendearen azken hereneko analfabetismoaren estatistikak aurkitzen. Egin iruzkinen bat datu horiei.
- f) Charles Dickens-en liburuaren bat irakur zenezuke, urte haietako haur-egoera ikusteko ("David Copperfield", "Garaizailak", etab.).

ERANTZUTZEKOAK

- a) 19. mendeko zientzien aurrerapenak hezkuntzaren hobekuntza ekarri ote zuen? Zer diozu?
- b) Hezkuntzaren aurrerapena eta herri baten garapen-maila elkarrekin loturik ote daude? Eman zure eritzia.
- c) Garaiz hartako hezkuntz egoera eta gaurkoa konparatu ondoren, zein alde ikusten duzu?
- d) Analfabetismoaren arazoa ez dela orainkoa bakarrik uste al duzu?
- e) Herrialde industrialek ahulegin handiagoak egin omen zituzten hezkuntz arloan: bai ote du hezkuntzak industriaren azkartzearekin zerikusirik?
- f) Ematen du Hezkuntzarako baliabideak murriztagoak zirela, defentsarakoak baino: Gaur egun egoera aldatu al da, ala berdintsu jarraitzen du arazoak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XIX. mend.

Testu honetan, P. Gerbod-ek irakaskuntzan suertaturiko aurrerapenak azaltzen ditu. Horretarako, Europako herri askotan emaniko lege-erraztasunak gogoratzen dizkigu. Zentzu honetan eskolaren obligaziozkotasun eta doakotasunarekiko legeak azpimarragarriak dira. Pentsa daitekeenez, legezko erabaki guztiok ez ziren Europan, eskualde guztietan, aldeberean hartu.

"XIX-XX. mendeetan, aurrera egin zuen irakaskuntzaren demokratizazioak, baina beti ere, Estatu eta irakas-molde esberdinetan, ez garrantzisko desfaserik gabe. Honela, lehen irakaskuntza (1789a baino askoz lehenago hasitakoa) bizkortu egin zen XIX. mendean.

Ekinkizun pribatu eta konfesionalekin batera, erabakiorki askartu zen Estatu irakastunaren zeregina: 1833an Guizot Legea eta 1881-1886etan Jules Ferry-ren Lege errepublikarrak Frantzian, 'board-schools' deituak Ingalaterran, 'zemstvos' direlakoak Errusian, 1863tik aurrera.

Eskola-obligaziozkotasunaren luzamenduak, eskola-doakotasunaren aldeko ahaleginek, eskolen ugalpenak, maisuen prestakuntza laguntzeko neurriak lagundu egin zuten harrera-egitura efikaz koherenteagoen eraikuntza". (P. GERBOD, 1982)

Paul Gerbod, historilari frantsesa da, eta Frantzian azken hamarkadetan agertu den erlijioen historiografiaren barnean lekutu behar da autore honen lana. Beronen argitalpenetatik hönako interesgarriena "L'Europe culturelle et religieuse de 1815 à nos jours" (1977) izan liteke (Gaztelaniaz, Barcelona: Labor). Paul Gerbod, Ipar Pariseko Unibertsitateko irakaslea da.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ikus eskolaz ari diren pasarteak:
128-133, 149-152, 222-224, 225-228. orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) Argi, agirian azaltzen diren ondoko izen eta kontzeptu hauek: Guizot, Ferry, Zemstvos-ak eta Board-Schools direlakoak.
- b) Zemstvos direlako honietan arreta gehiago jarri, komenta beraien eskola-luntzioak.
- c) Azter egungo legeek eskola-obligaziozkotasunaz diotena.
- d) Azaldu, organigrama batean, hezkuntzaren egungo antolamendua (mailak, ikasturteak, etab.).
- e) Adieraz zure herri edo hiriko planoan lehen irakaskuntzako zentruak.
- f) Azter zure herrian eskolagabetuen arazoa nola dagoen: bila datuak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esan nahi ote du "Irakaskuntzaren demokratizazioak"?
- b) Zein mendetan hasten dira Estatuak lehen irakaskuntzaren alde lanegien? Noren laguntzag?
- c) Nola lortu zuen Europako herri askok lehen irakaskuntza sendo bat erakitzea?
- d) Lehen irakaskuntzaren edukinak aldatu egin dira: Zertan ote?
- e) Joan den mendetik huna, Estatuaren zeregina areagotu egin da irakaskuntzan, Elizarena alborago utzi. Zergatik gertatu ote da aldakuntza huu?
- f) Gaur eguneko eskola-beharrak aseta daudela uste al duzu? Zergatik eta nola?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Kimikan XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera gertaturiko aurrerapena izan da, siderurgiarekin batera, Industri Iraultzaren bigarren aldia deitu izan denaren bultzagarririk aipagarriena. Alemanian batez ere, igar daitezke kimika berriak eskainitako mugagabeko ahalbideak. Han enpresa kimiko itzelek (BASF, Bayern, Hoescht, etab.) ia produkzio sail guztiak eraldatu zituzten, eta izaditiko gai naturalak laborategiko gai sintetikoek trukatu.

"Zientzia hutsaren konkistek ikuspide susmaezinak eskaintzen zitkioten aurreko XVIII. mendean jaiotako industria gazteari. 'Industria kimiko mineral handia' deitu ohi duguna izan zen garapen teorikoetatik lehenengo probetxurik atera zuena. Askotan esan den bezala, azido sulfurikoaren produkzioa eta kontsumoa bihurtu ziren herri baten zibilizazio-mailaren indiserik leialena. (...).

Bates ere, sustantzia koloratzaileen kimikak munduko ekonomian esparru osoak eraldatu zituen. 1897an, adibide bakar bat aipatzeko, Ingalaterrak 11.000 tona anil natural esportatzen zituen Indiatik ekarrita, eta Alemaniak, 600 tona anil sintetiko. 1911n, ostera, Ingalaterrak 860 tona bakarrik, Alemaniak bere fabriketatik mundura 22.000 tona koloratzaile banatsen zuen bitartean".

(J. JACQUES, 1873)

Jean Jacques, zientziaren historilari frantsesa da. Bereziokiago, Kimikaren historia landu izan du. Frantziako Kolegio deituriko laborategiaren zuzendariordea izan da, eta taldean burututako "La science contemporaine: Le XIX^e siècle" (Paris, 1961) liburuan parte hartu du, kimikari buruzkoak emanez. Hortik jaso dugu pasarte hau.

"Mendez Mendek, Aro Garaikidea"k, XIX. mendeko zientzien eta tekniken aurrerapenak ezagutzeko aukera ematen dizu: ik. 129-152. orr., baina hemengoarenerako hurbilago duzuna 136-138.etan dago. XX. mendekoaz ik. 638-653. orr.

EGITEKOAK

- Azaldu, eskema moduan, kimikan kontutako aurrerapenak (19. mendearen bigarren erdialdelik, 20. mendearen lehenengo urteetara bitartekoak).
- Kimikaren historia ospe handiko izenekin jantzia dugu. Adibide gisa azter kimikari handi hauen lana: F. Wöhler, A. Von Baeyer, E. Solvay.
- Koloratzaile artifizialek naturalak baztertu zituzten. Azaldu nolakoak ziren koloratzaile artifizial haiek, eta naturalak nola ekoizten ziren.
- Kimikari esker ongarri hobeak agertu ziren (superfosfatoak, nitratoak). Saita zaitez biltzen datu gehiago ongarri horietaz. Ongarritan, zein aldakuntza ezagutu dira zure herrian? Galde baseritarrei.

ERANTZUTZEKOAK

- Agirian irakurri duzunaren arabera, zein sektore produktibo eragiten du gehien kimikak?
- Zertaz ari da autoreak, zientzia hutsaren konkistek industriari ikuspide sumaezinak eskaini zizkiotela esaten duenean?
- Bai ote dakizu zergatik azido sulfurikoa bihurtu zen, ure batean, zibilizazio-mailaren indizerik esanahitsuena?
- Agirian irakurri duzunaren arabera, zein herrian ezagutu zuen kimikak aurrerapenik bizkorrena?
- Kimikaren aurrerapenak, bai ote du laborantzaren azkartzearekin inolako zerikusirik?
- Egunero industriari begira, zein sail produktibotan igar daiteke nabiario kimikaren presentzia?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

1865ean, G. Mendel-ek herentziaren funtsezko legeak argitara eman zituenean, inork gutxi ulertu zion emaniko urrats handia, agian Darwin-en teoriaren inguruan sorturiko eztabaidak gorenean orduantxe zeudelako. Hala ere, urte batzuen buruan, Mendel-ek monastegi hartako lorategian egindakoaz jabetu zen zientzia; azken batean, herentziaren inguruko hain misteriotsuak ziren arazoak azalpen zientifikoa eman zitzaizkion kontzientzia hartu zen.

"XIX. mendean zehar, oihartzunik izan ez zuen hainbat ikerlan aipagarri XX.aren hasieran ulertu zitzaion bere esanahi osoa, eta batsutan zientzia berri oso baten oinarri bilakatu zen. Hau da Genetikaren edo herentzi zientziaren kasua. (...).

1858tik 1865erarte, bere monastegiko lorategian, Brno hirian, Mendel bere ikerlanetan ari izan zen, Naudin-ek ere egindakoetan, baina askoz ere harago iritsi zen. Estabaidarik gabe Mendel-i zor zaio herentziaren funtsezko legeak aurkitu izana. Ispiritu matematiko argia eta kasualitatez ikas-material bereziki aproposaz baliatzen zela, lege haiei azalpen zehatz eta behin-betirakoa eman zien, nahiz eta datuon analisi razionala mende bat geroago bakarrik egin ahal izan". (M. CAULLERY, J.F. LEROY, 1873)

Maurice Caullery eta Jean F. Leroy, biak dira zientzi gizon eta historilari frantsesak. Lehena, Institutu deituaren kide izan zen, eta eboluzio, Zoologia eta bizi-zientzien historia egin zuen. Leroy, ostera, Natur Historiako Museo Nazionalaren zuzendariordea izan da Parisen. Bi autoreok elkarrekin egin dute zenbait argitalpen, eta horietako batetik jaso dugu testu hau.

"Mendez Mendek. Aro Garaikidea"n 138-143. orrialdeetan ikus dezakezu XIX. mendean izaki biziei buruz zientziak emandako pauso batzuen berri, XX.az badaukazu zerbait 645-647. orrialdeetan ere.

EGJTEKOAK

- a) Kontsulta hiztegi entziklopediko batean G. Mendel-en biografia: eman haren bizitzaren berri zure ikaskideei.
- b) Natur Zientzietako liburua kontsultatu ondoren, azaldu herentzia genetikaren Mendel-en legeak.
- c) Azaldu, ahalik eta ondoen, "Gene" eta "Genetika" hitzen esanahia.
- d) Mendel-en teoriak zientzietako beste arlo askotara aplikatu daitezke: Zein arlotara?
- e) Zure herrian zein alorretan erabiltzen ote dira, apropos, lege genetikoko hauek? Galde medikuari, albaiteruari, baserritarrei, etab.

ERANTZUTEKOAK

- a) Labur, zeure hitzekin, lehenengo parrafoak dioena.
- b) Zer bilakatu zen zientzia berri baten oinarri? Zergatik?
- c) Zein ideia azpimarratuko zenituzke bigarren parrafoan esandakoetatik?
- d) Zer esan nahi du esaldi honek: "lege horien azalpen zehatz eta behinbelirakoa eman zien"...?
- e) Mendel-en datuen analisi razionala mende bat gerago bakarrik egin ahal izan zen: Zer esan nahi du horrek?
- f) Bai ote dakizu nola eraberritu diren Mendel-en teoriak?
- g) Zer esan nahi du, gauzak izpiritu matematiko batez egiteak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Frantziako Errepublikaren barnean, radikalismo deitu alderdi politikoak, eskolagintza laikoaren programa zuen bere punturik nagusienetakoa, eta Jules Ferry-ren gidaritzapean eginkaritu nahi izan zuen asmoa. Baina ez borrokarik gabe: ideia aurre-razale hark --zeturten bezala etorrita-- bere etsai naturalak eskola konfesionala nahi zutenen artean zituen. Horrez gain, eskola zen, radikalaren asmotan, Errepublika Frantsesa benetako "nazio" bihurtuko zuen tresna.

"Errepublikazaleak, Falloux Legearen (1850) aurka zeuden; beste arrazoien artean, 'nazioaren' batasuna urratzen zuelako egon ere. 1882ko Ferryren legeak, usten du oraindik bi Frantziak elkar-lanean saiatzeko lain irtenbide, baina 1886ko Bert-Goblet Legeak ez du hoinbestetarako esperantza biderik. Freppel apespikuak bortizki esan zien errepublikatiarrei: 'Zeuok sakonagotu duzue banatzen gaituen leizea... Ez gara gu, zeuok zarete geroaren ausia mehatxu-tresna bihurtu duzuenak: alde batetik errepublikazaleak, bestetik kristauak...'

Eta, hori horrela baldin bazen, ez zen posible 'nazioaren' batasunik. Hemen ere arestian aipatua gertatu zen: ikasgai filosofiko konkretu bat (eskolan gasteari ikaskisun bezala eman beharrekoa noski) errepublikazaleen eskutan dogma politiko bilakatu zela, eta heskuntza, jomuga pragmatiko izatetik 'nazio'-ideia jakin baten tresna".

(J. INTXAUSTI, 1972)

Joseba Intxausti, historilaria da eta bilduma honen zuzendaria. Garai hartan, Frantzian eta Iparraldean eskolagintza laikoak izan zuen lekua ezagutzeko beronen "Iraultzaren hildotik" liburua ikus liteke (Jakin, 1972: 107-140. orr.).

XIX. mendeko kulturari buruz kapitulu osoa daukazu, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n: 127-228. orr. Baina garaiko eskolagintzaz baduzu albiste bilduagorik ere: ik. 128-133, 225-228. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila, ahal baduzu, lege horien edukinak, eta aldera hirurak elkarrekin.
- b) Egin ardatz kronologiko bat 1848-1914. urteetako Frantziako gertakari nagusiekin.
- c) Eskola laikoa eta ez-laikoa: beraien ezaugarriak eta ezberdintasunak adieraz sinopsi batean.
- d) Espainian eta Euskal Herrian egon al dira halako legeak. Zein da gaurko egoera? Irakur elkarrekin Hezkuntz Legea.
- e) Zein zentzu berezitan izan dute aparteko garrantzia Euskal Herriarentzat, ezarritako hezkuntz legeek. Eztabaida arazoa.

ERANTZUTEKOAK

- a) "Geroaren auzia mehatxu-tresna bihurtu duzue": azaldu, ahalik argien, esaldi honen esanahia.
- b) Hezkuntz eredu batek, halako eragina al du gizabanako butengan? Eman arrazoiak.
- c) Laiko/ez laikoen, publiko/pribatuen arteko ezberdintasun-kidetasunak argitan jarri.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Idea politiko berrien garaia zen XIX. mendearen hasiera, Alemanian ere. Goethe handiaren ondokoek, ez zuten, beste gabe, maisuaren bide bera jarraitu. Goethe-ren jarraitzaile izandako Heinek azkenik arbuiatu egin zuen maisua, batez ere konpromezu politikoetatik urrun geratu zelako. Bonn-era ikastera joatean (1819), Alemania berri bat jaioko zela espero zuen A.W. Schlegel izan zuen bere aholku-emailea.

"'Aro artistaren bukaera, goethe-zaletasunaren amaia ere bada' (1830). 'Iraultza literaturan sartzera doa (...) eta neu naiz agian iraultza horren ordezkari bakarra' (1830).

'Frantsesak dira erlijio berriko herri hautatua; hauen hizkuntzan idatzi dira lehenengo ebanjelioak eta dogmak. Parise da Jerusalem berria, eta Rhin ibaia, libertatearen herria eta filistearren herria banatsen dituen' (1826). 'Inoiz ez die frantsesei aleman batek nik bezainbateko sinpatiarik izan, ez literaturan, ezta gizarte gorenean ere'.

'Nere bizitzako egitekorik handiena, Alemaniaren eta Frantziaren arteko adiskidantza bihizkor baten alde lanegitea zen. Uste dudanez, badut horretan merezimendurik, nere aberkideen artean hainbat frantsesen aurrean ere'". (H. HEINE: Testamentuan, 1851)

Heinrich Heine (Düsseldorf, 1797- Paris, 1856). Bonn, Gotinga eta Berlinen egin zituen bere ikasketak. Bonn-en, Schlegel idazlearekin erromantizismoari atxeki zitzaion; han ezagutu zuen Goethe. Heinek, Liberalismoaren idealak besarkatu zituen, eta 1830eko iraultzaren ondoren Parisen jarri zen bizitzen: handik, Alemania-Frantzien arteko harremanak estutzen saiatu zen. Bere azken urteetan sozialismoarekin ere izan zuen harremanik, Karl Marx-en bidez.

Heineren kezka beren testuingurua zuten: hori ezagutzeko, begira "Mendez Mendeko Garaikidea" n. 38 (mapa: Napoleon Alemanian), 39-46 (garaiko askatasun borroka), 158-159 (erromantizismo alemana), 160-161. orr. (err. frantsesa).

EGITEKOAK

- a) Lauki labur batean, nola laburtuko zenituzke Erregimen Zaharraren eta Iraultza Frantsesaren ideia eta xede nagusiak?
- b) Sinopsi bat egin, eta Frantzia eta Alemaniaren arteko harreman-une garantzitsuenak bildu (19. mend.).
- c) Heine-ren obra literarioaren kronologia bat eratu.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zergatik aurkezten du Heine-k Frantzia eredutzat?
- b) "Parise da Jesuralen berria". Zer esan nahi ote du horrek?
- c) Lortu al zuen Heine-k bere ametsa? Hau da, Frantziaren eta Alemaniaren arteko adiskidetasun iraunkor bat?
- d) "Iraultza literaturan sartzerako da". Esaldi honen gomentario txiki bat egin, eta adibideak proposa.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XIX. mend.

XIX. mendea musikaren mendetzat hartu izan da. Konposizio forma ugariak, orkestra eta instrumentu-konplexutasunak barietate handia eman zioten XIX.eko musikari. Baina, hortaz gain, mendeko ideologiak eta orduko soziologiak legami bizia izan ziren garaiko musikan. Bestalde, nortasun pertsonal handiko artistak ditugu hamarkada haietan: Verdi, Puccini, Strauss familiakoak, Chopin, Txaikowski, eta abar.

"Europako nazionalismo musikala bi zutaberen gainean eraikitzen da: musika herritarra eta hiskuntza, etnia europarren bi adierazpen bezala. Musika eta mintsaira, Gizadiaren bi bizi-adierazpen dira; baina, ez dago zalantzarik, denbora-espazioetan zehar kontzeptu orokor horiek musika eta hiskuntza nazionaletan mamitzen dira. Hauen gain jasotzen du Erromantizismoak, Rousseau-ren hitzetan esateko, bere enuntziatu abertzalea: 'Musika oro nazionala da, bere oinarriko nortasuna hiskuntza propiotik dator; hiskuntza horren prosodia da karektore hori ematen diona'. Erromantikoko gustiek, aspertzeke, errepikatu zituzten honelako esaldiak. Baina mundu hau paradoxaz beteta dago: bi fenomeno kontrajarri garatuko dira Europan XIX. mendean. Alde batetik, hiskuntza eta musika nazionalak geroz eta gehiago landuko dira, eta bestetik, Europa alderik alde hartu zuen italianismo musikala nagusitu zen".

(J.A. ARANA MARTIJA, 1976)

Jose Antonio Arana Martija, musikagile eta musikologoa da. Jaiotzez, gernikarra, eta, Euskaltzaindiko liburuzaina. Euskal kulturako beste alorrei eskaini dizkien lanen ondoan, batez ere euskal musikaren historia eta teknikak aztertu ditu. Aranaren lanak behar-beharrezkoak gertatzen dira gaur egun barruti hori ezagutzeko.

"Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n badauzkazu XIX. mendeko musika-lanei buruzko ohar labur batzuk: 168-172, eta XX.az ere bai: 591-593. Bestalde "Artearen Historia/3"an argibide zabalagoak dituzu: 58-92. orr., eta XX.az 240-292. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egin mapa bat, 19. mendeko musikagile handien jaioterri eta jaioturretak emanez.
- b) Egin ardatz kronologiko bat, gertakari politiko, abertzale eta musika nazionalistaren obrak elkarrekin emanez.
- c) Entzun, musika nazionalistak 19. ean sortutako obra nagusien bat: Bartok (Hungaria), Kaxaturian (Armenia), Sibelius (Finlandia), eta abarren zerbaitekin.
- d) Egin 19. mendeko euskal musikaren eskema bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nolako garrantzia izan du operak 19. mendean?
- b) Opera komikoa, bufoa edo dantzarako musika, zergatik dira jendearen gustokoak?
- c) Zein motatako historiak aukeratzen dira "libreto"etarako?
- d) 19. mendeko zein euskal kanta herritar edo bertso kantatu ezagutzen dituzu?
- e) Exotismoaren eta nazionalismoaren arteko erlazioak, nola definituko zenituzke? "Nibelungoen eraztuna", "Walkyria", "Carmen", "Mme Butterfly", "Sherezade", "Nabuco", "Igor Printzea", eta abar luze bat.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1876-1914

XIX. mendean goraldi ekonomikoak, hazkunde demografikoak, industri iraultzaren sendotzeak eta burgesiaren aginte politikoa indartzeak aldaketa nabaria ekarri zioten Euskal Herriko gizarteari. Baldintza guzti hauek elkartuak datoz, bata besteekin lotuta. Aldakuntza, orotara zabaldu zen, gizarteko alde eta bizipen guztietara. Espazioa bera ere eta hiritarren bizilekuak molde berri batean eratu ziren, hirietan zabaldua berriak hedatuz. Euskal hiriburuetan ikusten da hori, garbi.

"XIX. mendearen azken hamarkadetan, Euskal Herriko hiriburuetan proiektazio hiritar eta hirigintza-prozesu garrantzitsuak gertatu ziren. Hiri-sarea hiri erdiarotarretik at irten zen, Zabalduren ereduak jarraikiz (...).

Iruñean, 1888aren ondoren, hiri erdiarotarretik kanpo, Sarasate Pasealekua eta Gastelu-Plaza zabalgu bezala hartuta, hiri burgesaren lehenengo etxadiak jasotzen hasi ziren Julian Arteagaren Zabaldura-proiektu baten arabera. (...).

Donostiak, 1854ean hiriburutza irabazi ondoren, 1863an hegoaldeko murrak bota eta lehiaketa baten bidez Antonio Kortazar-ek proposaturiko Zabaldura-Proiektua onartu zuen. 1850ean oraindik 15.000 laguneko hiria zen Donostiak ahalegin itzela egin zuen hirigintzan XIX. mendearen azken herenean, urbanizazio eta azpiegiturako obra handiak eginez. Kultur maila hiritar eta arkitektonikoa topatzen dugu Zabaldura-Proiektua betetzean. (...).

Bilbok, 1863an Amado Lázaro-ren Zabaldura-Proiektua arbuia ondoren, Atrukarro arkitektoaren eta Alzola eta Hoffmeyer-en Proiektua onartu zuen 1873an. Hiri berriak Abandoko ibaiondoak hartu zituen, Parte Zaharrarekin Arenaleko zubiaren bidez lotuz eta bizkarrezur nagusitzat Gran Vía eratus".

(X. UNZURRUNTZAGA, 1985)

Xabier Untzurruntzaga, arkitektoa da, eta urbanista. Donostian izan du ikastegia, eta bere alorreko erantzukizun politikoak ere izan ditu Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Diputazioan. Gerraondoko euskal arkitekturaren berrikuntzan izan du parterik ere.

Euskal Herriko arkitekturaz baduzu berririk, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n zerbait: 605-606; baina xehetasun gehiago dituzu "Artearen Historia/3"an: 160-170. orr. Urbanismoaz ik. autore honen lana: IN-TXAUSTI, J. (1985): "Euskal Herria" II, 55-66, orr. (Jakin. Donostia).

EGJTEKOAK

- a) Hirigintzan eta arkitekturaz 19.eko joerak eman, lauki batean: sozialista utopikoak, material berriak, eta industri iraultzakoak, historizismoa, etab. Adibideak aipa.
- b) Euskal Herrian 19. mendean ezagutu zen egoera sozio-ekonomikoaren analisia egin: ekonomiak nola eragin ote zuen hirigintza. Eztabaida arazoa lagunartean.
- c) Egizu edo bila Inurrieko oinplanoa, Endi Arotik aurrera gertatu den bila-kaera argituz.
- d) Har Bilbo nahiz Donostiako planoak, eta beharrezko argibideak bildu ondoren, margotu epealdi ezberdinetako zabalduak.
- e) Hiri-azua bakoitzaren ezaugarri sozio-ekonomikoak eman lauki batean.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer gertatzen da Gasteiz hiriburuarekin? Zergatik ez da testu honetan azaltzen?
- b) "Arkilloak" oso ezagunak dira Gasteizen. Noiz egin ziren horiek eta Andra Mari Zuriaren enparantza?
- c) Zein ezberdintasun dago Donostiako Konstituzio Plazaren eta Gipuzkoa Plazaren artean? Zergatik?
- d) Zer nolako zerbitzuak zeuden momentu hartako etxeetan?
- e) Zer da "eklektizismoa" arkitekturaz? Zeri deritzo "historizismoa"?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Arnold Hauser, artearen Historilari ospetsuak Inpresionismoaren garrantziaz hitz egiten digu pasarte honetan. Pintura inpresionistaren aintzindaritasuna azpimarratzen du: artearen beste disziplinei aurrea hartuz, eta momentuko sentimenari hobeki erantzunez, azkenik guztien gidari bilakatu zen pintura.

"XIX. mendearen bigarren erdialdian, artegintza osoa arautzen duen arte bihurtzen da pintura. Honen inpresionismoa estilo beregaina bilakatzen da, literaturan oraindik naturalismoarekin borrokan ari diren bitartean. XVII-XVIII. mendeetako literatur nagusitasunaren ondoren, eta Erromantisismoan musikak izan zuen betekizun behinenaren ostean, XIX.aren erdialdean pinturaren aldeko aldakuntza bat gertatzen da. Asselineau arte-kritikariak 1840aren inguruan jartzen du pinturak literaturari lehenengotasuna kendu zion une hori, eta belaunaldi bat geroago hola zioten, gogoberos: 'Bai abantailatsua pintorearen ofizioa, idazlearenarekin konparatuz...!' Garaiko arterik aurrerasaleena bezala ezesik, kalitatez ere menperatzen zituen pinturak literatura garaikidearen obrak, bates ere Frantzia, esan ere esan bait zitekeen hemen, garaiko poeta handiak pintore inpresionistak zirela". (A. HAUSER, 1951)

Arnold Hauser, Hungarian jaio zen (1892-1978), eta Budapest, Parise eta Berlin-en ikasi zuen, eta Viena-n eta Londres-en izan da irakasle. 1951n eman zuen argitara bere "The Social History of Art" (Londres), gero beste hainbat hizkuntzataraz itzulia, eta gaztelaniaz Guadarrama argitaletxeak argitara emana. Benetan liburu estimagarria.

Inpresionismoaz hainbat datu jaso dezakezu "Mendez Mende. Aro Garai-
kidea"n: ik. 182-187. Zerbait ugariagorik nahi izango bazenu, begira
"Artearen Historia/3"an, 97-102. orr.

EGJTEKOAK

- a) Aukeratu koadro inpresionista bat, eta egin iruzkina beronri.
- b) Noizkoak dira pintore inpresionista ezagunenak? Egin sinopsi bat au-
tore, obra eta datekin.
- c) Ahal baduzu, hiribururen bateko Museora joan, eta azter koadro inpre-
sionistaren bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk dira inpresionismoaren kezka berriak? Teknika-aldeetik zer? Eta
darabiltzan gaietan?
- b) Inpresionismoa Frantziazi hasi zen: zein testuinguru sozio-politikotan
gertatu zen hori?
- c) Nola uler daiteke testuaren izenburu hori: "Inpresionismoa: garaiko
artea"?
- d) Konparatu inpresionismoa, literaturun bizirik zegoen naturalismoarekin.
Estetika diferentea, kezka eta helburu desberdinak...
- e) Zeintzuk izango lirateke Espainiako inpresionista sonatuenak? Ezagutzen
al duzu pintore inpresionista euskaldunak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko
lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35.
or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta,
denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala,
ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1860

R. Aubert-ek, Elizaren une larri eta giltzarri bat aurkezten digu: Italiako batasun-prozesuan Eliz Estatuak sortzen zituzten arazo eta esperantzak agerian zeuden XIX. mendeko Italia hartan. Nahitaez, elizgizonek ere, gogoan hartu behar zituzten garaiko eske eta ideal politikoak. Tradizioaren eta modernotasunaren arteko gatazka ere bazen Eliz Estatuak egotea bera.

"Antonelli idaskariak ez zuen garbi ikusten (1859-60), azken hamar urteetan Europako ideia eta baldintza politikoak noraino aldatu ziren. (...). Pio IX.aren jarrera nahikoa ezberdina zen. Arazo nazional italiarrarekiko sinpatia handia zuen, idaskariaren alderantziz. (...). Pio IX.a ez zegoen pertsonalki subiranotasun tenporalari gehiegi atsekita; baina bere independentzia izpiritualaren berme ezinutzia bezala ikusten zuen hura. Europa gustiko prentsa ultramontanoaren aldarriek, mundu osoko katolikoan aurrean botere horretas erantzun beharra zeukalako ustean berresten zuten Aita Santua (...). Ingurukoen ametsek eta 'Aita Santu Erregea' aldarrikatzera zetozen erromesen manifestaldi beroek --geroz eta ugariagoek-- 'mirariren' baten itxaropena pisten zioten. Horregatik, Aulki Santuaren askatasun izpiritualaren eskea eta printzipio liberalen errotiko kritika bateginez joan zen Aita Santu zaharra".
(R. AUBERT, 1977)

Roger Aubert, historilari belgiarra da (1914). Bere lan historiografikoa eta irakas-lana Leuven-eko Unibertsitatean burutu ditu, 1952tik aurrera. Hainbat Unibertsitatetako "honoris causa" doktorea da (Tubinga, Nimega, Milano, etab.). "Revue d'Histoire Ecclesiastique" aldizkariaren zuzendaria izan da, eta baita "Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclesiastique" obra handiarena ere. XIX. mendearen historiaz berrikuntza handiak ekarri dituzte historiografiara Aubert-en lanek.

Eliz Estatuaren arazoak Italiaren batasunarekin zerikusi zuzena zuen XIX. mendean. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n aurkituko dituzu oinarriko datuak: 47-50. orr. Bestalde, garaiko krisi erlijiosoarekin ere batera ikusi behar da gatazka politiko hau: 191-193. orr., eta testuinguru zabal batean nahi bada, ik. 199-209. orr.

EGITEKOAK

- a) Giacomo Antonelli eta Pio 9.aren biografiak laburtu, Italiaren batasun-prozesuarekin duten zerikusia azpimarratuz.
- b) Italiako batasun-prozesua ardatz kronologiko batean koka, eta harekin pareka litezkeen Europako gertaera garrantzitsuenak bil (Frantzia eta Alemaniakoak bereziki).
- c) 1870aren inguruan, eta ondoko prentsa integristan, Eliz Estatuaren eta Aita Santuaren askatasunaren alde idatzitakoak ikus litezke hemerotekaren batean. Laburtu ikasgelan ondoko artikuluren bat.
- d) Bila Elizaren Historiaren bat, eta azaldu lagunei historialariak zer diren puntu honetaz.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Pio 9.ak, arazo nazional italiarrarekin sinpatia handia zuela dio testuak: 1850etik aurrera, jarrera berdina izan al zuen? Zergatik?
- b) Zeintzuk ziren "guelfo berriak"? Zer zioen Gioberti-k Italiaren batasunari buruz? Ados al zegoen Pio 9.a?
- c) Noren laguntzaz mantendu zuen Pio 9.ak bere aginte tenporala? Zergatik izan zuen laguntza hori?
- d) Europako ideia eta baldintza politikoak aldatu egin zirela dio testuak: zer esan nahi ote du?
- e) Nola definitu ziren 1929an Aita Santuaren eta Italiako Erreinuaren arteko harremanak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA
EKONOMIA

1841

Eliz desamortizazioak bi une ardatz izan zituen: bata, erlijiosoen etxeak itxi eta beraien ondasunak Estatuak beretu zituenekoa (1836), eta bestea, Elizbarrutien (Katedrale, Parrokia, etab.) ondasunak Estatuak salmentara atera zituenekoa (1841). Pauso kualitatibo berria izan zen, zinez, bigarren ekinaldi hau. Alderdi liberalen artean --moderatu eta progresista deituak-- bigarren erabaki honek ezinpondu nabaria ekarri zuen.

"Apaizeria sekularraren ukantza gustiak, edozein moztatako eskubide edo ekintza direla ere, edozein sorrera edo izenekoak izanik ere, eta edozein zeregin nahiz xedetarako emanak, erosiak edo hartuak izanda ere, ondasun nazionalak dira'. 'Urriaren lehen, alkathea --Udal-sindikoa eta idaskariarekin batera doala-- Estatuaren izenean aipatutako ondasunen jabe egingo da herri gustietan, parroki elizako artxibategian nahiz beste edozein lekutan daukekeen liburu, paper eta agiriak formalki hari emanez".

(Desamortizazio-Legea, 1841)

Baldomero F. Espartero (1793-1870), militar espainiarra zen. Ameriketako gerran eta Lehen Karlistadan parte hartu zuen, eta Iparraldeko Armadaren buruzagi bezala, 1839an, Bergarako Ituna sinatu zuen Maroto-rekin. Handik aurrera (bere gobernualdi laburretan baino (1840-43, 1854-56), erbestealdi politikoetan areago), Progresismoaren buruzagi amestua izan zen. Ez zuen erakutsi bere balio politiko praktikoa, baina liberal idealistenentzat Espartero sinbolo garbi jatorra bilakatu zen. 1868ko Iraultzaren ondoren Espainiako Erregetarako ere izan zen proposatua.

Hemengo hau ulertzeko ongi etorriko zaizu "Mendez Mende. Aro Garai-kidea"n Iraultzaren politika sozio-erlijiosoa ezagutzea: ik. 29-35. orr. Geroago ere, pentsa daitekeenez, Estatuaren eta Elizaren arteko arazoak zauri gorritan segitu zuten: ik. 207-208.

EGJTEKOAK

- a) Koka, ardatz kronologiko batean, Espainia-ko bilakaera politikoaren datuak.
- b) Bila, entziklopedia batean, desamortizazioaren kontzeptua, eta laburtu Espainiakoaren historia.
- c) Lokalizatu zure herrian, edo inguruan, jabetza desamortizatuen adibideak, bai Elizarenak (lurrak, etxeak), bai herri-lurrak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer ziren lur "amortizatuak"? Zergatik deitzen zituzten horrela?
- b) Liberalismoak, nola zuzenestutzen zuen Desamortizazioa? Zein oinarri eta jarrera ideologiko agertzen zaigu desamortizazioen euskarri bezala?
- c) Noren probetxutan aplikatu ote ziren Desamortizazio-legeak?
- d) Nolako abantailak eskura zitzakeen gobernuak? Zein arazo konpondu nahi izan zuen Desamortizazioak?
- e) Desamortizazioak pizlutako gatazkak, zein itun-intenbide izan zuen liberal moderatuekin (1851)?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Elizaren eta Estatu Zibilaren arteko harremanak korapilotsuak izan ziren XIX. mendean zehar, izan ere Estatu burges-liberalaren eraketak Elizaren aspaldiko eskubide eta pribilegioei aurrez aurre eraso zien. Bakoitzaren eremuaren definizioa ez zen tentsiorik gabe egin. Azkenean, mendearen bukaeran, Leon XIII.aren, Elizaren jarrera aldatu egin zen; baina Estatu eta pentsamendu liberalen aurka hamarkada luzetan borrokatutako hainbat elizgizon eta fededunek ez zuen samur eta bapatean onartu ahal izan hori. Hauetakoa zen Hiriart-Urruty ere.

"Adiskide batek iskribatsen dauku harritu dela, iragan astean, 'Eskualduna' ren lehenbiziko artikulua irakurtzearekin.

Ez dugu bada, gure ustez, deusere erran egiarik eta zuzenik baik. Erran dugu Aita Sainduak kontseilatzen gituela, bakearen gatik eta erlisionearen gatik, Errepublika on bat onets dezagun. Egia erran dugu.

Erran dugu onartzen dugula guk kontseilu hori. Erran dugu orai baino lehen ere, gure baitarik eta aski erakutsi dugu, nor diren gure etsaiak; ez gituela gu Errepublikaren izenak izitsen.

Erran dugu Errepublika ona izan dezakegula, baldin boskatze guzietan gizon zuzenak, zuhurrak, givistinoak izendatzen baditugu. (...)

Framazonen eskuetan gira, Framazon horiek bere ahal guziak egiten dituzte Frantsian erlisioneari erro guziak mostu nahiz".

(J. HIRIART-URRUTY, 1892)

Jean Hiriart-Urruty, apeza izan zen (1859-1915), eta garaiko eliztarraren arteko pentsamendu kontserbadorean kokatzen da honen lana. Baionako "Eskualduna" astekariko (1887) idazlea (1891) eta zuzendaria izan zen (1904-1915), eta alde horretatik Iparraldeko eliz gidari politiko irakurriena. Luma bizia zuen, bere izaera bezalakoxea, hain zuzen. "Le Réveil Basque" aldizkari "gorri" errepublikazalearen kontra jaio zen "Eskualduna" zuria. Leon XIII.ak, katoliko frantsesak erregimena onartzera deitu zituenean, handia izan zen askoren harridura.

"Mendez Mendeko Garaikidea"n ikus ditzakezu garaiko arazoak: 199-203, 207-209, 214-215, eta gai hori berari dagozkionak 218. or.

EGITEKOAK

- a) Egin Frantziaren kronologia bat, 1870. urtetik Lehen Mundu-Gerraraino (1914).
- b) Errepublikaren honen zein ekintza eta jokoera har dezake Elizak bere aurkako erasotzat? Egizu grafiko bat, esatekoak azalduz.
- c) Egizu Leon XIII.aren biografiaren laburpen bat.
- d) Elizak botere zibilarrekin zituen harremanak aldatu egin ziren 19. mendean: egin kronologia labur bat.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zein leku berezi du Hiriart-Urruty-k euskal literaturan?
- b) Testu hauek ispiilatzen duten arazoa (eliztarrak eta mundu modernoa elkarrekin ezinkonpondua) hegoaldean ere egon al zen?
- c) "Liberalismoa, bekatu da" idatzi zen 19. mendean: Zer esan nahi zen?
- d) Mendeko hartako eztabaidak erabat gainditu al dira 20. ean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Euskara hizkuntza enigmatikoa da. Ez daki inork nondik datorren eta ez zaio ahaide ziurrik aurkitzen beste hizkuntzen artean. Kontua da aspaldidantik erabili izan dela gure lurralde honetan eta egoera larrian dagoela. Era askotako defentsa egin da euskararen alde, eta Sabin Aranak hizkuntza, balio naziogilea duelako defendatzen du.

"Zorionekoa bere historia esagutzen duen herria! Hainbat ikaskizun ugari eta baliagarritan galdu gabe (...), salantzarik gabe garrantzi ziurra duen bat gogoratuko dugu: euskararen galerak immoralitatea, ezjakina eta ideien desbiderazioa dakartza (...). Beren hizkuntza galdu duten eskualdeetakoen baitan (...), euskal aiurria galdu egin da gehienengan (...): Hortaz, euskal nazioaren osagarri esentsiala da euskara". (S. ARANA GOIRI, 1886)

Sabin Arana Goiri (1865-1903), familia karlista batean sortu zen. Karlismoa bide itxi bat bezala ikusi zuen, eta eusko abertzaletasunari berak eman zion batez ere formulazio politikoa, beste herrietako ereduak ere gogoan zituela (Kataluniakoa batipat). 1890.eko hamarkadan lan handiak egin zituen bere ideia politikoa euskotarren artean zabaltzen. Alderdi Jeltzalearen sortzailea da Arana Goiri.

Gai honi buruz, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 215-222. orr.
Agiritegi honetan bertan badituzu hizkuntzen arazoaz diharduten lan-
gaiak: ik. agiritegiaren "Gidaliburua"n 36. or.

EGJTEKOAK

- a) Egin Europako hizkuntz familien eskema, eta koka ezazu euskara eskema horretan.
- b) Historian zehar zein hedadura geografiko izan du euskarak.
- c) Adieraz. mapa batean, euskalkien arteko mugak.
- d) Jawo. eskema batean, Sabin Arana Goiriren ideia nagusienak. Ados al zaude guztiekin?

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiztik bizi dira euskaldunak Euskal Herrian?
- b) Zeintzuk dira euskararen sorrerari buruzko teoria ezagunenak?
- c) Zeri zor zaio euskara ez galtzea. hain bakarrrik egonik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1890

Mugimendu errepublikazale bat piztu zen Ipar Euskal Herrian XIX. mendearen bukaeran. Baina, honekin batera antiklerikalismoak ere indar handia hartu zuen. Eta horren aurka jokatu zuen "Eskualduna" aldizkari sortu berriak. Ideien aldetik oso atzerakoitzat har baldin badezakegu ere, mesede franko egin zion euskararen erabilera periodistikoari. "Eskualduna" Baionako astekariak 850 irakurle zituen 1888an; 950, 1889an; 1.200, 1890ean, eta 1.300, 1891n. Une honetan nahiko gorabehera sortu zen apaiz, apezpiku, gobernu eta aldizkariaren artean.

*"Orduan kenka gairxoan gertatu zen **Eskualduna** (...). Gobernuak, haren gain baitzen orduan apezzen pagatzea, 35 diosesako apezi kendu zioten urte-saria, bozetan errepublikanoen kontra agertu omen sirelakoan. (...). 1890-eko martxoan etorri zen apezpiku berria: Mgr. Jauffret, errepublikano famarekin heldu zena, haren familia halakoa izanez. Hastapenean segurik Prefetaren mutil zelako itxurak eman zituen: prefetak galde eginik, Mendekoste besperagoan hamar erretor eskualduni manatu zioten beren parropiaren ustea eta biharamuneko bertze herri batean kausitzea. Ez zen eskandala ttipia izan. Ordainez, gobernuak apez-sari gehienak itzuli zituen".*

(P. LAFITTE, 1972)

Pierre Laffite, 1901ean Luhosoan (Lapurdi) jaioa, guztiz lotua dago Iparraldeko euskaltzale mugimenduari. "Eskualduna" aldizkarian idatzi zuen, eta "Herria" sortu. Bai gerra aurrean eta bai ondoren, euskal nortasunaren sinbolo dugu. Kazetari-lanaz gain, hiztegi eta gramatikak egiten eman ditu lan handiak. 1985ean hila.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n, 214-224. orrialdeetan ikus dezakezu testuingurua. Garaiko borroken albisteak, 199-203, 207-209. orr. Orobat, "Jakin Liburu Sorta"n daukazu (2, 3 eta 4. aleak) Lafitte-k argitara emandakoak.

EGITEKOAK

- a) Zeintzuk dira garaiko errepublikazale frantsesak? Saiikatu.
- b) Antiklerikal frantses famatuen izenak eta haien ohar biografikoak bil.
- c) Zer da politikatik edo gizartetik apaizei salatu ohi zaiena? Egin galderok adinekoei. Zer pentsatzen duzu zuk?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein jarrera izan zen nagusi. Ipar Euskal Herrian, arazo honen aurrean?
- b) Nola bideratu ziren jarrera hauek?
- c) Zergatik dira Euskal Herrian nagusi ideia "atzerakoiak"?
- d) Nola definituko litzateke antiklerikalismoa?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Sarri eratu dira Euskal Herrian Unibertsitate propio baten aldeko mugimenduak. Guzti horietatik, eta gaurko Euskal Unibertsitatea alboan utzirik, bat bakarra gauzatu zen, bere garaian: Oñatiko Unibertsitatea, Rodrigo Merkado Zuazolak eraikia (1540). Ez zuen bizitza gihartsuegirik izan, eta azkenik, XIX. mendean izan zituen erasoen ondorioz, XX. mendean itxi zen. Lehenago, eta ondoren, izan ziren beste saio batzuk ere, baina ez zuten fruiturik eman.

"1. Art.: Bere sede akademikoetarako euskal lau Probintziak Unibertsitate-Barruti bat egingo dute, behinolako Oñatiko Unibertsitatea buru eta erdigunetsat duena, Erret Agindu batek Filosofi Ikasketez edo Bigarren Irakaskuntzaz, eta Teologi, Kanon- eta Jurisprudentzi Fakultate handiz hornitu bait du berau azkeneko Otsailaren 12an.

2. Art.: Gaur dauden bigarren Irakaskuntzako eta Lambide-Irakaskuntzako Etxeak, edo behar den baimenarekin Barrutian sor daitezena Oñatiko Erret Unibertsitate Pontifizioko Klaustroaren eta Erretorearen menpe egongo dira, beroni inkorporatuak egongo bait dira".
(KARLOS VII., 1874)

Karlistek eraiki nahi izan zuten berriro Unibertsitatea; ez zen Euskal Herriak gehien behar zuena izango, baina gerra galdu zutenez, ez zen horixe ere egin. Karlos hau lehen errege-nahiaren biloba da eta hirugarren gerra bultzatu zuen. Garaitua izan zen, eta, porrotaren ondorioz, orduan deuseztatu ziren euskal foruak (1876).

Begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 222-228. orr. XIX. mendeko kulturaz orokorki zerbait jakiteko, ik. 128-133. orr. ere. "Jakín" aldizkarian ikus dezakezu, J.L. Lizundiak Euskal Herriko Unibertsitatearen historiari dioena (1. zenb., 1977, 27-35. orr.)

EGITEKOAK

- a) Ahal baduzu, egin gidari on batekin ikustaldi bat Oñatiko Unibertsitateara.
- b) Egin gaur eguneko Euskal Herriko Unibertsitatearen Fakultate-organigrama bat (ik. INTXAUSTI, J. (zuz.): "Euskal Herria. Errealitate eta Egitasmo", Jakín, 324. or.).
- c) Zein arte-estilotakoa da Oñatiko Unibertsitatea? Eta Leioakoa? Egin iruzkin bat.

ERANTZUTIKOAK

- a) Nola dago antolatua gaurko Euskal Unibertsitatea? Zenbat fakultate du?
- b) Non dago kokatua Euskal Unibertsitatea?
- c) Izan al da berrikitan Unibertsitatearen bide herritarragorik? Zein? Nola du izena?
- d) Nolakoa izan beharko lukeela uste duzu, benetan euskal gizartearen zerbitzutan legokeen Unibertsitateak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1924

Euskal Herriari behin baino gehiagotan ukatu zaio Unibertsitate propio bat izateko eskubidea, eta inolako disimulorik gabe ukatu ere, batere arrazoirik eman gabe. Dena den, badirudi diktadura-garaiak gogorragoak izan direla demokratikoak (gutxienak) baino.

"1924eko Urtarrilaren 19an Gobernuak Eusko Ikaskuntzari egindako gutuna aipagarria da. Zenbait eritzi barregarri eta zitalen ondoren, esezko biribila, ukapen osoa egiten dio Unibertsitatearen eskabideari. Hara azken hitsak: 'En su visita, S.M. el Rey (q.D.g.) se ha servido disponer se desestime la petición.-- De Real Orden comunicada por el Excmo. Sr. Presidente del Directorio Militar, Jefe de Gobierno lo digo a V.S. para su conocimiento y demás efectos.-- Dios guarde a V.S. muchos años.-- Madrid, 19 de Enero de 1924'.

Nik dakidala behintzat, ez da behin ere horrelakorik gertatu Espainiako Estatuaren lur-eremuan. (...). Baina harrigarriena ezetsa, ukazioa, espreski, erret dekretu bidez erabakitzea eta esatea da. Gure Herriak jasan dituen zapalkuntzetariko bat, eta ez ttipiena". (J.L. LIZUNDIA, 1976)

Jose Luis Lizundia Iruñean jaioa bada ere, Bizkai aldetik da euskal munduan ezaguna, Durango ingurutik zehazki. Bi erakundetan izan du partaidetza berezia: Durangaldeko Gerediaga Elkartean, eta Euskaltzaindian, Idazkari-orde bezala. Artikulu ugariren egile, politikan ere bete du zenbait kargu publiko.

XVIII. mendean hasita, gutxienez, Euskal Herriak arazo larria izan du bere gizartea eta eskola-zerbitzua elkarrekin moldatzen. Lehen argibide batzuk ezagutzeko, begira ezazu "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 222-228. orr.

EGITEKOAK

- a) Bila Oñatiko Unibertsitatearen diapositiba batzuk: presta gidoi historiko bat eta ikaskideei proiektio bat eskaini.
- b) Erroso baleton, irakaslearekin batera egin ikustaldi bat Oñatira: Hiri unibertsitari egokia iruditzen al zaizu? Zergatik.
- c) Presta, eta egin, Unibertsitate-Fakultate edo Eskola batera ikustaldi gidatu bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk zeuden agintean Madrilen Unibertsitatea ukatzean (1924)? Zein irizitakoak dira? Egin beraien norabide politikoaren laburpen bat.
- b) Noiz lortua da gaunko Euskal Unibertsitatea?
- c) Euskal Herri osora hedatzen al da Unibertsitate honen barrutia?
- d) Inus zein jokabide izan duen, eta duen, Euskal Unibertsitateak euskarari buruz.
- e) Izan al da euskarari erantzun zuzenagoa ematen sabatu den talde unibertsitaririk?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testuaren gai nagusia ekonomiko-soziala dela esan dezakegu. Sendagileei zuzenduta dago eta medikuntza prebentiboa indartzeko idazten du autoreak, itxura guztiz. Zernahiren gaintetik, nahitaez garbitasuna gorde behar dela iradokitzen da, batez ere industrializazioak halako jendetzak pilatu dituenetan: inguru kutsatuari garbitasunarekin erantzun behar zaio. (Testua bere ortografia zaharrean eskaintzen dugu, hau da, geroko berrikuntzen aurreko idazkeran).

"Antziñaco demboretan bazan esaera, paquea nai duanac egon bear duala guerraraco prest; eta au bera esan guentzaque gasho pegacorrren gañean itz eguiten degunean, bada oei aurrea artu bear zayote eta ez egon escuz-escu jarrita bera azaldu zai, ecer eguiñ gabe gueroagoan cerbait eguiteco asmoan. Erri guciac naiz izan aundiac edo chiquiac, lendabico eduqui bear dutena contuan erabaquitzen degun arguibide onen gañean da, nola eguin bear duten beren **garbitasuna**. Izan bear du onec biciro ongui eguiña eta artaraco diranac ipiñi bear dute gauza onec bear duan aiñbateco beguiramentua erreparo aundia artuaz lendabico errico canale eta ziquinueriac corrimentua daucaten lecuai; iturricco uren izaera moduari, eta jan bear diran gauzai batezere campotic etortzen diranai. Poz aundi batequin esan bear degu lecu onetan gure euscal-errico provinci oetan eguiten dirala beguiramentu oec beste iñongo lecutan ez becela".

(MEDICANTZACO ARGIBIDEAC, 1899)

Eskuetan dugun agiri hau oso interesgarria da. Alde batetik, Europan aurrera eramaten ari ziren esperientziak hemen ere egiten zirela ikusten dugulako (praxi zientifikoa, kezka sozialak, etab.), eta, bestalde, gai moderno horiek euskaraz idatzita ageri zaizkigulako. Liburuaren titulu osoak honela zioen: "Errico gendeentzat osasun legueac eta Medicantzaco arguibideac, euskal-erritarrai esqueñiac, erderaz eta euskeraz. Devaco eta Itziarco medicu Jaun D. Martin Aramburu eta D. Manuel Bago Aguirrec ipiñiak" (Bergaran argitara emana).

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ikus liteke hirietako jende-pilaketaren giroa: 12-13. etako marrazkiak. Zientzien aurrerapena eta osasuna: 139-143, 223-224, 645-647. orr.

EGJTEKOAK

- a) Galdetu medikuren bati medikuntza prebentiboa zer den, eta zentzuzko? Zer egin beharko litzateke hori hobetzeko?
- b) Egin zure herri edo auzonako osasun-plangintza prebentibo bat. Zer da gaizkier dagoena? Zer, berehala egitekoa?
- c) Orain berrogeitamar urtetik hona zer da haurren medikuntza prebentiboan aldatu dena? Galdetu aitona-amonei.
- d) Herrian osasun-kontsultategi sozialik baldin baduzu, eska eskola-osasun-zerbitzura argibide inprimatuak: behar denarekin hitzeginez, begira zer dioten, gero ikargelan azaltzeko.

ERANTZUTEKOAK

- a) Medikuntza prebentiboa zentzuzko ditzan defini, idazlan labur batean.
- b) Jaso dituzun argibideen ondoren, egin testuaren kritika bat.
- c) Nola zegoen medikuntza garai horretan Euzko Herrian? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1923

Agiri administratibo bat da hau: funtzionarioei pasatako zirkular bat. Gaztelaniaren eskola-egoera indartu nahiz egindako gutun hau hezkuntz arduradunei zuzenduta dago, eta hauen bidez baita maisuei ere. Gobernuaren borondate hori aurrera eramateko, ikuskarien bidez ezarriko dira erizpide linguistikoak.

"Gaztelaniaren ezagutza, ahalik erarik hoberenean, Espainiako probintzia gutxietan gutxi gausa interesgarria izateagatik, berorren irakaskuntza izan da beti Lehen Irakaskuntzako Maisuen eginkizunik behinena; batipat hizkuntza ofiziala ezbezalako hizkuntza edo dialektoak gordetsen dituzten herrialde edo lurraldeetan, eta bertako jendeak bere-bere gausatzat zuzen eta legez bait dauzka, ahalegin handiago eta iraukorragoa behar dute egin irakasleek haurrak beren aberkideen artean komunikabide funtsezkoenak eta kultur elementu ahaltsuak, nola bait da aberri hizkuntzaren ezagutza, hornitzeko. Horra zergatik dien gogoratsen "Dirección General"ak Maisuei, ahantz ez ditsatela beren eginbeharrak gai honetan; orobat dagokion Inspeksioari, haiek duten eginbeharra zorrozkien bete erasteko duten premia, hau da, nor bere eskolan gaztelania irakastea eta irakaskuntza hizkuntza berean ematea, honi buruz, batsuk eta bestek 1902-12-19ko Erret Ordenari behar dutelarik egon, bere lehen zenbakian zera arautzen duenari: Lehen Mailako Inspektoreak ardurara bitez atsedetik gabe Maisuek duten eginbeharra, hots, gaztelania erakustea zorrozkien bete dadin, Ministraritza honi nabari litzaketen huts edo eskaskeriez parte emanaz".

Zirkular honetan lege baten aipamena egiten dute (1902ko legea), izan ere Espainiako Monarkiak tradizio juridiko-linguistiko zabala du, gaztelaniaren aldeko bere politikan, Penintsulan bezala Ameriketan. Koloniako Konetzke, Deustuko J. Urrutia, eta Ferrer i Gironés-en eskutik ezagutu izan da hobeki legeria berezi hori.

Agiritegiaren barnean, hizkuntzei buruzko hainbat argibide topa dezakezu (ik. "Gidaliburua"n, 36. or.). Begira, gainera, "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n 225-228. orr., eta 215.eko agiria, edo 220. or. (Kampion).

EGITEKOAK

- a) Bila Euskaltzaindiaren "Euskararen Liburu Zuria", eta ikus hura hizkuntzen eta boterearen elkarren arteko zerikusia (lana argigarri izan daizuke: 104-124. orr.).
- b) Galde zure herritar adinekoen artean "eskola-eraztuna" deitua (eskola-onduetan euskaraz egiten zutenentzako zigorra) ezagutu zuten: nola erabiltzen zen?
- c) Garai batean, zein liburu eta modu erabiltzen ziren, eskoletan, euskaldun hutsak erdaraz bakarrik alfabetatzen zitezkeen? Galdetu amonari nola egiten zuten lan, eskolan.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Adieraz agiri honen ideia nagusia zein den.
- b) Ideia hori defendatzeko, agirian azaltzen diren arrazoiak aipatu.
- c) Bidezkoak iruditzen al zaizkizu arrazoi horiek? Kritika labur bat egin bakoitzari buruz.
- d) Gaur egun betetzen al da lege hau, edo antzeko zerbait?
- e) Neurri horiek zein ondorio izan zuten jatorriz beste hizkuntza bat zuten lurraldeetan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XVI-XX. mend.

Betidanik egon da historian zibilizazio desberdinen arteko harremanik. Erlazio horrek sortzen duen kulturazio-prozesua, kasu batzuetan gogorra izan da zibilizazio atzeratuetan. Braudel ikertzailearen testu honek, espainiar eta europarren kulturaziotik babestu diren eta iraun duten zibilizazio indiarren kasua aztertzen du.

"Hala ere benetako zibilizazio indiarrek, zibilizazio sendoak, bizirik gelditu ziren. Baina, nola desarmaturik zeuden, eta erdi-purdiko tresneria besterik ez zeukaten (ez zuten ezagutzen gurpilik, ez burdinarik, ez kainoi-bolborarik, ez etrabererik, lama besterik), eta nola bapatean saurituak izan ziren eta saurituak ere bihotz-bihotzean (Mexiko/Tenochtitlan, Cuzco), oso ehizagai errazak izan ziren seguru asko. Dena dela, populazio indigena bere dentsitateak berak salbatu zuen. Gaur egun, Mexiko 'herri indiarra' da funtsez, eta harro-harro gainera; eta gustiarekin ere Andetako lautadetan hantxe jarraitzen du oraindik indiarren bizikera tradizionalak, onbehar, baina bizirik, sustrai sendoekin eta lur hartu duen lekutik inork kenduko ez duela".

(F. BRAUDEL, 1983)

F. Braudel historialaria, Frantziako "Annales" eskolakoa da, eta urte-sail batean zuzendu ere egin zuen aldizkari berau. Eskola historiografiko honek metodo-berrikuntza bat ekarri zuen, batez ere herri latinoetan Historian ari zirenen artean. Historiaren osotasuna eta erritmo ezberdinak azpimarratu izan ditu "Annales"ek.

Ameriketako jatorrizko zibilizazio indiarrei buruzko informazioa "Mendez Mende. Aro Modernoa"n, 43-92. orrialdeetan, aurkituko duzu. Herrialde horien independentziarako bilakaera "Mendez Mende. Aro Garai-kidea"n: 231-241, 260, 274-280, 308-318. orrialdeetan. Ez ahanzi bi liburu horietan orrialde asko dituzula Amerikari buruz: "MM/AM", 43-96, 180-232; "MM/AG", 231-333. orr.

EGJTEKOAK

- a) Atlasa kontsultatu ondoren, egin Amerikako kolonizazioari buruzko mapa bat.
- b) Adieraz berezikiago, mapa honretan, testuan azaltzen diren aipamen geografikoak.
- c) Bila, entziklopedia batean, Mexiko-Tenochtitlan eta Cuzco-ren kolonizazioaren berri.
- d) Hernán Cortés eta Francisco Pizarro izan ziren, bereziki, testuan azaltzen diren lurraldeen konkista eraman zutenak: bila beraiei buruzko informazioa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz burutu zen Amerikako indiarren kolonizazioa?
- b) Nolako abantailak zituzten kolonizatzaileek, eta zeintzu ziren bertakoen desabantailak?
- c) Zertan oinarrituta ote dio Braudel historilariak: "Gaur egun, Mexiko herri indiarra da funtsez"?
- d) Bere garaietan nolakoak izan ziren kolonizatzaileen eta bertakoen arteko harremanak?
- e) Nolako eritziak ematen dira gaur egun Espainian eta Amerikan herrialdeen arteko anaitasunari buruz? Bila eta komenta itzazu kontrajarritako bi eritzi.
- f) Labur ezazu testua, eta atera ondorio garrantzitsuenak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

XVIII. mend.

Izadian garbi aurki daitekeelako, eta duen xafla-kortasunagatik, urrea izan da gizonak erabili izan duen lehenengoetako metalea. Brasilen, XVIII. mendean urre-bilaketak arrakasta handia izan zuen, hurrengo mendean Kalifornian edo Australian izango zuen bezala. Historian zehar, metal horren inguruan iharduera asko mugitu izan dira. Hemen, iraganbideko honelako gertakari batek herri jakin baten bizitzan izan zuen munta gogoratzen zaigu.

"Minhas Velhas --Meategi Zaharrak-- XVIII. mendeko meatz-abenturen galdapenak eraiki erazitako hiria da, txeragabeko lurralde menditsu eta erdi mortu baten bihotzean: Brasileko barnealde azkengabeen jaso ziren urre-hiririk garrantzitsuenetakoa izan zen. Hiri hauetako batsuk oso goiz izan ziren eraikiak, XVII. mendearen askenaldean; beste batsuk, gehienak, XVIII. mendearen lehen hamar-kadetari sortu ziren. Minhas Velhas-en 1722an, eta apika lehenago, hari zen ustiapena. Dena den, honen hiri-estatutua 1725ekoa da gutxienez eta, 1726tik aurrera bazen Alkatetza, bertan urtzen bait zen urrea eta bostetatik bat deskontatzen zen Portugal-eko erregeari bidaltzeko. 1746-1747an 13 libra urre eman zituen bostetatik bat horrek; honek ematen du 65 librako produkzioa; honi gehitu behar zaio, maulako urrea eta zirkulazioan zebilena. Meategi eta hondar urredunetako urrea ugari izan zen bitartean hiri langile honek ez zuen problema handirik izan: bisigailuak alde gustietatik biltzen ziren hara, baita urruneko lurraldeetatik ere. XVIII. mendearen asken aldetik, ordea, gainbehera egin zuen urreri loturik zegoen aberatsaldiak, bai Minhas Velhas-en eta bai Brasileko beste edonon". (M. HARRIS, F. BRAUDEL, 1983)

F. Braudel historilaria, Frantziako "Annales" eskolakoa da, eta urte-sail batean zuzendu ere egin zuen aldizkari berau. Eskola historiografiko honek metodo-berrikuntza bat ekarri zuen, batez ere herri latinoetan Historian ari zirenen artean. Historiaren osotasuna eta erritmo ezberdinak azpimarratu izan ditu "Annales"ek. Kasu honetan, beste historilari batenak, M. Harris amerikarrarenak darabiltza, Minhas Velhas-en berri emateko.

Ikus Brasil-eko historia koloniala "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 198-199. orr. eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n aurki dezakezu: 244-252. orrialdeetan. Independentziaren ondokoa, ostera, 318-322. orrialdeetan.

EGITEKOAK

- a) Egizu Brasil-eko mapa bat. Adieraz bertan Estatu eta puntugune ekonomiko garrantzitsuenak.
- b) Non kokatzen duzu Bahia Estatu? Zein da hiriburua? Deskriba Estatu horren geografia. Bila datuak.
- c) Itus ezazu hiztegi entziklopediko batean urrearen historia, eta horren barruan Brasil-i dagokion uena.
- d) Mundu-mapu batean aditzera eman, historian zehar, urrea aurkitu den toki garrantzizkoak.
- e) "Bandeiranteek" izan ziren Brasil-en barnealdea ezaguterazi zutenak, eta han urrea aurkitu. Zer ziren "bandeirante" hauek? Egin mapa bat, hauen ibilbideak seinatuz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nolako hiria da testuan agertzen dena? Brasil-eko egungo hiriak nolakoak dira?
- b) Zeintzuk dira Brasilen, meatzak dituzten lurraldeak?
- c) Nekazar ekonomia, meatz-ekonomia batekin trukatzekak, nolako ondorioak izan ditzake herrialde batentzat? Egin iruzkin bat.
- d) Zer ekarri zion Brasil-i, urre-meatzen ustiapenak?
- e) Zer ulertzen da "urre-patroi" delako kontzeptuarekin? Bai al dago gaur honelakorik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1823

William Wilberforce abolizionista sutsuak, esklabutzaren egoera salatzen zuen ondoko testu honetan. Moralki lotsagarria iruditzen zitzaion. XVIII. mendearen bukaeran, Britainia Haundian, hasitako abolizioaren aldeko mugimendua 1807az geroztik indartu zen, eta esklabu-tratuaren nazioarteko lehen-debekuak Vienan lortu zituen (1815); ondoko Kongresuak (Akisgran, 1818; Verona, 1822) birretsi egingo zuten debeku-joera hura. Hala ere, hamarkada luzeak joan ziren, tratu hura erabat desagertu arte.

"Sinestezinekoa izango da ia gure ondorengoentzat, guk esklabutza-sistema hau honen luzaro onartu izatea Inperio britainiarrean. Egia esan, sistema hau ez litzateke hain harritzekoa beste baster batsutan gertatu izan balitz, hala nola Hindustan-en, non ohitura paganoak eta benetan lasgarriak dituzten jende-mordoak erori bait dira gure eskuetan (...).

Baina non eta, askeneko bi mendeaz gero, sorreratik bertatik kristau-jende osatuta egon diren komunitateetan, eta biztanle paganorik, guk geuk hara eramandakoak besterik izan ez dituzten kolonietan honelako esklabu-sistema mantentzea, hori anormalkeria bat da, gure sinesgarritasuna erabat itotzen ez badu ere, etorkizuneko jendeak gutxienez biziro harriturik utziko dituen".

(W. WILBERFORCE, 1823)

William Wilberforce (1759-1833), britaniarra zen. Familia aberatseko semea. Parlamentuko jazarleku bat erosi eta, gazte-garaiko joko eta edarizaletasunak barkarazteko, kristautasunera birkonbertituz esklabutzaren aboliziora zuzendu zituen bere indar guztiak. Thomas Clarkson-ek, 1787. urtean, sortutako "Esklabu-Tratuaren Aboliziorako Elkarte"n sartu zen. 1823. urtean esklabutzaren aurkako Elkarte berri bat eratu zen Londres-en, eta bertatik indarberritu zituen kanpainak.

Esklabutzari buruzko langai asko daukazu "Historia/1" eta "Mendez Mende"n. Hasteko, agiritegi honen "Gidaliburua"n ik. ditzakezu beste kideko fitxen aipamenak (35. or.). "Historia/1"ean, 95, 97-99; 101. orr. (Grezia), 122, 142-143. orr. (Erroma), 173. or. (Islama). Baina esklabu-tratuaz zehazkiago: "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 188. or. (mapa), 205-206, 221-222 (indiarrekiko eztabaida), 225-226 (Latin Amerika); "Mendez-Mende. Aro Garaikidea"n, 273, 294-295 (EE.BB.), 321 (Brasil), 328, 330 (Kuba), 405, 470-476. orr. (Afrika).

EGJTEKOAK ETA ERANTZUTENAK

- a) Kritikatzten den esklabutza, non eta noiztik ezagutzen da Historian?
- b) Esklabutza modernoak nondik norako bideak izan zituen?
- c) Zer zen "asiento" delakoa, eta zein historia du?
- d) Azter zergatik iruditzen zitzaion ezinonartua esklabutza Wilberforce-ri.
- e) Kasualitatea izan ote zen abolizioaren aldeko kanpainak, Britainia Handian hastea?
- f) Zeintzuk izan dira esklabutza modernoari (15. mendetik hona, alegia) ezarri zaizkion lan-motak?
- g) Ea aurkitzen duzun Adam Smith-ek esklabutzag zuen eritzia.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1745-1815

1745-1815etan, Estatu Batuetan gertatu zen populazio-hazkundera aztertzen du. Biztanleria hau "Laku Handien" eskualdean, Iparraldean eta Floridan kokatuko da batez ere. Ez da ahantzi behar "Far West"erako hedapena hurrengo hamarkadetako emigrazio-fenomenoa izan zena.

"Kontinente amerikarreko britaniar kolonia eta lurraldeak izugarri bizkor desarroilatu ziren XVIII. mendearen lehen erdialdean --espainiarren lurraldeekin konparatuz batez ere. Hirukoiztu egin zen lurralde kolonizatua. Orduraino inoiz ikusi ez bezalako neurrian hazi ziren biztanleria eta esportazio-inportazioak. Laku Handien eskualdean, Iparraldean, eta Florida espainiarrean, milioia pasatuz ziren biztanleak 1745eko urte inguruan, 1775ean berriz 2,5 milioi inguru. Gobernu federaleko lehenengo zentsuak, 1790ekoak, ematen duenez, 3,5 milioi bizi iziren Estatu Batuetan. Hazkunde-tasa horrekin formula maltustarrera hurbiltzen ziren kolonoak, alegia, hogeita lau bost urtetan bikoiztu egiten dela biztanleria. Kontzientzia nazionalarentzat eta kolonoen erresistentzi gogoa sendotzeko ez zen garrantziz gabekoa beren kopuruaren indarrak jabetzea".

(W.P. ADAMS, 1979)

W.P. Adams historilari alemanak, bere "Die Vereinigten Staaten von Amerika" (=Ameriketako Estatu Batuak) obran demografiari funtsezko lekua ematen dio, Estatu Batuen Historia argitzeko. Azken hamarkadetako Historiografiaren bide berriei jarraikiz egiten du hori: hau da, batez ere oinarritzko datu sozio-ekonomikoen arabera begiratu Historia osoa.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n langai ugari daukazu, pasarte komentatu honetan ematen direnak argitu edo osatzeko: Ipar Amerikari buruz ik. 84-87, 253, 256, 262, 284, 291, 293-295. orr. Eta beste herrialdeei buruz zerbait nahi balitz, ik. 315 (Txile), 321 (Brasil), 322-324 eta 328 (Kanada).

EGITTEKOAK

- a) Liburutegietako entziklopediak, histori liburuak ("Mendez Mende. Aro Garaikidea") kontsultatuz, egizu 19. mende hasierarte, Estatu Batuetako egoera sozio-politiko-ekonomikoz laburpen bat.
- b) 19. mendeanarte Europako bilakaera demografikoa azter, eta idatz laburpena.
- c) Grafiko batean erakus Europako populazioaren bilakaera: 1) 19. mendeanarte, 2) 20. mendekoa ("Mendez Mende. Aro Garaikidea": 13-18. orr.).
- d) Histori liburuetan begira 1800-1850-1900. etako munduko populazioaren datuak: 1) Europa, Asia, Afrika, Ipar Amerika, Hego Amerika eta Ozeania. 2) Taula bat egin eta komentatu ezberdintasunak.
- e) 19. mendeko Europako populazio-hazkundearen ondorio sozio-politikoak azter itzazu.
- f) Europa eta Ameriketako mapan margotu edota seinalatu Estatu Batuetara joan ziren migranteen sorreria eta bertako kokagune garrantzitsuenak.
- g) Malthus eta bere teoriaren informazioa jaso.
- h) Hurbil zaitetz zure herriko parrokiara eta garai honetako "erregistroak" --Bataio- eta Heriotza-agiriak-- aztertu ondoren, grafiko bat egizu populazioaren bilakaera ikus dezazun.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Estatu Batuetako populazio-hazkundearen zergatiak zeintzuk izan ziren?
- b) Noa zen Malthus? Azal haren teoriaren ezaugarriak.
- c) Europako zein herrialdetatik irten ziren emigranteak Amerikanantz.
- d) Zeintzuk izan ziren Europako demografi hazkundearen kausak?
- e) Zeri esaten zaio "hazkunde-tasa"? Nola lortzen da?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1776-1783

Ondoko agiria gaur eguneko historilari aleman batena da, eta Estatu Batuen Independentzi gerrateaz ari da (1776-1783). Gerra hura --independentzi gerrate asko bezalatsu-- gerra zibila ere izan zen: amerikarrak amerikarren kontra. Metropoliko Koroari leial izandakoez dihardu hemen Adams-ek.

"Es dago zehatz esaterik zenbat lagunek gorde zioten leialtasuna Koroari gerra-bitartean (1776-1783). 80.000 eta 100.000 bat pertsona izan ziren, gataska-bitartean, kolonia errebolatuetatik alde egin zutenak, hau da, biztanleriaren 100eko 2 edo 3. Iraultza Frantsesak biztanleriaren 100eko 0,5 bakarrik emigrarazi zuen. Leialtako gehienek Kanadan eta Mendebaldeko India britainiarretan bilatu zuten babeslekua. Askok beren etxeetan itxaron zuten gerraren azkena. Leial aktiboak, gerraren hasieran identifika zitezkeenak, populazioaren 100eko 6tik 16ra bitartekoa osatzen zuten. Frogaturik dagoena da, gizarte-maila gutxietakoak zirela. Massachusetts-etik 1778an iraitzitako 300 leialetatik, hirutatik batek merkatari eta intelektual bezala zuen bere ogibidea, beste hirutatik batek nekazari bezala, eta gainerakoek merkatari triki, artisau eta langile alokatu bezala. Hala ere, zati handi-handi bat kargu-publikodunak ziren, lurjabe handiak, handiska-saltzaileak, erlijioso anglikano eta kuakeroak". (W.P. ADAMS, 1979)

W.P. Adams ez da historilari klasikoa oraindik, gaur bertokoa baizik, 1940an jaio bait zen. Alemanian eta Estatu Batuetan izan da irakasle: Berlin, Harvard, Frankfurt, etab. Alemanez ari den historilari europar batek Iraultza Amerikarra eta berorren oihartzunak nola ikusten dituen jakiteko balio digu pasarte honek.

Ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 252-259 eta 262-268. orrialdeetan, hemen Adams-ek ukitzen duen garaiaz azalpen historikoa, irudiak eta beste dokumentu batzuk ere.

EGJTEKOAK

- a) Idatz Estatu Batuen Independentzi Gerratearen kausak, eta labur gertaerak mapa edo grafiko batean.
- b) Atlas Historiko baten laguntzaz (edo "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 285. or.), Estatu Batuetako mapa bat egizu, eta bertan seinalatu pausoz pauso hedapena.
- c) Begira hiztegia "kuakero" eta "anglikano" hitzen esanahia.
- d) Idatz iraultza burgesaren ezaugarri orokorrak.
- e) "Abraham Lincoln" (EE.BB., 1930), David Wark Griffith-en filmea ikusteko aukera baldin baduzu, garai honetaz duzun zure informazioa sakon dezahezu.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik Ameriketako kolonien eta Ingalaterraren arteko gerratea? Noiz gertatu zen hori?
- b) Zer izan ziren "Independentzi Deklarazioa" eta "Versailleseko Ituna"?
- c) Zeintzuk dira 1787ko Konstituzioak aldarrikatzen dituen printzipioak? Zein mugimendu intelektualen eragina jasan zuten?
- d) Zein maila sozialetakoak mantentzen dira leial ingeles koronarekin? Zergatik?
- e) Zergatik eman ohi da iraultza amerikarra iraultza burgestzat?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

c. 1775-1800

XVIII. mendean Europan eztabaidatzen ziren doktrina filosofikoak ez ziren utopikoak; pentsalariek sumatzen zuten haien aplikagarritasuna ere. Amerikako iraultzak, garai hartan, berandu gabe, garrantzi handiko aldakuntzak gerta zitezkeenaren susmoa sortu zien europarrei. Oihartzun biziko gertakariak izan ziren Ameriketako haiek.

*"Amerikako Konstituzioak irrikas izan ziren irakurriak eta gutxienek bost aldiz argitaratu ziren frantsesek 1778tik 1786ra bitartean, eta holandesek ere bai behin behintzat, 1787an. Herria bere botere konstituziogilea erabiltzen ikusteak erasan handia egin zuen frantsesen artean, zeintzuk beste arazo bat ere planteatu bait zuten: alegia, nola egin errepublika batean herentziasko aristokraziarik sortu ez sedin? Mahly-k eta Mirabeau-k beren kezkak azaldu zituzten, ea Goi-Ganbara eta Cincinnati Lagunartea bezalako erakundeek noblezia berri bat sortuko ez ote zuten. Estabai-
daok sabaldu egin zuten aurrerapen-kontzeptua eta dimentsio berria eman sisten libertate- eta berdintasun-ideiei. Gerostik Estatu Batuek hartu zuten Ingalaterraren lekua imita beharreko paradigma bezala".*

(J. GODECHOT, 1968)

Jacques Godechot, historilari frantsesa da, eta Iraultza-garaiaren (1770-1815) historia egin du, batez ere bi obra maisu utziz: "Les révolutions" eta "L'Europe et l'Amérique à l'époque napoléonienne" (Parise; gaztelaniaz: Barcelona, Labor). Erregimen zaharretik iraultza burgesa burutzeroa garamatzaten hamarkada haien kronika historikoa sakondu eta birpentsatu du Godechot-ek bi obra hauetan. Ondoko urteetako ikaslanetan biziki interesgarriak izan ditzakezu zuk ere.

Ikus "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n, Amerikako Estatu Batuen Independentzi Gerratea: 256-262 (atarikoak) eta 262-268 orrialdeetan (gerra bera). Eta Europako iraultzak; 27-44 orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) "Iraultza atlantiarren" ideia jarraituz, azter Europa-Ameriketako zein Estatutan, eta noiz, gertatu ziren iraultzak. Egin 18-19. mendeetakoen ardatz kronologikoa.
- b) Adieraz mapa batean, iraultza-puntuak.
- c) Egin Amerikako Konstituzioaren azalpen grafiko bat (ik. Istmo editorialaren "Atlas Histórico" a 2, 14. or.).
- d) Agirian agertzen diren izen propio eta taldeen berriak jaso, entziklopedietan.
- e) Historian zehar iraultza kontzeptua era askotara erabili da: Bereiz itzazu erreferentzia hauek: Iraultza neolitikoa, Industri Iraultza, iraultza politikoa edo soziala, Iraultza Frantsesa. Beste aipamen batzuetarako ere erabiltzen da: gogoratzen al duzu besteren bat? Saiatu zaituz liburuetan eta elkarren arteko eztabaidan dena argitzen.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer da Konstituzioa? Eta botere konstituziogilea? Zein garaitako iraultzei dei dakieke "liberal" edo "burges"?
- b) EE.BB. etako Konstituzioa kontserbadorea ala iraultzailea izan zen? Zergatik? Europarrei nolakoa iruditu zitzaion?
- c) Zer da iraultza? Zer ulertzen duzu zuk iraultzaz?
- d) Amerikako Konstituziotik zer zen frantsesak gehien kezkatu zituena?
- e) Zergatik hartu zuten Estatu Batuek Ingalaterraren eredu imita beharreko bezala?
- f) Nondik dator Cincinnati Lagunartearen izena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

1775-1783etako Independentzi Gerrateak aro berria ireki zuen Ipar Ameriketara. Oso momentu txarrak pasa ondoren, lortuko dute ingelesengandik independentzia politikoa. Baina ez zaizkie arazoak bukatuko, oso jende eta lurralde desberdinez egin behar bait zuten Estatu berria. Desberdintasun horiek eraginda sortuko da gerra zibila ehun urte igaro baino lehen.

"Gerraren bukaera kinka-denbora bat zen Amerikako Estatuentzat. Konfederazioak ematen zuen, berez desegin behar zuela, independentzia eskuratzea beste xederik ez zuela eduki eta. Hamahiru Estatuak interes gutxi dituzte anankomunak eta aitsitik puntu asko dira, haiek bata bestearen kontra jartzan dituztenak: oso desberdinak dira populazioz, jatorriz, tradizioz; desberdinak dira mugetan dituzten sailtasunak, merkatal demaketa eta konkurrentzia. Eskutadaxo bat lagun besterik ez dira, batasunaren interesa ulertzen dutenak, eta ahalegin luze-luzeen ondoren, Filadelfian Konstituzio federal bat botatua izatea lortzen dutenak, 1787an.

Konstituzio honen berrespena bera ere oso nekez lortzen da. Dena den, Konstituzio hau 1789an sartzen da indarrean". (A.TUNC, 1974)

André Tunc, Pariseko I. Unibertsitateko irakaslea, Estatu Batuetako Zuzenbideaz arduratu izan da, eta hainbat liburu ditu hango garapen konstituzionalaz, batez ere: "Le droit des Etats-Unis" (1964), edo "Le Système constitutionnel des E.U.A." (1953). Esan beharra dago, munduko konstituzionalismo modernoan, Estatu Batuetakoak zeresan handia izan duela. Balio historiko berezia du, beraz.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n baduzu berririk franko Ameriketako gizartearen garapen politikoaz: 252-259, 262-274, 284-307. orr. Baina, orrialde hauetatik gaiari zuzenago doazkionak, 268-274. orrialdeetan dauzkazu.

EGITEKOAK

- a) Azaldu. mapa batean. EE.BB. etako Federazio estatal berria osatu zuten Hamahiru Estatuak. Gaur berdin al daude.
- b) Estatu guztiz ezberdinak daude gaur egun EE.BB. etan (lurrez, bizilagunez...): ikus Estatu bakoitzaren datu orokorrak.
- c) Zeintzuk izan ziren. Estatu Batuen sorreran garrantzirik behinena izan zuten pertsonaiak? Egin bakoitzaren fitxa biografiko bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein Estatu europarrek lagundu zien amerikarrei? Ez al da arraro samarra? Zergatik?
- b) Bai al dakizu amerikarrei laguntza eman zien europarren baten izenik?
- c) Zenbat biztanle zegoen Estatu Batuetan. Independentziakoan?
- d) Zein diferentzia zegoen ipar eta hegoaldeko lurraldeen artean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

c. 1825

Amerikako arazoak larritzean, independentzia amerikarri buruzkoak ere planteatu egin behar izan ziren. Hemen, Fernando VII.ak kontrako jarrera azaltzen digu, historilariak dioenez. Ordurako, Atlantikoaren bi ertzetan, Ilustrazioaren ideiak eta Iraultzak ziren nagusi. Fernando VII.ak ez zuen prozesu horren atzera-ezina ulertu, eta Amerika militarki menperatuta mantentzearen alde agertu zen.

"Erregeak, bestalde, ez zuen inoiz jakin ere nahi izan, ez infante espainiarrek herrialde amerikarretan erretaulkietara igo behar zutenik eta ez lurralde haien bisitza independentea izango zenik. Eta leungarririk gabe aitortu zion Infantado-ko konteari, ministrari honek, Frantziak eta Ingalaterrak zirikaturik, kolonien konponbideren bat negoziatu beharra zegoela edo azaldu zionean: 'kontzientzi kasutzat zeukala hark Ameriketari buruzko bere eskubideei sekula ez uko egitea; Luis XVIII.ak ere iraupenaren iraupenez berreskuratu zuela bere Koroa, bai, eta denborak eta barnean beti kordokalditan ibiltzeak sortzen duen nazkak ekarriko ziotela agian aukerarik hari oraindik bere kolonien birkonkista lortzeko'. Fernandok, gainera, Ameriketako arazoa ez zuen nazioarteko gausa bezala ikusten eta bai areago etxebarruko arazo bezala, horregatik esku-sartze bat bezala ikusten zuen arazo hartan atzerriak esku-hartzea".

(F. SOLDEVILA, 1972)

F. Soldevila i Zubiburu. Barcelona, 1894-1971. Historilari eta idazle oparoa. Poesia, teatroa eta nobela historikoa ere landu zituen, eta, historilari bezala, Kataluniako historia ikertzen ahalegindu zen, alde batetik, eta Espainiaren Historia, Gaztelatik ezezik, periferiako ikuspuntu berrietatik ere birpentsatzen. Informazio handi batekin eta bere ikusmolde berritu horrekin, iradokizunez betetako obra historiografikoa utzi zuen.

Sarrera gisa balio lezakeen Latin Amerikako historia koloniala ikus "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 233-343. orr. Hemengo gaiari zuzenago lotuta dagoena, ostera, ik. 274-283. orrialdeetan. Baduzu hor aski argibide.

ESJTEKOAK

- a) Hiztegi historiko batean bil ondoko pertsonaien biografiak: Fernando 7.a, Luis 18.a
- b) Latin Amerikako gerragureak eta armaden ibilbideak (Bolivar, San Martin, etab.) adieraz, zeuk egindako mapa batean.
- c) Eman, mapa batean, 1770-1830. urteetako gertakari iraultzaile handien datak.
- d) Gaur egun, nolako harremanak dauzkate Ameriketako Estatuak Espainiarekin? Zertan aldatu dira harreman-moduak?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein da Amerikari buruz Fernando 7.a erregeak duen ideia?
- b) Independentziaren ahalbidea onartzen al zuen?
- c) Europako beste nazio batzuek, nolako portaera izan zuten Independentzi Gerrate horian?
- d) Noiz eta nola gertatu zen Independentzia amerikarra? Bereiz itzazu epealdi desberdinak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Igualako egitarau honen bidez (1821), Agustín Iturbide jeneralak Espainia Berriko independentzia aldarrikatu zuen, Estatu berriak izango zituen hainbat ezaugarri azalduz: Espainia Berriko erlijio katolikoa izango da erlijio bakarra, Estatu independente berri honek Fernando VII.a izango du enperadore, biztanle guztien berdintasuna ezarriko da (espainiar, kreolo, indiar, eta abar). Formulazio hain kontserbadoreen azpian, Independentziaren iraultza politikoa zegoen.

1. "Katoliko, apostolotar eta erromatarra da eta izango da erlijioa, eta ez da tolerantziarik izango beste ezeinentsat";

2. "Espainia Berria independente da Zaharretik";

3. *Gobernu-modua monarkia konstituzionala izango da. Errege izango den pertsonari dagokionez, honela deklaratsen du egitarauak:*

"Jain don Fernando VII.a izango da haren Enperadore, eta hautatu hura ezarritako epeetan aurkezten ez baldin bada, haren lekuan izango dira deituak, don Frantzisko Paulako infante Jain Gorena, Karlos artxidukea (Austriakoa) edo etxe erreinariko beste edozein printze, kongresuak aukeratsen duena".

Askenik egitarauak esartzen du (XII. art.) Espainia Berriko biztanleak berdinak direla eskubidez, jatorrizko bereiztasunik gabe.

(IGUALAKO EGITARAU, 1921)

Agustín Iturbide-ren bizitza (1783-1824) benetan bitxia gertatzen da. Armada espainoleko ofizial bezala independentista errebolatuen kontra jardun zuen, urtetan (1810-16etan, batez ere). 1820an, berriz ere egiteko bera hartu zuen bere bizkar; baina, Guerrero altxatuarekin akordio batera iritsi ondoren, Iguala-ko plana proposatu eta defendatu zuen. Mexiko eskuratu eta enperadore-titulua hartu zuen (1822). Erbestealdi baten ondoren, Mexikora itzultzean, afusilarazi egin zuen kongresuak.

Independentzi gerrateko gorabeherak "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n, 274-283. orrialdeetan, ikus ditzakezu horren aurreko gertakari eta egoera, aurreko orrialdeetan: 230-243. orr.

EGJTEKOAK

- a) Hispano Amerikaren Independentziaren mapa bat egin.
- b) Atdatz kronologiko batean, kolonia amerikarren independentziaren momentu garrantzitsuenak eta Espainiaren aldebereko bilakaera politikoa aditzera eman.
- c) Ipar Amerikako mapa batean, Mexiko-k izan dituen lurralde- eta mugu-aldakuntzak zehaztu.
- d) Agustín Iturbide jeneralaren biografia bat egin.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer nahi du Iturbidek Igoalako egitarau honekin?
- b) Hego Amerikako beste kasu batzurekin konparatuz, zeintzuk dira Mexiko-ko independentziaren berezitasunak?
- c) Zeintzuk dira nazionalismo iberoamerikarraren oinarri ideologiko eta politikoa?
- d) Zein moldetako kausek ekarri zuten metropoliaren eta kolonien arteko etena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XIX. mend.

Ez dago ipar amerikarren nortasuna ulertzerik aitzindari hauek kontutan hartu gabe. Superpopulazioa arrisku bihurtzen denean, mendebaldera joko dute, landugabeko lurretara. Lan gogor eta arriskutsua, inguruak etsaiz beterik bait daude. Alderdi heroikoa azpimarragarria bada ere, ezin ahaztu lehenagotik han zeuden herrien gain biolentzia handia egin zela.

"Gogora dezagun bere lursaila (160 akreko /64 Ha-ko 'hames-tead'a) jaso berri duen kolonua. Joan eta egur prefabrikatus bere etxea egiten du, eta alor ezberdinak elkarrekin piska bat doitu, lehen batean muintoetako lur arinak lantzen ditu eta gero poliki-poliki beheragoko lurrak. (...) Bertan urte batzuk egin ditu, baina ez du han diru-gastu handirik egin beharrik izan, dena aurrezaturik jaso du eta. Bere mantenua kontserba-poteen kontura egin du eta trenbidea hurbiletik pasatsen bazen, ikatza ere izan du etxea berotzeko. Bispahiru laborealdik diru-mordoska bat biltzeko aukera eman dionean, zalantza-izpirik gabe jakiten du zer egin: erositako lur-saila salgai jarri berriro, bitartean inmigrante berrien etortzeak suposatzen duen plusbalioa probetsatus, eta Mendebalderago jotzen du, han berriro hasteko. Ekialdera itzuliko balitz garaitutzat edo aitortuko luke bere burua".

(L. GIRARD; F. BRAUDEL, 1983)

F. Braudel historilaria, Frantziako "Annales" eskolakoa da, eta urte-sail batean zuzendu ere egin zuen albistari berau. Eskola historio-grafiko honek metodo-berrikuntza bat ekarri zuen, batez ere herri latinoetan Historian ari zirenen artean. Historiaren osotasuna eta erritmo ezberdinak azpimarratu izan ditu "Annales"ek

Honetaz berri gehiago "Mendez-Mende. Aro Garaikidea" liburuan, 284-294 orrialdeetan. Argibide oso eta zabalagoa nahi baduzu, berriz, Ipar Amerikaz diharduten orrialdeak hauek dituzu: 252-259, 262-274, 284-307. orr.

EGITEKOAK

- a) Ikus mapetan nondik abiatzen diren aitzindariak eta zein bide jarraitzen duten lur berrietara iristeko. Zeuk egindako mapa batean adieraztea egoki izango da.
- b) Ikus zein garaitan iritsi ziren lurralde bakoitzera: egin ardatz kronologiko bat.
- c) Ikus Far West-eko filmaren bat, eta eztabaidatu onduko arazo politikoa.
- d) Begira aitzindariak iritsi aurretik zein herri indiar bizi zen lurralde haietan. (Begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 253 eta 291. etako mapak).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Konpara itzazu indiarren eta aitzindarien bizimoduak. Berdinak al ziren? Zein ondorio atera daiteke honetatik?
- b) Zeintzuk dira aitzindarien ekiniza ekonomikoak? Bai al dago beraien artean borrokarik?
- c) Zer gertatu zitzaion aitzindarien aurretik lurralde horietan bizi zirenei?
- d) Ezagutzen al duzu munduan antzeko beste kolonizazioak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XX. mend.

Teorian kontinente bat osatzen duen "Ameriketari", bilakaera oso desberdina izan dute kontinente hori osatzen duten Ipar-Hegoaldeak. Egoera eta prozesu ezberdinei buruz gogoeta egitean, testuan agertzen diren datuak at ere beste ikuspuntu asko azter daiten. Ibero Amerikak ez du gaurkotatzen galdu.

"Latin Amerika izugarriko eremu handi bat da. Bertako gizajendea urria da, eta zalanga-zalanga daukan traje handiegi baten barruan bezala sentitzen da bertan. Larregia da lekua, eta gehiegi honek moskorrak jota bezala uzten ditu gizakiak. (...)

Iraganaldiko ametsa zen, nekazariak izadi basatitiki ateratzea. Hego Amerikako izadiak bai lehen eta bai orain gizaki mirengarriak, pobreak, langileak sortu ditu, hala nola: Panpako 'gaucho' a, Brasil-eko 'caboclo' a, Mexikoko 'campesino' a, peoia. Azkenean hau beti dago altxatzean prest benetako buruzagirik aurkituz gero, hala nola, Emilio Zapata miragarria, 1911 eta 1919 inguruan Mexiko inguruan borrokatu zena. (...)

Borroka literatura sozial eta landatzen hasten da bizitzan: gaur egun, behartsua, mundutik izadiak, espazioak edo soil soilik bere miseriak isolatu duena, izaten da batipat gaur oraindik heroi literarioa; baina orain beste literatura-modu bat ere kargatu da hartas. Berria da literatura hau, borrokalaria, indarrezkoa, zuzeneko, eta oraingoan onbehar hori gizartearen, eta are zibilizazioaren biktima bezala aurkesten du, hain zuzen honen bidez zuzenean zorigabeari izadi basatiak bezain arrolakabe begiratzen dion zibilizazioa. (...)"

(F. BRAUDEL, 1983)

F. Braudel historialaria, Frantziako "Annales" eskolako da, eta urte-sail batean zuzendu ere egin zuen albistari berria. Eskola historiografiko honek metodo-berrikuntza bat ekarri zuen, batez ere herri latinoetan Historian ari zirenen artean. Historiaren osotasuna eta eritmo ezberdinak azpimarratu izan ditu "Annales"ek.

Latin Amerikari buruz informazioa "Mendez Mende, Aro Modernoa"n, 43-51. orrialdeetan, eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n, 233-244, 260, 274-280, 308-318, 328-330. orrialdeetan, aurkituko duzu.

EGJTEKOAK

- a) Atlas batez baliatuz, egizu Latin Amerikako mapa bat. Adieraz bertan lurralde hori bereizten duten alde geografiko jakingarrienak.
- b) Hiztegi bat kontsultatuz, sakon ezazu "gaucho". "cabocho". "campensino" eta "peoi" kontzeptuen esanahia.
- c) Bila, Emilio Zapata-ri buruzko argibideak.
- d) Irakur, eta iruzkinen bat egin latin amerikar iduzleren baten pasarte literario bati (Pablo Neruda-rena adibidez).
- e) Testuko problematikari buruz erraz bilatuko duzu lekukoren bat Latin Amerikako kantautoreen baten disketan: Aurkez eta entzun ezazue gelan.
- f) Zertan oinarritzen da gaur egun Latin Amerikako ekonomia? Bila itzazu ideia orokor batzuk.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk dira testuan azaltzen diren gaiak? Labur itzazu.
- b) Nolako aipu geografiko-soziologikoak azaltzen dira testuan?
- c) Nolako protagonismoa dute buruzagiek, eta zergatik?
- d) Geroari begira zein uste duzu izango dela Latin Amerikan etorkizuna?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Itsasaraindiko espainiar-amerikar diputatuen proposamen bat dugu hemen. Amerikakoak, ondoko beste deskolonizazioei aurrea hartu zien, XIX. mendearen hasieran. Dokumentu honek interesik jakingarriena du, Independentzia gauzatura edo gauzatzen ari zen une berekoa eta Koroak onartutako diputatuena delako.

1°. Hiru Gorte-sail izango dira Amerikan, bata iparraldean eta beste biak hegoaldean. Lehenengoa Espainia Berriko diputatu guztiek osatuko dute, barruko probintziakoak eta Guatemalakoak ere barne. Hego Amerikako bi sailek, berriz, besarkatuko dituzte, batetik Granadako erreinu berria eta Lurralde Irmoko probintziak, eta besteak Peru, Buenos Aires eta Txile.

2°. Sail hauek, Konstituzioak Gorte Arruntetarako seinalaturik dauden garaietan bilduko dira, eta denetan Gorteen erabakitakoaren arabera gobernatuko da (...).

3°. Hiru sail hauekako bakoitzean eskuordetza bat izango da, botere erekutiboa erregearen izenean egikariturako duena.

9°. Penintsularen eta Ameriketaren arteko merkatalgoa, erresumen barruan probintzia batetik besterakoa bezala, barnekotzat joko da". (Itsasaraindiko Diputatuen proposamena, 1820-1821)

Itsasaraindiko diputatuak, ilustrazioaren askapen- eta berdintasun-ideiaz jabetuta zeuden. Ipar Amerikakoa eta Frantziako Iraultzaren esanahia ezagutzen zuten. Exenplu horiek eztenkatuta eta metropoliko ez-egonkortasunak eraginda, Amerikan sortu ziren batzordeek geroz eta indar handiagoa zuten. Gobernu propio baten nahia nabaria zen kreoloen artean, hortaz.

Begira "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n, 233-244, 260-261, 274-283, 208-318 eta 328-330. orrialdeetan, Latin Amerikari buruzko albiste historikoak.

EGITEKOAK

- a) Egizu 18. mendeko Amerikaren egoera deskribatuko duen mapa bat. Zein Estatu ziren Amerikaren metropoliak?
- b) Testua zehaztuz, agertzen den lurralde-banakuntza eman mapa batean.
- c) Egin Independentzi Gerrateko mapa bat, gertakari nabariak beren tokietan lekutuz. Bolivar-ek Latin Amerikaz zuen batasun-proiektu politikoaz bildu, ahal dituzun berri guztiak.
- e) Eztabaida elkarrekin, ikasgelan, sistema kolonialaren eta independentziaren alde on edo txarrak. Eman, lauki batean, bataren nahiz bestearen aldeko edo kontrako arrazoiak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nola ulertzen dituzu dokumentuko kontzeptu hauek: Gorte-sail, Konstituzioa, Gorte Aruntak, Eskuondetza, Botere exekutiboa.
- b) Nolako egoera zegoen Espainian agiri honen garaian?
- c) Explika ezazu dokumentuaren izenburua. Espainian bai al zegoen Konstituziorik? Noizkoa?
- d) Nolako trabak zeuden Penintsularen eta Amerikaren arteko merkatalgoan? Zeintzuk ziren truke-produktuak?
- e) Nolakoa ote zen amerikar kolonien presentzia, eta bertakoen eskubideak, 1812ko Konstituzio espainolean? Bila argibideak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XX. menderarte

Txinako Han dinastiaren garaian (K.a. III-K.o. III mendeetan) antolatutako funtzionari taldearen berri ematen du historilariak hemen. XX. menderarte iraun zuen talde sozial administratibo honek, bere protagonismo osoarekin. Zeharo oinarritzkoak izan ziren Inperio txinarrean ofizial letratu hauen gaitasuna eta trebezia: gizartean gorabide estimatuena zen funtzionari-lana.

"Mendebaldarron begitan, Txinako gizartean zeukaten garrantziagatik, Nobleziaren pareko egin daitezke Mandarinak.

Baiki goi-funtzionari ziren, kopuruz gutxi eta lehiaketa-sail konplikatu baten ondorioz bilduak. Kulturaz eta betekizunez, baina ez jaiotzas, oso kasta urria zen (altuenik ere hamar mila familia XIII. mendean). Sozialki ez zen kasta itxia, baina erraza ere ez zen bertan sartzea, intelektualei erreserbatua bait zegoen eta bertan sartzen zirenak, beren ezagutza, hizkera, kezka, ideia eta pentsamoldez nolabaiteko konplizitatez elkarrekin loturik zeuden, eta, aldi berean, beste gizakietatik apartaturik zegoen jendea zen (...).

Mandarinak dira zergak finkatzen, justiziaz arduratzen eta polizia lanak egiten dituztenak; inoiz ekintza militarrik ere gidatzen dituzte, lanen egutegia xedatzen dute, kaminoak, kanalak, urtegiak, eta erregario-sistemak eraikitzen dituzte eta horien mantenuaren ardura izaten dute. Horien egitekoa izanten da, 'izadiaren gogorkeriak' ematea, lehorte eta uholdeak aurrikusiz, bizigailu-erreserbak eginez (...).

*Mandarinak disziplina dira, gizartearen, ekonomikoaren estatua-
ren eta zibilizazioaren egonkortasuna. Ordena adierazten dute,
desordenaren aurrian".* (F. BRAUDEL, 1983)

F. Braudel historilaria, Frantziako "Annales" eskolakoa da, eta urte-sail batean zuzendu ere egin zuen albistari berau. Eskola historiografiko honek metodo-berrikuntza bat ekarri zuen, batez ere herri latinoetan Historian ari zirenen artean. Historiaren osotasuna eta erritmo ezberdinak azpimarratu izan ditu "Annales"ek.

Txinari buruz, hasiera hartako berriak ezagutzeko, begira "Historia/1"ean 80-84. orr. Erdi Arotik honakoak, berriz, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 341-346, 359-376. orr. Administrazioaren antolamenduaz ere badaukazu zerbait: "Historia/1"ean 83.ean, eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 344-345. orr.

EGJTEKOAK

- a) Informa zaitez Txinako zibilizazioaren sorreraz: egin eskema bat.
- b) Beste zibilizazioetan bezalatsu erlijioak eragin handia zuten Txinan ere: egizu ardatz kronologiko bat Konfuzianismoaren, Taoismoaren eta Kristautasunaren une nagusiak bilduz.
- c) Egin lau ki eskematiko bat testuan agertzen diren zehaztasunekin.
- d) Sinbolo bidez eman sinopsi batean mandarinen betekizun nagusien azalpen bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Mandarlingoa nola biltzen zen? Zein izuk ziren kasta honetan sartzeko baldintzak?
- b) Nolako eginbeharrak zeuzkaten?
- c) Herria gobernatu eta zuzendu egiten al dute? Zer da gobernatzea eta zuzentzea?
- d) Zer esan nahi du autoreak, "izadiaren gogonkeriak ematzea" aipatzen duenean? Beste zibilizazio batzuetan norizuek betetzen dute eginbehar hori?
- e) Bui al dago zerikusirik Konfuzioren doktrinaren eta mandarinen jokoera politikoen artean? Zertan?
- f) Txinako zibilizazioaren egonkortasunak badu, noski, arrazoinen bat: Zer izan ote zaio halako iraupena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1950

Oso egungoa den testu honetan giza zientzietan guztiz baliotsua den arlo bateko datuak ematen zaizkigu: Txinako biztanleriarenak, hain zuzen. Azterketa demografikoak gizadiaren eboluzio sozio-politiko-ekonomikoa argitu ohi du. Txinako kasuan, mendebaldarrok beti harritu izan gaituzte hango populazio datuek. Hona hemen, zehaztasun horietara hurbiltzeko aukera bat.

"Badirudi luzaro egon zela bistanleria 60 milioi ingurutik gora pasatu gabe. X. mendetik XI.era bitartean hasten da ugaltzen eta 120 milioitara iristen da 1200 inguruan. Mongoliarren konkistak eta, agian, peste-isurrite batek egundoko gutxitzea eragin zuten XIV. mendean. 1368an Txinak ez zituen izango 70 edo 80 milioi baino gehiago. Ugaltzea XV. mendean hasten da berriro eta herrialdeak 100 milioiko marka pasatzen du. 1700ean 200 milioi bat txinar izango ziren. Inperioak XVIII. mendean, bakealdi luze bat izaten du, eta garañ horretan bikoiztu egingo zen bistanleria. XIX. mende eta XX. lehen mende-erdiko gerrate, gosete eta katastrofeek ondorio beltzak izan zituzten. 1850etik 1950era artean gainerako mundu guztiak jaiotze-tasa bortitza ikusten duen bitartean, Txinak % 20 besterik ez du irabasten". (M. CARTIER; C. MEUWÈSE, 1981)

Irakaskuntz Ertainetarako eskola-langaien autoreak dira M. Cartier eta C. Meuwèse, eta "La Chine" tituluarekin oso liburuska erabilgarria argitara eman dute (1981) "Espace et Temps" deitu bilduman (Parise: Ed. Magnard). Komeni da eskolarako gisa honetako argitalpenak inguratzea.

Historiaurreko eta Antzinako Txinaz, "Historia/1"ean daukazu berriemate labur bat: 80-84. orr. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n sintesi zabalagoa eskaintzen da: 336-376. orr. Bila hor ondoko galderetarako erantzun-gaiak ere.

EGJTEKOAK

- a) Lehen pauso bezala, begira, mapa batean, Txinako muga geografikoak, hiriburuak eta hiri nagusienak. Populazioaren kopuru handiena non pila-tzen ote da?
- b) Eman grafiko batean agirian dituzun datu demografikoak.
- c) Txinako historiaren datu kronologiko nagusienak bildu, grafiko batean.
- d) Mongoliak eta mongoliarrek garrantzi handia izan dute Txinan: Bilatuho ote zenuke haietat azaldu hoberik? Gaur egun zer dago herri horretaz?
- e) Konpara itzazu Txinako kilometro karratuak eta populazio-kopuruak Estatu Batuetako kideko datuekin. Grafikoez baliu zaitzake horretarako.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zergatik testu-hasierako datuen zalantza edo iluntasuna?: "Badinudi luzaro (...) ingurutik gora pasatu gabe".
- b) Zeintzuk dira populazioaren ugaltzea laguntzen duten arazoak?
- c) Zeintzuk populazioa gutxitzen dutenak?
- d) "Peste-izurritea" aipatzen du testuak: Europan ezagutzen al duzu pare-korik: Noiz? Zeintzuk izan daitezke izurrite baten ondorioak?
- e) Noiz gertatu zen inaultza demografikoa munduan?
- f) Populazioaren hazkunderaz, nolako jarrerak ezagutu izan dira?
- g) Egungo Txinako gobernariak zein politika demografiko dute? Eztabaida erizpideak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XX. menderarte

Txina handiaren historia orokorrean askotan alde batera utzita geldi daitekeen arazo bat azaltzen da testu honetan: bertako minoria nazionalak. Txinako populazioaren ezaugarri nagusienak hauexek dira: biztanleriaren kopuru handia (munduko laurden bat), ezberdintasun etnikoak, maiz barne-migrazioak, etab. Testua, historian zehar bizi izandako arazo hauei buruz ari da.

"Badinudi Txinak ez duela inolako joerarik agertzen, bere burua ausoko herrietara bota eta etxean gaineska daukan biztanle-soberakina haletara isurtzeko; baina, hala ere, bada hor, Txina handian bertan, absortzio-mugimendu astiroko bat, orain mila-pare bat urte hasi sena eta hainbat eta hainbat talde etniko jadanik mapatik esabatu dituen. Txinan bertan, badira beste hirurogeiren bat milioi bertako jatorrisiko berrogeitamar 'gutxiengo nazionaletan' banatuak (Tai, Turko, Mongol, Miao-Yao, etab.) eta behinolako biztanleri modua isugarri ezberdina zela frogatsen dutenak. Yi edo Lolo herritarrei beren janskera nazionaletan egin ohi saizkien argaski ederrek ez dute ilusiotarako biderik eman behar. Bizitza modernoaren hertsapenak eta, zenbait eskualdetan, Han-dar inmi-granteen etorraldiak osoro aldatsen dute bizimodua. Kultur Iraultsaren gehiegikeriak, identitate etnikoaren edozein agerpen baztertzen zutenak, ehundaka urte luseetan jarraitutako asimilazio-politikaren bide beretik zihozen".

(M. CARTIER; C. MEUWESE, 1981)

Irakaskuntz Ertainetarako eskola-langaien autoreak dira M. Cartier eta C. Meuwese, eta "La Chine" tituluarekin oso liburuska erabilgarria argitara eman dute (1981) "Espace et Temps" deitu bilduman (Parise: Ed. Magnard). Komeni da eskolarako gisa honetako argitalpenak inguratzea.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n topatuko duzu hainbat berri, Txinari buruz: 336-276. orr. Zuzenkiago, datu hurbilagoak 339-340. orrialdeetan dauzkazu..

EGITEKOAK

- a) Egizu Txinako mapa, atlas historiko bat kontsultatuz: adieraz hiri nagusiak.
- b) Mapa berean ohar zaitetz Iparraldeaz, Ekialdeaz eta Hego-mendebaldeaz. Itxus ezazu non aurkitzen diren: Guangxi, Vigur (Xinjiang) eta Tibet. Hor kokatzen dira Txinako minoria nazional gehienak.
- c) Testuan izendatzen diren minoria nazionalen berri jasoz ezazu: Tai, Turko-Mongoliarrak, Miaw-Yaw, Yi, Lolo.
- d) Nortzuk dira testuan agertzen diren Han-darrak? "Han-dar inmigranteen etorriak oso ondo aldatzen dute bizimodua": Antzekorik gertatu ote da gure inguruetan?

ERANTZUTEKOAK

- a) Ongi uler, eta esplikatu, testuaren lehen zatia: "Badinudi... dituen".
- b) Txinako talde etnikoen absortzio-mugimendua, noiztik dator?
- c) Zenbatekoa da Txinako biztanleria? Zenbat milioi daude minorietan bantuta?
- d) Zeintzuk dira minoria hauen bizimodua aldatzen duten arazoak?
- e) Kultur Iraultza, noiz hasi zen? Nonk bultzatu zuen? Zeintzuk izan dira beraren helburu nagusiak?
- f) Mao-ren "Liburu Gorria"k bai al du zerikusirik Kultur Iraultzarekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1929

Nekazari txinar heldu baten gaztetako oroitzapenak deskribatzen dira testu honetan. XX. mendearan lehen hamarkadetan daude. Estructura sozial zaharkituak, eta bizimodu latz baten oihartzunak agertzen dira kontakizunean. Estructura sozial hauek eta potentzia atzeritarren jokabide politikoak izan dute, noski, zerikusirik goera honekin.

"Lin Ling-era etorri nintzenean esertxo ere gabe nengoen. Jateko txotrak ere saldu beharrean aurkitu nintzen Yuling-etik alde egingo banuen. 60 zilar-dolar eskatu behar izan niskion maileguan Li Yu-tse-ri. Hilero % 30 kobratzen zidan interesen interesekin. Gasaila garestia zen, interesak ere garestiak ziren; akuratutako idi-pareagatik 68 kin ordaindu beharra neukan. Urte osoan lan egin eta belar batzuk besterik ezin genuen jan. Urte osoan aritu ginen lastoa alearekin nahasten, gehiago iraban zezan. Hona etorri nintzenean, aita, ama, andrea eta bi anaia trikiagorekin etorri nintzen. Hilean hilean ordaintzen nion Li Yu-tse-ri. Iraultzak zor gustiak kendu zituenean, 1935ean, askeneko 30 zilar-dolar ez gainerako gustiak ordainduta neuzkan nik. Harro nago horregatik".

(MA HAI XIU, 1962) (51 urtekoa)

Jan Mirdal, soziologo suediarren obra batetik jaso da testua. Mirdal-ek, hainbat herrirekiko ikerlanak egin ditu. Mao-ren iraultza ondoko Txina ezagutzeko, herritxo txiki bat eta bertako bizilagunak aukeratu zituen, 1935az gero komunisten eskuetan zegoen iparraldeko eskualde batean. Bizilagunekin banan banan hitz egin ondoren, txosten irakurgarri bat idatzi zuen: "Rapport fran Kinesisk by" (1962).

Oro har, Txinaren albisteak "Historia/1"ean (80-84.orr.) eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n (336-376. orr.) aurki ditzakezu; baina, aro modernoaz zuzenagoko zerbait nahi balitz, ik. 359-375. orr.

EGITEKOAK

- a) Atlas historiko batean begira Txinako mapa bat eta ikus: a) Testuan agertzen diren toki geografikoak. b) Laborantzarako eskualde garrantzitsuenak.
- b) Jaso Txinako laborantzari buruzko informazioa.
- c) Bila testuak azken aldean izendatzen duen Inaultzaren berri. Zein Inaultza da, eta haren lehenengo erabakiak zeintzuk izan ziren?
- d) Hitz egizu zure herriko nekazari batekin: nolakoak ziren garai batean, eta orain, baserritarren lanak. Testuko nekazariaren problema beretsuak ote zituen?
- e) Zer da "Kin" a: begira ezazu entziklopedia batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Labur ezazu testuaren esanahia.
- b) Zergatik gertatzen dira migrazio-mugimenduak?
- c) Nola definituko litzateke nekazariaren eta Li Yu-tse-ren arteko erlazioa?
- d) Nola eramaten dira maileguak? Nola ikusten dituzu hemen agertzen diren baldintzak?
- e) Zertarako erabiltzen da lastoa, eta alea?
- f) Zer deritza nekazariak egoera hari?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XX. menderarte

Indiako estruktura sozialaren konplexutasunean, kasta-sistemak egonkortasun bat suposatu du. K.a. 1500-1000. urte inguruan ariar populazioak eraikitako gizarte-estruktura horrek XX. menderaino izan du bere iraupena. Legez, 1947ko Konstituzioan indargabetu zen sistema hau, nahiz eta nekazal lurraldeetan oraindik mantendu. Testu historiografiko honetan, horren berri ematen da.

"Taldeok negatiboki definitzen dituzten debeku garrantzitsueta-tik aparte, kastak definitzen ditu, eskontzari, zerimonei eta eguneroko bizitzari buruzko ohiturak. Alorrik gehienetan parte hartzen du kastak, eta bere marka ezartzen dio alor bakoitzari.

Kastak ezartzen dituen betebeharrak santziopean egoten dira, eta hauetan larriena laguna iraitzeraino ailega daiteke; eskomiku-antzekoa da hau, ze zahutasunari eta likistasunari erosten zaion balio erlijiosoak oinarritzen du segregazioaren nozioa, eta hortik sortzen dira kastetako araurik gehienak.

Erdi Arotik hona, bost lagunez osatutako kontseiluak izaten ziren ('panchayat'ak) espazioaren hedaduraz arduratu eta kasta-barruan berriro integrazeko posibilitateak astertzeko eskubidea zutenak. Baina printzerri trikietan, erregea izaten da 'hierarkia sozialaren defendatzailea' eta hari tokatzen zaio askotan bere jatortasuna gordetzea.

Kastaren justifikaziorik nagusiena egongo litzateke, agian, berorrek adierazten duen batasun sozialean, zeina, korporazio bat bailitzan, gizabanakoaren ordeztartzen bait da, horri organizazio korporatiboak dituen abantaila guztiak segurtatzeko".

(M.-S. RENO, 1975)

M.S. Renou: Ikasketa Gorenetarako Eskola Praktikoan diplomatu zen historilari hau. Historia aztertzeko era global baten eredia daukagu zati labur honetan. Sarritan "urruti" gelditzen zaigun zibilizazioaz ari bada ere, kasten problema hau arazo ezagunenetakoa da, Indiakoan artean.

Indiari buruz lehen berriak jaso ahal izateko, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 377-396. orr. Herriei eta kastei buruzkoak jakiteko, ik. 379 eta 383-386. orr.

EGJTEKOAK

- a) Jaso hizlegiaren batetik kontzeptu hauei buruzko argibideak: Kasta, panchayat, korporazio, organizazio korporatiboa, eskomikoa.
- b) Inon baino indar gehiago du kasta-sistemak Indian; hala ere, antzekorik ez al da beste inon? Egipton edo Grezian?
- c) Erdi Aroko estruktura sozialean, Mendebaldeko feudalismoan, zein izan daiteke antzeko gizarte-estruktura?
- d) Informa zaituz Indiako erlijioez. Nolako eragina du erlijioak estruktura sozialaren antolamenduan?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer da kasta? Zerk bereizten du?
- b) Zeintzuk dira Indiako lau kasta garrantzitsuenak?
- c) Pertsona guztiak kastetan banatuta al daude? Bai al dago kasta gabekorik? Nontzuk dira? Nola tratatuak?
- d) Nolako eragin soziala du kastak?
- e) Zer esan nahi du esaera honek: "Erregea izaten da hierarkia sozialaren defendatzailea". Zer da "hierarkia soziala"?
- f) Zer iruditzen zaizu kasta-sistema? Eta Mendebaldeko klase-banaketaz, zer esango zenuke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu honek, kultura indiarren sektore garrantzitsuenetariko batez ematen dizkigu berriak: erlijioaz ari da, kasu honetan hinduismoaz. Mugimendu erlijioso hau da Indiaren aurpegi eta historia kulturalak ongien definitzen dituen, nahiz eta Budismoa ere han jaioa izan eta azpikontinente honetan Islama ere oso bertakoa gertatu.

"Zer da erlijio hindua? Guk 'sanatan dharma', betiko erlijio deitzen duguna? Hindu esaten saio, nazio hinduak gorde izan duela-ko bakarrik; lur sagaratu eta zahar honetan ariar arrazari emana izan sitsaiolako, eta arraza hau izan delako mendeetan zehar erlijio hori saintseko ardura zuena. Baira erlijio hau ez dago herrialde batera murriztua; ez da partikularrean eta betiko munduko parte mugatu batena. Guk erlijio hindua deitzen duguna, betiereko erlijioa da benetan, unibertsala bait da eta beste erlijio gustiak besarkatzen dituena".

(A. GHOSE)

Aurobindo Ghose, idazle indiarra dugu, eta Indiaren Independentzi urteetan ari da idazten, nolabait ere Indiako mezuaren unibertsaltasuna defendatuz. Mendebaldeak kristautasuna nonnahira zabaldu duenean, Hinduismoa erlijio unibertsal bezala aurkeztu du, pasarte honetan, Ghose-k.

Indiaz jaso ditzakezun lehen albisteak, "Mendez Mendeko Aro Garaikidean" dauzkazu: 377-396. orr. Era mugatuagoan, hango fenomeno erlijiosoa ezagutzeko ikus 381-383. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egin Hinduismoaren mapa, inguruko erlijioak ere adieraziz.
- b) Munduko zibilizazio handiak, erlijioen batekin erlazionatuta daude: koka itzazu mapa batean.
- c) Jaso Hinduismoari buruzko informazioa: nongo erlijioa da? Zenbat eta nolako Jainkoak ditu? Nolako eragin soziala izan du? Nolako errituak ditu? Azalpen bat egin ikasgelan. Informa zaitetz, erreforma edo erreakzio bezala, beste erlijionik sortu den testukoaren inguruan.
- d) Bereiz itzazu argi eta garbi kontzeptu hauek: Hinduismoa, nazio hindua, hindu, arraza ariarra.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer deritzazu autoneak dioenaz? Nola laburtuko zenuke?
- b) Hinduismoari buruz, nolako kontzeptziva agertzen da? Zein da Hinduismoaren helburua?
- c) Erlijioak bai al du aski indar pertsonen bizitza antolatzeko? Nola?
- d) Unibertsaltasun hori, erlijio gehienek ezaugarria da. Zer esan nahi du unibertsaltasun horrek? Zuk ezagutzen duzun erlijioak bai al ditu, testukoak dituen ezaugarriak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1630

XVII. mendean, Indian gertatutako gosete baten informazioa eskaintzen digu G. Etienne-k. Nekazal iraultzaren aurretik, laborantzaren klimarekiko menpekotasuna nabaria da. Teknika ezaski haiek ezin zieten gaina hartu izadiaren indar itsuei. Egoera hartan honelako gosetea urteoroko arriskua zen.

"1630ean, hilabete luzeetan zehar, Gujerat-en eta Dekkan-en, montzoiak aurretik etorri ohi diren hodeiek ez dute lehertu nahi izan, zerua ilun dago, euririk ez dator. Nekazariak beren gordekin urriak zahutzen dituzte eta heriotza hasten da joka. Hurrengo urtean, itsuraz joria dator usta, baina matxinsaltoek eta arratoiek erasotzen diete laboreei. Hurrena, Gujerat-en, traganarruak hain dira gogorak, zeren ustaren enparadua trikituta uzten bait dute dena; bitartean kiskal-kiskal egina dago lurra Dekkan-en, lehorte luze bat dela medio. Orduan gurasoek beren umeak saltzen hasten dira. Nekazariak ale bila ateratzen dira beren herrisketatik kanpora; kaminoak eta bideak, indarrak ahitu eta lurreko hautsetan erori diren jendez ereinda daude. Aurreneko urtean, hala diote kronikek, pobreak hiltzen dira batez ere. Hurrengoan aberatsak ere gose dira. Belarra eta zakurrak jaten dira. Batzuk, gelditzen zaien irin apurrari irawn erazteko gorputzilen hezurrez egindako hautsa nahasten diote. Azkenik goseak garbitzen ez dituenak, izurriteak galtzen ditu. 1631ko urtarriletik urrira bitartean, 3 milioi pertsona hil ziren Gujerat-en eta milioi bat, ekialderago, Ahmednagar-eko eskualdean". (G. ETIENNE, 1974)

Europarrak, XIV.aren azkenean hara iritsi zirenetik, beti interesatu izan dira Indiako gizarte erraldoi hartaz. Batez ere, XVIII. mendetik hona areagotu egin da interes hori. Agiri honetan E. Etienne-k Indiaren historiako pasarte gogor bat gogorarazten digu, bere "Les chances de l'Inde" obran (Paris: Seuil).

Beste inon gutxitan bezala, Indiako goseteak eta uztak bertako klimaren aldatzei lotuta daude: ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 377-378. Ik., gainera, 389, 393-396. orr.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko batean oinarrituta, egizu Indiaren mapa bat. Koka itzazu berian, testuan agertzen diren alpermen geografikoak: Gujerat, Dekhan, Ahmednagar.
- b) Geografi libururen bat kontsultatuz, informu zaituz montzoiaren eraginaz. Zer dira? Nolako klima sortzen dute?
- c) Natur zientzietako libururen laguntzaz, ikus nolako jaten behar duten testuan agertzen diren abereak.
- d) Galde zure guraso edo aitona-amonai ia goserik ezagutu duten. Noiz, zergatik, nola konpondu ziren?
- e) Zeintzuk dira klimaren baldintzapean dagoen laborantza mugak? Noiz gainditzen da mugatasun hori, eta nola?

ERANTZUTEKOAK

- a) Testua ongi irakurri ondoren, labur dena eskema honekin: Gosetearen arazoak, ondorioak eta nekazaritza erreakzioa.
- b) Eragin berdina al du goseteak pobre eta aberatsengan? Zergatik?
- c) Zein zeriak dute goseteak eta izurriteak?
- d) Eta aurzeko bi ezbehar horiek, populazioaren bilakaeran? Zergatik?
- e) Aldeak ugariak direnean, zer gertatzen da demografiari? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1951

Abertzale hindutarrei buruzko gogoeta bat da hau. Herrialde kolonizatuena abertzaletasunaren sorrera ulertzeko, kolonialismoaren zamaren gogorra ezagutu behar da lehenengo. Kasu batzuetan, nazionalismoak burgesiaren interesak babesteko balio izan du; beste batzuetan, nekazal eta langile-mugimenduekin bat etorri da, eta holakoetan, nazionalismoaren eta sozialismoaren arteko sintesi bat oratu da.

"Abertzaletasunak eragiten zigun. Lehen batean fede bisi-bisi bat zen zaletasun hori, ia erlijiosoa, gure herrialdearen eta gure nazioaren bigarren etorreran genuen sineste sutsua, ezerk hautsi ez zezakeen konbentsimendu bat. Bagenekien, errukarria zela gure oraingo egoera: herri behartsua zen gurea, aspiratua eta zapaldua, eta heba-indua ere basegoen zenbait ikuspegitan; baina gu herri handia izanak ginen behinola, eta handiagoak izatekoak etorkizunean... Gaurdanik gure aberriari laguntzen eman behar genuke gure bizitza, hari bere lehengo handitasuna itsultzen. Gure fedeak eta ahaleginek zer egiten duten, horixe izango da gure aberria...

Fede hau gure ispirituetan ainguratua zegoen, ikasten ari ginen kantu abertzale ugariaren bidez... Hauetako batek erreperika bat zuen, Kali jainkosa izugarriari guri laguntzera hots egiten ziona... Gogoan dut oraindik harako iluntze bat; klaseak ematera bidali gintuzten eta bueltakoan kantu ultra-hinduista hori kantatuz gertozen zintzurra betean, deiadarka, birrikak lehertu beharrean igaro ginen polizi koartelaren eta Kaliren tenpluaren aurretik, bata bestearen aldamenean zeuden biok kale nagusian eta. Bi ahots gaste eta garden haiek egundoko oihartzuna ematen zioten erregu-hots izugarri hari iluntzeko baketan. Ilun, beltza zegoen kalea, oso gaizki argitua, eta ezin zigun inork antzik eman".

(NC. CHAUDHURI, 1951)

Nirad C. Chaudhuri idazle indiarren hitzak dira hauek: Indiako historiaz eta etorkizunaz arduratu da Chaudhuri; honen bi liburu gogora genitzake: "The Autobiography of an Unknown Indian" (1951), eta "The Continent of Circe" (1967). Abertzaletasun orok izan ohi duen literaturaren barnean lekutu liteke Chaudhuri-ren lana.

Indiako abertzaletasuna hobeki ulertzeko, komeni da "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n begiratu bat ematea: 387-392. orrialdeetan daukazu India kolonialari buruzkoa, eta egungo arazo handienak ezagutzeko, ik. 393-396. orr. Hori dena, deskolonizazio-prozesuarekin lotzeko, ik. 485-490 (Afrika), 527-538, 559-571. orr.

EGGITEKOAK

- a) Ikus, atlas historiko batean, non eraki zen kolonialismoa Indian.
- b) Nazionalismo hindutarrari buruzko argibideak bila: noiz hasi zen? Zeintzuk izan dira lehen urratsak?
- c) Bila Kali Jainkosari buruzko informazioen bat. Zein erlijiotako jainkosa da?
- d) Abertzaletasunaren eta erlijioaren artean bai al dago erlaziorik? Nola ulertu edo esplikatuko zenuke arazo hori?

ERANTZUTEKOAK

- a) Nolakoak iruditzen zaizkizu testuek duten espresibitatea eta sentimendua? Nola sentitzen da abertzaletasuna lehen momentuan?
- b) Bi atal bereizten dira: labur itzazu, ideia garrantzitsuenak jasoz.
- c) Nola deskribatzen du bere herriaren egoera? Zeintzu izan daitezke egvora honen arrazoiak? Zer espero du gerorako?
- d) Polizi koartela aipatzen du: Nongo poliziak ute ziren?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Historia idatzirik gabeko herri hirugarren mundutarrek maizenik ez dute historiografia onik izan, artxiborik ez dutelako, kolonialismoak kontrako interesak zituelako eta, nolana ere, haien kultur mundua europarretik guztiz bestelakoa delako. Hala ere, etnografiak lagundu du herri haiek maitatzen.

"Twa, pigmeo-talde txiki bateko buruzagia da. Erreka-baster batean bizi dira Kongo-ko oihanean. Asko ikusitako agurea da. Hura bezalakorik ez da antilope harraren marrua imitatzen, emeak erakartzeko. Laxo hutsezinak egiten ere badaki. Baina Twa-k eta bere gizonek nahiago izaten dute txabalina, arkua eta gezi pozoituak erabili. Isil-isilik ibiliz, talde trikitan, atazean orduak eta orduak egin ondoren, gezikada batez botatzen dituzte basurdeak eta antilope nanoak, edo bestela bizirik harrapatzen dituzte beren sareetan. Zalantzarik gabe erasotsen diote elefanteari ere. Twa-k jaurtitzen du txabalina, bitartean lagunek zankabeak ebakitzen dizkiote animalia tsarrari; hau orduan zerraldo gelditzen da, sa-belean sartu dioten arpoinaren gainera erortzean.

Oihaneko Beltz handiei dagokienez, ehizaldiak antolatzen dituzte, Kongo ibaiaren hasialdian, animaliak uholdetik iheska dabiltsanean. Inguratsen ditustenean, denak hiltzen dituzte. Holakoetan sekulako jatazoak egiten ditu herriko jendeak. Normalean ez bait dute haragirik izaten, eta tarteka tarteka harrapatzen duten ehizi bakan batsurekin konformatsen dira. Ehizaketa handienak sabanen egiten dira, jendeak sastrakategietan sua egin ondoren, animaliak zoraturik ehizarien sareetan erortzen direnean".

(LAURENT)

Hirugarren Munduko iragana ezagutzeko, historilariak berearen ondoko barrutietan egin behar izaten du lan: ahozko herri-kontakizunetan edo etnografian, adibidez. Hona dakargun pasarte hau, zentzu horretan, etno-historikoa da, eta belaunaldiz belaunaldi herri pigmeoak izan dituen lanak erakusten dizkigu. Herri hauen kasuetan, ikerlan etnografikoak laguntzarik estimagarriena eman diete historilariari.

Herri primitiboen ogibide eta ofizioak nolakoak izan ohi diren ikus-
teko, ik. "Historia/1"eko 27. or.; 33. or. (Neolitoa); "Mendez Mende.
Aro Modernoa"n 46-47, 60, 71, 87-89 (Amerika); "Mendez Mende. Aro Garai-
kidea"n 404-407, 412-413, 432-434, 440. orr. (Afrika).

EGITEKOAK

- a) Bila, atlas batean, Kongoa eta Oihana Afrikako zein eskualdetan leku-
izen diren.
- b) Entziklopedia batean bila Pigmevei buruz aurki ditzakezun datu interes-
garrienak.
- c) Konpara Pigmeoen ehiza-teknika zure herri/hirian praktikatzen denarekin
(tresnak, armak, garaiak, etab.).
- d) Galde herriko ehiztari zaharren bati bere gaztarvan ezagutu zituen ehi-
za-motak nolakoak ziren: piztiak uxatzeko, jatena biltzeko, kirol gisa-
koa... Handik hona zer aldatu da?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik agiri honen izenburu hori: "Ehiza, lanbide noblea da"?
- b) Zein da ehizari buruz duzun eritzia, bai herrialde industrializatuei
dagokienez, bai herrialde atzeratutakoei buruz?
- c) Ezagutzen al duzu ekologistek ehizari buruz diotena?
- d) Nola laburtuko zenituzke ehiztarien eta ekologisten arteko eztabaidako
arrazoi teorikoak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko
lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35.
or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta,
denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala,
ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

-1.750.000
1959

Zinjantropoaz ari da dokumentu hau, Afrikan aurkitutako Australantropoaz alegia. Tanzaniako Zinj eskualdean agertua (Oldoway-en). Nahiz eta tximino itxura izan (garezur-kabiera 700 cm³, kopeta iheskarria, etab.), erabateko postura bertikala adierazten du eta "Homo habilis"en garaikidea omen da.

"Australantropo-mota bat da. Honen lehenengo aztarnak 1959an aurkitu zituen Dr. Leakey-k Oldoway-ko harroiletako jalkinetan (Tanzanian). Zinj esaten diote bertakoek eskualde horri, eta horrik datorkio izena. Gerakinak aurkitzen ziren, animalia hezur puskatuekin eta harri tailatusko zergazua batzurekin batera (choppers), haiek osatzen bait dute industria oldoway-tarra. Kopeta iheskarria zuen zinjanthropoak eta garezur-kabiera 700 cm³ ingurukoa. Aurpegi bete eta luzeak, sudur-zuloaren sabalerak eta begizuloen arteko banankerak trimino-itxura ematen zioten. Baina haren atse-garezurraren egitura gizakiarena da osoro eta erabateko postura bertikala adierazten du. Forma sendo hau, potasio-argon-metodoarekin 1.750.000 urtetan datatzen dena, Oldoway-koa da eta Homo habilis-aren garaikidea. Zalantzarik gabe, hori ez da aurkitzen zuzenean gaurko gizakira datorren lerroan". (M. BRÉZILLON, 1969)

Michel Brézillon, Pariseko Sorbonako irakaslea da, eta, beste bere lanen artean, badu kontsulta-liburu bezala oso erabilgarria den bat: "Dictionnaire de la Préhistoire" (Paris, 1969). Autore honen lana bere maisu A. Leroi-Gourhan (j. 1911) irakaslearen inguruan egina da. Frantziako Arkeologiaren ikusmoldea azaltzen du pasarte honek, artearen tekniken ezagupidetik paleolitotarren eboluzio sozio-psikikoetara iraganez.

Gizakiaren sorreraz ik. "Historia/1"eko 13-17. orr. Amerikakoaz ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 44-46. orr., eta Afrikakoaz ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 400-401, 408-413. orr.

EGITEKOAK

- a) Bila historiaurreko liburu batean Behe-Paleolito garaiko kultura ezberdinen izenak eta berezitasunak.
- b) Ahal baduzu, egin ikustaldi bat Euskal Herriko Museoren batera, eta begira Historiaurreko hondakinak.
- c) Aipa itzazu kultura acheuldarraren ezaugarriak.
- d) Begira liburuaren batean "chopper"en irudiak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer da "chopper" bat? Deskriba ezazu nolakoa den eta, ahal baduzu, marrazki baten bitartez esplika ezazu zertarako erabiltzen zen.
- b) Zertan datza potasio-argonaren metodoa?
- c) Zeintzuk dira "Homo Habilis"en berezitasunak? Zinjantropo honek dituen ezaugarriekin zein kideatasun ditu?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Madagaskar (Malagasy, malgatxeraz), Ozeano Indiko-ko irla handi bat da, kontinente afrikarretik gertu, Mozambique-ko itsasartearen tartean dela. Ekologia eta historiagatik, ezaugarri bitxiak ditu irla honek. Egun, Madagaskar-ek 8'2 milioi biztanle ditu. Biztanleria hau desberdinki banatua dago, eta zenbait etniak osatzen du. Bi hizkuntza ofizial onartzen dira Madagaskarren: Malgatxera eta frantsesa.

"Ozeano Indikoan isolaturik, Mozambique-ren parean, aparteko mundua eta jatgorria ondo ezagutzen ez dena da Madagaskar. Hedaduraz (587.041 km²) munduko hirugarren irlarik handiena da, eta biztanleria eskasa (7 milioi biztanle) eta konposatua (hamazortzi etnia ofizialki zentsatuak) ditu bere lurreen. Ehundaka urteetako nahasturak eta barne-migrazioek benetako biztanleria afro-asiatiko bat sortu dute. Nahastura honetan, jatorri malaio-polinesiarreko hizkuntzak adierazten duenez, Ekialde Urruneko aportazioa nagusitu zaie berriagoak diren beste aportazio afrikar eta arabiarretuei. Atzerriar gutxiengoa indiarra (musulmana), Comoretarra, txinarra eta europarrak, kopuruz urriak diren arren, garrantzizkoak dira ekonomi aldetik.

Madagaskar beti egon da bere irla-isateak bisiro markatua. Natura bera, landareak eta mineralak, espezie bereziz osatuak daude han zati handi batean. Afrika kontinentalean eta Asian ez bezala han ez da aurkitzen basapistik, ez suge poizintsurik. Ostera, era guztietako lemuridoak aurkitzen ziren lehen basoan, honek irla osoa estaltzen bait zuen garai hartan; horietako handienak, eta *oepeyornis*-a (txori erraldoia, hegalgabea eta sortzi litroko arrautza egiten zuena), haratu ziren lehenengo gizakiek ondatu zituzten agian.

Ekumeneko izostugabeko lurralde handietan kontinente malgatxera izan zen, antza, asken jendeztatu sena. Aurregisakiaren seaska izan diren Afrika eta Asiaren artean, gaurdaino Madagaskar-ek ez du Historiaurrearen arrasto garbirik eman". (H. DESCHAMPS, 1974)

H. Deschamps, Pariseko Giza Zientzien Fakultateko irakaslea da, eta Madagaskar-eko historiari arduratu da batipat, 1960tik hona hainbat lan argitara emanez. Madagaskar-en historia orokor bat ere badu: "Histoire de Madagascar" (Paris, 1965. 3. ed.).

Madagaskar, kontinentearen ondoan, bestelako mundu bat izan da. Hala ere, Afrikako testuinguru etniko-kulturalean ulertzeko, interesgarria izango da kontinenteaz zerbait jakitea: ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 408-415. orr.

EGJTEKOAK

- a) Madagaskar irlako lau mapa txiki egin: 1) Lehenengo, mapa fisikoa. 2) Bigarren, giza geografiazkoa. 3) Hirugarren, mapa ekonomikoa. 4) Azkenik, mapa klimatikoa.
- b) Saia zaitetz Madagaskar-eko irlaren historia laburtzen. (Eskema moduan egin dezakezu, aipatzeakoak diren gertakari historikoak ardatz kronologiko batean ipiniz).
- c) Ahalegin zaitetz irlako sistema politikoaz eta dituen kanpo-harremenez berri gehiago biltzen.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik esaten da Madagaskar aparteko mundua dela, eta jatorri ez-ezagunekoa dela?
- b) Madagaskar-eko biztanleria hamazortzi etnia diferentez osatua dago. Herri baten garapenerako positiboa ala negatiboa da hau, zure ustez?
- c) Nahastura handiko biztanleria honetan Ekialde Urunekeo ekarria da nagusi. Nola esplikatuko zenuke hain urrutitik etorri zen jende horren emigrazioa?
- d) Antza denez, atzerritar gutxi batzuk, kopuruz bertakoak baino urriagoak izan arren, garrantzizkoagoak dira ekonomi aldetik. Nola gerta daiteke horlako banaketa?
- e) Madagaskar-eko ingurune ekologikoa, nahikoa berezia omen da. Zertan nabari daiteke hau?
- f) Nola eta noraino eragin dezake irlatasunak herri eta kultura baten nor-tasuna?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1885-1914

Oro har, XIX. menderarte, kostaldeko lur-zirrinda estu bat ezik, europarrentzat Afrika kontinente ezezaguna bazen ere, mende horren azkenaldian arazo sozio-ekonomikoengatik eta zientzilarien jakin-minagatik ezagumendu berriak lortu ziren kontinente beltzaz. Geroztik, zientziaren garapenak, ikerlan berriak bultzatu zituen. Testu honetan, mende honetako ikertzaile baten interpretazioa jasotzen da.

"Orduraino, (garai Levallois-Moustiertarreraino: 100.000) badi-rudi industriak Europatik Afrikara eta handik hona zirkulatu zutela, ze bi kontinenteetan fazie beretsuak aurkitzen bait dira, eta honek elkarren artean komunikaturik egotea eskatzen du. Mediterraneoko uren haztea, Europako kontinenteko klima berotzearen ondorioa izan zen, eta geologoek 'transgresio flandriarra' deitzen dutenak, moztuko zituen joan-etorriak Europaren eta Afrikaren artean. (...)

Industria 'Levallois-Moustiertarrak' Neanderthaleko gizonari egosten zaiskio; hau, berriz, Goi-Paleolitoaren hasieran desagertu zen Europatik, Cro-Magnon-gizakiari Leku emateko; baina badirudi geroago arte ere iraun zuela Ipar Afrikan, Saharan batipat, nahiz eta horren hondakinik bat ere argiratu izan ez". (H. LHOTE)

H. Lhote, frantses azterlari eta etnologoa zen (1903). 1928az geroztik Afrikako Ipar eta Ipar-mendebaldeetara espedizio ugari egin zituen, eta ikerketa etnologiko-antropologikoak eta prehistorikoak burutu zituen. Sahararen historiaz arduratu da, eta hango tuareg herrien eta Tasili-ko pintura aurkituen berri eman digu, batez ere.

Gizadiaren sorrera, lehen gizakiak eta lehen kulturak "Historia/1" liburuko 12-26 orrialdeetan ikus ditzakezu. Afrikari buruzko zehaztasunak, "Mendez Mende, Aro Garaikidea"n 409, 414, 416-423. orrialdeetan. Eta zientziaren aurrerapenak (geologiari dagozkionak) liburu bereko 135. orrialdean aurkituko dituzu.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko bat kontsultatuz, ziurtatu glaziazioetan Europako izotzak noraino heldu ziren.
- b) Testuan kontzeptu historiko askoren aipuak datoz; gogora ezazu batzuren esanahia: Levallois-Moustier, transgresio flandiarra, Neanderthal, Cro-Magnon, Goi-Paleolitoa, eta abar.
- c) Zer da Geologia eta noiz hasten da zientzia berrien garapena? Begira itzazu "Mendez Mende" biak, eta ikus zientzia geologikoaz zer esaten den.

ERANTZUTEKOAK

- a) Labur ezazu testuko ideia garrantzitsuenak.
- b) Zein arrazoitan oinarritzen da idazlea, Europa eta Afrika bat eginda egon zirela baieztatzeke?
- c) Nolakoak ziren testuan aipatzen diren garaiko industriak?
- d) Ezagutzen al duzu beste kulturaren baten izenik?
- e) Fidagarria inuditzen al zaizu hemen agertzen den teoria? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1837-1848

XIX. mendean, garrantzi handia izan zuen Afrikak kolonialismoaren historian. Potentzia europarrek interes nabariak zeuzkaten Afrikako kontinentean: Frantzia, Italia, Ingalaterra, Alemania, Holanda ziren interesatuenak. Interes hauetan, Ethiopia ez da salbuespen bat: eskualde haren esploratzaileen artean Abadia euskaldunak daude.

"Abadiatar euskaldunak, bi anaiak (Arno eta Antoni), Livingstone bera Afrikara baino zenbait urte lehenago iritsi ziren Ethiopiarra, bertako politikan ere parte hartuz. Antoni-ren jakitun-lana handia izan zen: 900 puntu geodesiko lekutu zituen Ethiopian, eta urte batzuk geroago (1873) 'Géodesie de la Haute Ethiopie' argitara eman.

Ondoko urtean (1837) Ethiopia-ra doa Antoni. Han aurkitzen du Arno bere anaia, hura aitsinean joanda bait zen, bidearen egiteko bezala.

Agintzeko egina da Arno. Ethiopiako politikan sartzen da erdiz erdi; gerran ere parte hartzen du. Buruzagi egiten dute hango buruzagiek. Gudu handi bat irabasten dute eta, horren ohoretan, 'Ras Mikael' deituko dute: esan nahi bait da, 'Mixel Printzea' (aitak bezala Arno-Mixel bait zuen izena). Oso bestelakoa da Antoni: Borroka ez du maite. (...). Bestalde, ez da hain politikaria. Jakintza baizik ez du maite: geografia, astronomia eta lekuko hizkuntzei lotzen da errotik. (...).

Zer nahi gisas, elkar osotsen eta laguntzen dute bi anaiak. Bere ikerlanetan, Arnoz ederki baliatzen da Antoni jakintsua. Biak Ethiopiako Negus edo errege den Menelik handiaren aliskide dira. Bakoitzak bere gisan laguntzen dute, Ethiopiaren batasunaren alde, baita ingeles eta italiarren hatsaparretatik gordetzeko. Horri esker, ondasun ederrak ekartzen dituzte Ethiopiatik: Antoni-ri probetxuskoak gertatuko zaizkio, jakintsaren eta euskalduntasunaren onetan".

(J.L. DAVANT. Moldatua)

J.L. Davant, zuberotarra da, eta euskaltzain osoa. Euskaraz, euskal historiaz eta politikaz arduratu da berezikiago. Euskaltzaindiko bere sarrera-hitzaldian Antoni Abadiaren biografia eta beronen euskal lanen azterketa hartu zuen gaitzat. Hitzaldi hartatik hartu dugu, honako moldatuta, pasarte hau.

Afrikako kolonizazioaz, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ik. 80-81. orr. Lot hori Afrikaren banakuntza europarrarekin, 114-119. orr., eta Eusko Pizkundearekin, 216-221. orr.

EGJTEKOAK

- a) Idatz 19.eko Ethiopiaren historia: sintesi bat egin.
- b) Afrikako kolonizazio-prozesuaren eskema egin.
- c) Ethiopia lurraldean, nortzuk dira interesik handienak dituztenak? Zergatik?
- d) Gaur egungo Ethiopiaren ezaugarriak: Bila prentsan azken urte hauetan hango egoeraz agertzen diren albisteak: sozialak, ekonomikoak, politikoak.
- e) Bi anaien gusto eta ardurak ezberdinak elkar osagai gertatu ziren. Esplika ezazu fenomeno hau, eta ondorio orokorrak atera, zure eritzia ematea ahaztu gabe.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer da puntu geodesiko bat? Euskal Herrian puntu geodesikoak non kokatzen dira? Zertarako balio dute?
- b) Nor izan zen Hailé Selassié?
- c) Zein motatako probetxua atera zuen Antoni Abadiak?
- d) Livingstone jauna aipatzen da testuan, noiz eta non esaten da esaldi famatu hura: "Livingstone Doktoorea, antza".
- e) Antoni Abadia, euskaltzalea izan zen: Zer egin zuen hizkuntzaren alde?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

I-XV. mend.

Sarriegi pentsatu izan da kanpoko harremanetara guztiz itxita egon izan dela Afrika. Basil Davidson-en testu honek bestelakorik dio. Dena den, Afrika, kontinente oso bat da, ez kostalde estu bat soilik, eta afrikarren arrotzekiko harreman haiek kontinentean noraino iritsi ziren jakiteak badu interes historikorik.

"Afrikako urre gustia ez zen joaten iparraldera basamortuan zehar, edo mendebaldeko Atlantikoko kostaldera. Handik oso urruti, Ekialdean ere bazen beste Estatu-sistema handi bat, elkarrekin loturik zeduen Estatu ez osatua eta urre-eskeari esker hazi eta loratu zena, nahiz eta loraldi horren arrasoia urrea bakarrik izan ez. Arabia eta Indiako merkatariak, gaur egun Somalia, Kenya eta Tanzania deitzen diren kostean ainguratsen zituzten beren itsasontziak, urrea, bolia, burdina, dortoka-oskolak eta esklabuak garraiatzeko. Eki kostaldeko komertzio hau ere oso antigoaleko denboratan hasia zen. II. edo III. mendeko idazle anonimo batek itsasgizonen gidaliburu bat argitaratu zuen, grekoz idatzia, eta bertan Itsaso Gorri eta Ozeano Indikoko kostaldeetako gorabeherak edesten ditu, hegoaldera gaur egun Tanzania deitzen den lekuetara. Eta hala dio autoreak: Baster hauetatik boli asko ateratsen da, eta errinozeronte-adarrak eta dortoka-oskolak ere bai.

Gerora mendeetan zehar, merkatari musulmanen eraginari esker zabaldu zen, batipat, merkatalgo hau". (B. DAVIDSON)

Basil Davidson, britainiar historialaria da (1914), afrikazalea. Ghana-ko Unibertsitatean irakasle izan da. Afrika Beltzaren historia orokorraren ikasgura handia erakutsi du, eta eurozentrismoaren kontra agertu da. Bere lanetan, antzinako Afrika, esklabu afrikarren merkatalgoa, Afrika berria, etab. dira ikutu dituen gaiak.

Afrikari buruzko informazioa zabaldu nahi baduzu, "Mendez Mende, Aro Garaikidea"n ikus 398-490. orrialdeetan seigarren gaia. Irakur, batez ere, 398-430. orrialdeak.

EGJTEKOAK

- a) Egin Afrikako mapa bat: adieraz bertan Somalia, Kenya, Tanzania. Jarri muga geografikoak: Itsaso Gorria, Ozeano Indikoa, Atlantikoa eta abar.
- b) Antzinatean, Afrikan, Ghana eta Sudan-en ateratzen zen urrea. Gaur egun non kokatzen da urre-produkzioa? Eman datuak mapan.
- c) Puntu horietatik abiatuz, zeintzuk izan zitezkeen merkatal bideak?
- d) Bila urrearen historiari buruzko informazioa: eman lauki batean unerik aipagarriena.
- e) Mendebalde-Ekialdeen arteko merkatalgva biziki bizkortu zen Itsaso Gorria Mediterraneoarekin elkartu zenean. Noiz gertatu zen horrelakorik?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk ziren Afrikako urrearen merkatal irteerak?
- b) Ekialdean ere Estatu-sistema handi bat bazela esaten duenean, zertaz ari da autoreak?
- c) Zeintzuk dira testuan agertzen diren produktuak, eta zertarako erabili ote ziren?
- d) Zein mendetan jarri behar da Ekialdeko Estatuaren luraldia?
- e) Ekialdeko Estatuak zerekin trukatzen zuten urrea?
- f) Zein garaitan kokatzen duzu merkataria musulmanen eragina?
- g) Labur itzazu testuko ideia garrantzitsuenak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA
KULTURA

XX. menderarte

Afrikarren artean lanbide bat ez da arazo ekonomiko hutsa: honen bidez, izpiritu eta jainkoekin harremanetan jartzen bait da, gainera, eta izadi osoa alda bait daiteke, jainkoen indarra tarteko. Horregatik ekintza ekonomiko eta erlijiosoak oso loturik egon dira, eta eragin zuzena izan dute tributetako bizitza soziala eratzeko.

"Bialeke errementaria auso-lagun berezia da herrian, nekazarien artean pirka bat aparte bizi dena. Destainatu egiten dute, baina beldur diote beti ere. Destainatzen dute, jendearen ustez, lurrari mehatz aberastasunak kentzean, mantenua ematen duen lurrari irain egiten diolako. Eta beldur diote, metalgintzako eskutu beldurgarriak jainkoek beren arbasoei urrutiko herrialdetik etorri zirenean erakutsi ziskietenak, ezagutsen dituelako. Herriko jendearentzat suaren artea eta astikeria nahastu egiten dira elkarrekin.

Bialeke, erabiltzen dituen tekniken bidez, harreman zuzenean jartzen da indar natural eta misteriozkoekin. Errementariak beren familiarekin benetako lanbide-kasta bat osatsen dute, lanbide herriaren bizitzarako ezinbestekoa dena, hori gabe ez bait dago errementarik, ez gurdirik, ez ehizarako armarik. Baina errementariak asti-susmokoak dira. Herriko inork ez du eskondu eraziko bere alabarik Bialeke-ren semearekin, eta horren alaba Diaka-k ere ez du senarrik aurkituko herrian. Izpirituen kulturako gauzak ere egiten ditu Bialeke-k, mozorroak adibidez, kutun edo amuletoak eta zorionekarle diren kontaesin ahala 'gris-gris'ak". (LAURENT)

Animismo hitzaz ezagutzen da afrikarren jatorrizko erlijio-mota. Honen arabera, naturaren parte guztiek arima bat dute, eta hori kontutan harturik jokatu behar da. Afrikarren mundu erlijioso hori krisian dago gaur egun, erlijio unibertsal deituek eta bizimolde modernoek duten indarragatik.

"Mendez-Mende. Aro Garaikidea"n Afrikari buruz daukazan kapitulua nahikoa osoa duzu (ik. 397-490. orr.); baina pasarte batzuk zuzenago doaz, agiri honekin: 433-441, 477-484. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin tribu afrikar batean dauden lanbideen eskema, beraien sailkapen soziala, eta zehaztu bakoitzaren funtzioak.
- b) Esplika zer den animismoa.
- c) Animismoan inimizazio edo iraganbideko errituak daude. Tribu bakoitzean desberdinak dira. Ikus eta egin erritu horien zerrenda bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein ekintza ekonomiko nagusitan oinarritzen da afrikarren gizartea?
- b) Zer adierazi nahi da artistaek lanbide-kasta bat osatzen dutela esatean?
- c) Herriarrek zergatik ez dute kasta honetakoekin ezkondu nahi?
- d) Ikusten al duzu testu honetan animismoaren aztarnarik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1325-1349.1354

Ibn Battuta-k Europari eta bere ondoko mendeetako bidaiariei ondotxo ere aurrea hartu zien Afrikaren ezagumenduan. Niger ibaia Nilo-ren ardatzat eman zuen, eta gero ere, XIX. menderarte iraua zuen kasik Niger-en misterioak, Mungo Park eskoziarrak Niger-en Tunbuktuko ibai-ukondoa aurkitu zuen arte (1795-1806).

"Zagari-tik bideari heldu genion berriz ere ibai handiraino, Nilo-raino alegia (=Niger); ibaiertzean Karsaju-ko herria dago. Nilo-a (=Niger) Kabara aldera eta gero Zaga-ra jaisten da. Herri hauetan erregeka bana dago, Mali-ko erregearen menpean. Zaga-tarrak musulmanak dira aspaldidanik; beren erlijiozaletasunak interesarazi egiten ditu zientzia erlijiosoetan. Gero Nilo-ak (=Niger) bere bidea jarraitzen du Tunbuktu eta Kaw-Kaw (=Gao) hirietan zehar (hauetaz gero hitz egingo dugu) eta ondoren, 'limijjin'-tarren herrialdean, Muli herritik igarotzen da; hau da Mali-ren asken menpe-lurra. Gero Jufi-tik igarotzen da, (Mendebal Afrikako) Sudan-eko lurralderik handienetako bat, jauntsat errege handi bat duena. Zuriek ez daukate Jufi-n sartzerik, hara iritsi baino lehen hilko lituskete eta. Segidan Nubia aldera jaisten da ibaia; kristauak dira horko jendeak. Eta ondoren Dunkula-ra ere bai, hango hirietan handiena (...). Geroago erreka Janadil (Nilo-ko katartak) aldera jaisten da; horixe da beltzerriaren muga eta Assuan-a, Goi-Egyptoko lurraldearen hasiera". (IBN BATTUTA, 1304-1377)

Ibn Battuta, bidaiari eta geografo musulmana zen (1304-1377). Marokko-tik Meka-ra abiatu zen, erromes, hamalau urte geroago itzuliz. Ipar Afrika, Errusiako hegoaldea eta Asiako zati handi bat, Txinarainokoa, bisitatu ondoren. Bere bidai hauen kontakizunak idatzita utzi zituen.

Afrika-barneko esplorazioen historia piska bat ezagutzeko, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 77 (mapa), 80-81, 115, 446 (mapa), 452 (Tunbuktu), 455-460. orr. XV-XVI. mendeetako aurkikundeei buruz ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 180-190. orr. Bizpahiru mapa interesgarri daukazu hor: 182, 183 eta 188. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Afrikako mapa fisikoa. Nilo eta Niger ibaien kokalekuak aditzera eman.
- b) Huz Niger ibaiaren mapa bat; bil datu historiko eta geografikoak (luzera, ur-emia, ibai-erregimenak, etab.). Zerk esplikatuko luke Niger eta Nilo ibai bakartzat ematea.
- c) Aurreko mapa fisikoa baliatuz ea berrenaitzen duzun Ibn Battuta-ren bidaiari.
- d) Azaldu. eskema batean. Afrikako esplorazio-bideak (jarri bidaiari edo esploradorearen izena eta bidaiaren data).
- e) Saharako mapan adieraz karabana-bideak, garraiatzen ziren produktuek azalduz.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zenbat herri eta gobernu-era desberdin aipatzen da testu honetan?
- b) Zergatik zihvoazen arabiarrek Ertafrikako lurralde haietara?
- c) Inondik ere, arabiarren zibilizazioa beltzerriarena baino garatuagoa zen. Hau kontutun hartuta, nolakoa izun zen herri eta kultura desberdin haien elkar-topaketa.
- d) Ertafrikako komunitate haiek zuriak zein jenera hartu zuten? Eta zuriak haiekiko?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA
EKONOMIA

XIV. mend.

Agiri hau ulertu eta lantzeko komeni da kontzeptu eta hitz batzuk alde aurretik ezagutzea. Sudan: Mendebal Afrikako beltzen eskualdea (Mali ingurua). Sijilmasa: Saharako hiria. Alfakia: Jakitun musulmana. Tagaza: Tunbuktutik 800 km-tara dagoen hiri saharatarra. Iwalatan: Mauritaniako hegoaldeko hiria. Massufa: Oraingo Masduf tribu saharatarra izan liteke. Metikal: Urrezko moneta-neurri musulmana.

"Han (Fez hirian) gure jaunari baimena eskatu eta bideari ekin nion beltzen herrialdera (Mendebal Afrikako Sudan-era) joateko asmoz, eta Sijilmasa-ko hirira heldu nintzen. Hiririk dotoreenetakoa da hau eta datil mardul ugari dituena. Basora hiriaren antzekoa da honetan, baina hobeak dira Sijilmasa-ko datilak. 'Irar' izeneko motak ez du parekorik inon. Sijilmasa-n Abu M. Al-Busri alfakiak eman zidan ostatu, nik Txina-ko Qanyanfu-n aurkitutako haren anaia: Lekutan zeuden bata bestearengandik! Al-Busri honek adiguritsuenik tratatu ninduen.

Gameluak erosi nituen eta ederki batean gobernatu lau hilabete-tan. Gero bideari ekin nion (1352ko otsailaren 18an) Abu M. Yandakan al-Massufi-k --erruki dezala Jainkoak-- manatzen zuen karabana batean. Sijilmasa eta beste leku batzutako merkataria ugari ere baziren karabana horretan. Hogeitabost eguneko bidea egin ondoren Tagaza-ra iritsi ginen. Laborantzarik ez da auzo honetan eta bitartitasun bat dauka, alegia, etxeak eta meskitak gatzarri-kaskoz eginak daudela eta sabaiak gamelu-larraz estaliak. Lurzorua areatsua da eta arbolagabea. Bada han gatz-hobi bat, gatz-losa izugarriak, bata bestearen gainean, dituena, aurrena landu eta gero lurpean pilatu izan balituzte bezala. Gamelu batek ezin ditu horrelako bi gatz-losa besterik eraman.

Auzoan, Massufa-tarren esklabuak besterik ez da bizi; horiek gatz-hobian lan Sudan-etik datorren artatxirikiz mantentzen dira. Beltzak honaino etortzen ziren beren herritik artatxikia gatzarekin trukatzeko; produktu honen karga bat zortzi-hamar urre-metikaletan saltzen da Iwalatan-en, baina Mali-ko hirian hogeitamar eta berrogei metikaletaraino igotzen da. Beltzek gatsa erabiltzen dute diru bezala; urrea edo zilarra balitz bezalaxe, puskak egin eta horrekin negoziatzen dute. Hiriak garrantzi eskasa duen arren, urre-hautsezko kintal askoren balioko tratuak egiten dira Tagaza-n".

(IBN BATTUTA, 1304-1377)

Ibn Battuta, bidaiari eta geografo musulmana zen (1304-1377). Marokotik Meka-ra abiatu zen, erromes. Hamalau urte geroago itzuli zen. Ipar Afrika, Errusiako hegoaldea eta Asiako zati handi bat, Txinarainokoa, bisitatu ondoren. Bere bidai hauen kontakizunak idatzita utzi zituen.

Afrikako herrien azalpen etniko bat, "Mendez Mende. Aro Garaiki-dea"n, 410-415. Saharari buruz, hainbat langai daukazu: 401 (mapa), 415, 419 (mapa), 420-422, 427 (ekologia: mapa), 443 (gatza), 445 (mapak), 446-449, 451 (irudia), 455-458. orr.

EGJTEKOAK

- a) Afrikaren mapa batean Ibn Battutak aipatzen dituen hiriak eman, eta bidaia adieraz.
- b) Mapa berean adieraz, kolonez, nonaino zebaldu ziren musulmanen itzala eta erlijioa.
- c) Afrikako esplorazioen kronologia egingo ote zenuke?

ERANTZUTEKOAK

- a) Nolako nekazaritza eta abelazkuntza aurkitu zituen Ibn Battutak bere bidaiari?
- b) Aipa gonaiko merkatalgoan ageri diren salgaiak.
- c) Zergatik izan da gatza hain garrantzitsua Historian zehar?
- d) Esklabuak aipatzen dira agerian: Zeintzu ziren eta zeinen esklabu?
- e) Zein betekizun ote zuten hainbat esklabu horiek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 9. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XVI. mendeko testu honi ez zaio interesik falta: ordukoa delako, eta deskribatzen dituen eskualde afrikarrek zuten merkatal garrantziagatik. Afrika-kontinente barrua, ez zen lurralde hila, joan-etorri eta bizitza handikoa baizik: gizarte, hiri eta erreinuak zeuden han. Bide-sare luzeek barne-lotzen zuten Sahara.

"Hiri handia da Gao, Kabara-ren antzekoa, hau da, inguruan murririk ez duena. Hiria, Tumbuku-tik hego-ekialdera 650 bat kilometrotara dago. Etxerik gehienak itsusiak dira; hala ere, erregea eta honen gortea bizi direneko batzuk oso itsura dotorea dute. Bertako bistanleak, merkatari aberatsak dira, beren salgauekin etengabe lurraldean zehar ibiltzen direnak. Beltz-mordo handia etortzen da hirira urrea ekarris, eta horrekin Berberiatik eta Europatik inportaturiko artikulua erosten dituzte, baina urre gustia gastatzeko hainbat salgausarik ez bait da egoten, sarritan urrearen erdia edo heren bi atzera etxera eraman beharrean aurkitzen dira.

Hiria oso osasungarri da Tumbuku-ren aldean. Eurrez izaten da ogia eta haragia, baina ardorik eta frutarik ez. Ugari dira meloiak, pepinoak eta kui ederrak eta arros-pila handiak ere bai. Asko dira ur gezasko iturriak. Merkatu egunetan kontzesin ahala esklabu saltzen direneko leku bat ere bada. Hamabost urteko neska batek sei bat dukat balio izaten ditu eta mutil gaste batek ia horrenbeste; ume trikiak eta pertsona larriak kopuru horren erdia inguru balio izaten dute.

Erregeak jauregi berezi bat dauka aparte, emakume, ahaide eta emakume esklabuentsat, eta irenak ere bai emakume horiek zaintzeko karguarekin. Ezinbesteko goardia bat ere bada (...), saldisko eta oinezko soldaduz osatua; arkuz armaturik ibiltzen dira. Haren jauregiko ate publikoaren eta sarrera pribatuaren artean patio handi bat dago, murrus inguratua. Fatiaoaren alde banatara dauden galerietako bat erabiltzen da entsutegitarako. Arazo guztiak erregeak berak ihardukitzen eta despatzatsen dituen arren, funtzionarioak ere baditu laguntzeko, hala nola, idazkari, kontseilari, kapitain eta administrariak".

(LEON AFRIKARRA, c.1495-1550)

Leon Afrikarra, geografo granadarra zen (1495-1550). Musulmana, gero kristau egin zen Erroman; Tunisiara joan eta Islamera bihurtu zen ostera. Bidaia handiak eta ugariak egin zituen. Pizkundean sona handikoa izan zen Afrikari buruz eman zuen deskribapena, eta humanisten artean oso estimatua.

Saharari buruz, hainbat langai daukazu: 401 (mapa), 415-419 (mapa), 420-422, 427 (ekologia: mapa), 443 (gatza), 445 (mapak), 455-458. orr. Afrikako hirien irudirik nahi bazenu, ik. 418 (mapa: ipar kostaldekoak), 446-449, 450, 452, 460, 462-463, 484-485, 520-522. orr.

EGJTEKOAK

- a) Agirian azaltzen diren hiri- edo lekuizen guztiak mapa batean koka.
- b) Afrikako hiriek historia luzea dute: "Mendez Mendek Aro Garaikidea" liburuan baduzu hainbat puntu aipatuta. Komeniko da denari begiratu on bat ematea: egin mapa, irudi edo irakurgai hautatu baten iruzkina. Aukera gaia, irakaslearekin.

ERANTZUTEKOAK

- a) Gao-ren deskribapena irakurri, eta erantzun: bai al dago gaur egunean halako hiri eta kulturarik?
- b) Zein maila kulturaletan jarriko zenuke Gavren egoera sozio-ekonomikoa? Eman arrazoiak.
- c) Afrika saharatarretik zein produktu interesatzen zitzaion europarrei? Eta Sudan-aldetik? (Bai al dakizu "Sudan"ek zer esan nahi duen?)
- d) Eskualde honetan, zergatik dira musulmanak merkatalgoaren jain eta jabe?
- e) Non harrapatu edo erosten ziren esklabuak? Non eramaten zituzten?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

XVI. mend.

XVI. mendean europarrak, portugesez eta gaztelauak bereziki, mundu guztira zabaltzen hasi ziren. Urre eta espezia bila zihoazen, baina jakin-minez eta harrিতuta begiratu zituzten aurkitu eta ikustekoak. Dena den, kostaldea miatu zuten, barrualdea erabat ezkutuan geratzen zitzaizen bitartean. Mundu ezezagun haien aurrean, fantasiaz beteriko kontakizunak idatzi zituzten.

"Sofala-ko kostaren atzekaldean --baraldi bat egin nuen nik hor-- Monomotapa-ren ametsezko erreinua zabaltzen omen da. Ni neu portuan ibili nintzen pasian eta han nere begis ikusi nuen, kotoi eta zetengatik beren urrea trukatzera etorritako jendea. Gizon horietako batsuk lehoin-larruz jantzirik ibiltzen dira, eta larru hori, harro-harro, lurrean arrastaka eramaten dute beren duintasuna agertu asmoz. Merkatari surgatsak ere badira gerlari beldurgarriok. Nere aurrean esan zuten, barrualdera hogeitamar eguneko bidea eginda, bai omen da hiri handi bat, Zinbabue deitzen dutena, eta bertakoen hizkuntzan 'gorte' esan nahi omen duena. Erregearen bizilekua omen da, baina inongo atserritarrik ez omen da oraindik benturatu hara joaten. Hortik atera nuen, gotorlekuren bat izango zela, zementu eta mortero gabeko harri-puska izugarri egin. Murru horien barrualdean, erregeak sorrotz gordetsen omen ditu urrea urtsen dakitenen sekretuak; urrea ugari omen da herrialde honetan. Erregeak bizimodu fazatsua eramaten omen du, eta zerbitu ere belainiko egiten omen diote. Menpekoek jainko-troriak gurtzen omen dituzte; horiek dira gotorlekuaren zaintzaile sinbolikoak eta horien irudiak nonnahi aurkitzen dira harritan grabaturik".

(XVI. MENDEKO BIDAIARI BATEK)

XV-XVI. mendeek bidaiari abenturazale asko ezagutu zuten; egia da, ondoko mendeetarako Ozeania eta kontinente-barru handiak geratu zirela ezagutzeko; baina, zalantzarik gabe, bidaiari, konkistari eta misiolari asko lurralde eta herrien berriemaile bihurtu ziren.

Ikus "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 445-464. orrialdeetan Afrikako hiri eta erreinuen albisteak. Ez ahantz hor dituzula Monomotapari buruzko albiste batzuk: begira eta irakur 461-463. orrialdeak.

EGITEKOAK

- a) Har ezazu Afrikako mapa bat, eta koka bertan ezazu Monomotapa deituriko inperioa.
- b) Ikus Afrikan egon ziren beste inperioen lurraldeak.
- c) Egin Monomotapa deituriko inperioaren iruzkin kronologiko bat.
- d) Mapa kontutan harturik, ikus zein etniatako herrietan hedatzen zen inperio hori.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esango zenuke herri "bantu"ari buruz?
- b) Afrikako zein lurraldetara iritsi ziren europarrak 16. mendean?
- c) Zein helbururekin joan ziren europarrak Afrikara?
- d) Zer aurkitu zuten interesatzen zitzaizaienik?
- e) Noiz hasi ziren europarrak Afrika barrura sartzen?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1760

Hemen jasotzen dugun testu hau benetan berezia eta irakurgarria dugu: XVIII. mendean esklabu hartutako beltz baten memorietatik jasoa da. Jakina denez, 1750-1850etan esklabu-merkatalgoak leku handia izan zuen europarren ekonomian. Europa/Afrika/Amerika/Europa triangeluak osatzen zuen negozio honen nondik norakoa. Sare horretan erori zen Olaudah Equiano ere. Hona beraren oroitzapenak.

"Kostara heldu nintzenean nere begiek atzeman zuten lehenengo gausa izan zen, itsasoa eta karga zain ainguraturik zegoen esklabu-ontzi bat. Harriturik gelditu nintzen hura ikustean, eta harriturik ezese izuak jota ere bai, eta halako eran ze oraindik ere ezin bait ditut kontatu, neri, ontzira eraman nindutenean barrua nahastu zidaten sentimenduak. Bapatean marinel batzuek eskuztatu eta astindu egin ninduten sano nengoela ikusteko; ni etsita nengoan, izpiritu gaiztoen munduan sartu nintzela eta hil egingo nindutela eta. Gorpuzkera gurea ez bezalakoa zuten oso, ilea luzea eta hizkuntza ere hain... (...) Itsasontziari begiratu bat bota eta kobrezko galdara handia kea zeriola ikusi nuenean, (...) ez nuen gehiago nere zoribeltzaz dudarik izan, (...). Nere baitaratu nintzenean beltz batzuk aurkitu nituen nere inguruan. Eta galdetu ere nien, ea jan egin behar ote gintuzten gizon zuri haiek, beren itxura lasgarri, aurpegi gorri eta ile luzeekin".

(OLAUDAH EQUIANO, c. 1800)

Olaudah Equiano, Benin-en jaio zen, 1745aren inguruan, eta auzo bateko tribu-buruzagi baten semea zen. Arrebarekin jostatzen zebilela, esklabuzale batzuek bahitu eta esklabutzat saldu zuten. Ingelesa ikasi eta idaztera iritsi zen Olaudah. Honen oroitidatzietatik jasotzen dugu hau.

Esklabutzari buruzko langai asko daukazu "Historia/1" eta "Mendez Mende"n. Hasteko, agiritegi honen "Gidaliburua"n ik. ditzakezu beste kideko fitxen aipamenak (35. or.). "Historia/1"ean, 95, 97-99; 101. orr. (Grezia), 122, 142-143. orr. (Erroma), 173. or. (Islama). Baina esklabu-tratuaz zehazkiago: "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 188. or. (mapa), 205-206, 221-222 (indiarrekiko eztabaida), 225-226 (Latin Amerika); "Mendez-Mende. Aro Garaikidea"n, 273, 294-295 (EE.BB.), 313, 321 (Brasil), 328, 330 (Kuba), 405, 470-476. orr. (Afrika).

EGITEKOAK

- Esklabu merkatalgoaren historia: Fenomeno horren arrazoiak eta bere bilakaera 20. mende arte. (Balia zuitez hemen, goiko laukitxoan, eskaintzen diren aipuez).
- Eman, mapa batean, merkatalgoaren norabideak, untziek eraman ohi zituzten kargak adieraziz.
- Beltz-tratu honen ondorioz, Amerika eta Asian gertatu ziren mestizajeak adieraz, portzentaiak ere jasoz.
- Gaur egun gertatzen ari dena esklabu-merkatalgoaren pareko zerbait ez ote da: Herri (eskualde...) azpigaratuetatik biltzen dute lan-eskua industrialdeek... Eman mapa batean migrazio hauen nundik norakoa.

ERANTZUTEKOAK

- "Beren itxura lazgarri, aurpegi gorri eta ile luzekoa", dio idazleak. Inperio hwni buruz iruzkin labur bat eman.
- Mestizajearen gertatzen diren maila eta mota ezberdinei izen bitxiak ematen zaizkie. Aipa batzuk.
- Kultura bateko herriak ohitura jakin batzuk izan ohi ditu, eta beste tulde baten ohiturak askotan barrengarriak edo ulertezinak gertatzen zaizkio. Zer esango zenuke horretaz?
- "Untzira eraman nindutenean barrua nahastu zidaten sentimenduek", dio testuak. Zer gertatu zitzaion Olaudah-ri?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1630-1868

Japonian kristautasunak izan duen bilakaerarekiko datu batzuk aztertzen dira hemen. Zibilizazioetan beti izan du eragin handia erlijioak, erlijio-mugimenduak unibertsalista eta proselitista izatean, jatorrizko herrietatik beste hainbatetara pasa bait dira. XVII. mendean, Japoniak kristautasunaren aurrean atzera egin zuen, atzeritarrei atek itxiz. Politika hori izango da nagusi XIX. enaren erdialderarte; eta irekitasun-politika ere erabaki jakin baten ondorioz hartu zen (1868).

"1630erarte, 4.045etaraino igo zen beren sinesmenarengatik hildakoen kopurua. Azken gorakada Shimabara-ko altxamendukoan, 1637-38an, eman zuen pertsegizioak: 30.000 kristau hil zituzten bertan. Japonia gero eta gehiago itxi zen kanpo-munduarentzat, Espainia/Manila-rekiko harremanak 1624ean hautsi ziren, Portugalekikoak 1639an. Holandarrek bakarrik, eta haiek ere nahiko baldintza desohoreskotan, jarraitu ahal izan zuten komertzio apal bat 1854erarte Deshima-ko irlan. Horretarako lagundu zuten Shimabara-ko matrixada itotzen. Handik aurrera katakumba-bizitza eramatea beste erremediorik ez zuten izan kristauak Japonian, baina XIX. mendeararte iraun ahal izan zuen kristautasunak bizirik". (J. GLAZIK)

Hemen gogora dezagun Euskal Herriko misiolariak Japoniako kristauekin izan duten zerikusi historikoa: San Frantzisko Xabier da hango misiolari guztien aitzindaria. Beste euskaldun bat martiri izan zen han: Martin Igokundekoa. Ehundaka euskaldunek egin du lan Japonian: Candau, Arrupe, Berriz-eko Mesedetako mojak...

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n kapitulu oso bat daukazu Japoniari buruz: 492-504. orr. Testuinguru zabal horretan ulertu behar da agirian irakur dezakeguna, batez ere 493-496.etan daukazu daturik funtsezkoenak.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Japoniako mapa bat: adieraz bertan hiriburu garrantzitsuenak, eta testuan agertzen diren aipamen geografikoak: Shimabara, Deshima-ko irla.
- b) Jaso Japoniako hiru erlijio nazionalen berri: Budismoa, Konfuzianismoa eta Sintoismoa.
- c) Horiekin batera, Kristautasunak ere izan du garrantzia Japonian. Euskarri misiolari Santu batzuek egin zuten lan. Bila argibideak.
- d) Testuan agertzen diren gertaerak Tokugawatarren Shogunatoan gertatu ziren: eman lauki batean gertakari nagusienak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer iruditzen zaizu sinemenarengatik hiltzea? Kristautasuneari noiztik ezagutzen dituzu horrelako gertaerak?
- b) Nolako eragina izan lezake erlijioak zibilizazio baten bilakaeran? Japonian, zein erlijioak izan ote du pisurik handiena?
- c) Kristautasunaren betenahi bat unibertsaltasuna lortzea da: non oinarritzen da ideia hau?
- d) Japonian noiz hasi zen ebangelizatze-prozesua? Nori hasi zuen? Zuk ezaguna duzun norbait izan zen.
- e) Ebanjelizazioa, erlijioaz kanpoko beste fenomeno politiko-ekonomikoekin batera joan da, behin baino gehiagotan: horrelakorik ikusten al duzu Japoniako kasuan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Japoniako historian, badirudi mendeak eta mendeak igarotzen direla aldakuntza handirik gabe. 1850-1914 urteetan, ostera, Japonian gertatutako eraldakuntzak munduan aro garaikidean jazoriko harri-garrienetakoak dira. Iraultza Meijiarekin (1868), Japonia epealdi berri batean sartu zen. Geroztik, behin eta berriz munduko potentziarik boteretsuenetako bat bilakatu da Japonia.

"Meiji-a goitik beherako iraultza da, 'Herrialdea aberastu eta armada indartu' slogan txinarrean inspiratutako iraultza, eta Mendebaldeko aditu ugarien laguntzarekin Japonia erakunde modernoz hornitzea xedetsat duena. Erakundeen mailan, hainbat erreformak eraberritu zuen gizartea: sistema feudalaren ezabatzeak (1869), irakaskuntza orokorrak (1871), eta obligaziozko soldaduzka ezaritzeak (1873). Ekonomi aldetik, Estatuak finantzatutako garapen-politika askar batek esartzen ditu industrializazioaren oinarriak. Ikusgarriak dira ondorioak, bai ehungitzari dagokionez --zeta gordina eta kotoi-hariak--, eta bai industria astwiari dagokionetan. Ikatzaren produksioa 600.000 tonatatik (1875) 13 milioi tonatara igotzen da denbora gutxian (1905)". (J. DUPAQUIER, 1981)

J. Dupâquier, historilari frantsesa da, eta historiako testuliburu-
 en edo eskolako lan-liburu-
 en berrikuntza metodologiko on bat gidatu
 du, Frantziako Lizeoetako irakasle-multzoko batekin lantalde bat osatuz.
 "Espaces et Temps" bilduma zuzendu du, Historia, Geografia eta es-
 kola-liburuska monografikoak eskaini ditu (Islam, India, Afrika Beltza,
 etab.). Gaztelaniaz ere atera-berri den zenbait argitalpen lan hauetan
 oinarritu da.

Testu hau lantzeko, eskura daukazu langaiak: ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n orrialde sailtxo bat badaukazu Japoniari buruz: 492-504. orr. Iraultza Meijiak badu hor argibideren bat edo beste: 496-499. orr. Dena den, entziklopedia modernoetan hainbat langai topa zenezake.

EGJTEKOAK

- a) Bila, eta egin, Japoniako mapa bat. Eman bertan hiriburu eta hiri garrantzitsuenak.
- b) Mapa berean adieraz non garatzen diren industrialde handienak; ez ahaztz dokumentuan agertzen direnak.
- c) Hiztegi historiko batean begira "Meiji" hitzak zer esan nahi duen. Europar zeri deitu izan zaio horrelatsu?
- d) Dokumentuan ez dira agertzen baina komeni da, Japonia tradizionala ulertu ahal izateko, kontzeptu hauek aztertzea: shogun, shogunato, daimyo, samurai.
- e) Bila egunkari eta aldizkarietan Japoniari buruzko informazioak: Zer diote?
- f) Bila zure etxean Japonian egindako tresna eta produktuak? Bai al dago halakorik?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nola agertzen da testuan "Meiji"aren esanahia?
- b) Zergatik eta zertarako Mendebaldekoen laguntza? Lagungarri izango ote zen, gero? Ala kaltetarako?
- c) Zeintzuk dira aurrera eraman ziren eraldakuntzak?
- d) Eman eskema batean, Iraultza Meijiak ekarri zituen aldakuntzak: Politikan, gizartean, armadan, ekonomian, kulturean eta abarretan.
- e) Zein eritzi duzu egungo Japoniaz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1966-1981

Gizadi osoaren ekonomia ez bada ere, eskualde industrializatuen artekoa bederen, luditartu egin da, hau da, munduaren tamainara etorri da dagoeneko. Nazioarteko erakunde ekonomikoak eta estatuar-teko krisia ez daude munduko eskualde itxi batera bilduta: elkarren arteko dependentziak nabariki ageri zaizkio gaur eguneko gizakiari.

"Azkeneko hamabost urteotan krisian dago mundu-ekonomia. Baina benetan mundu gustikoa ahal dago krisian? Ea, ikus dezagun. Multinazionalak probetxugarri izan dute krisia. Multinazionalak egindako inbertsioen balioa % 15 hazi da urtero batezbeste 1973rarte, eta % 16 data horretatik hona (atzerriko filialen berrinbertsioak barne). Bolumentez, berriz, 1973tik aurrera % 3,6 hazi dira, herrialde garatuetako barne-inbertsioak % 1,9 urteko besterik hori ez diren bitartean. Multinazionalen kapital-metaketa biziagoa izan da krisi-bitartean naziobakarreko firmena baino. Hori, berriz, emankortasun hobearekin lotuta dago.

1966az gero (100eko indizea) beheraka dator Estatu Batuetan batezbesteko mozkin-tasa, aldiz atzerrian inbertitutako kapital amerikarra goraka: % 10, 1966an; % 16, 1973an; % 21, 1979an; % 14, 1981ean".

(V. ANDREFF)

1973tik aurrerako krisi ekonomikoaren orokortasuna zenbatekoa izan den eztabaidatzeko balio du testu honek: mundu-mailako erakundeek, beti ere erraztasun handiagoak aurki ditzakete, eskualde aurreratuetako krisiari aurre egiteko, askotan, noski, Hirugarren Mundukoan bizkar.

Ez da gaizki etorriko krisi ekonomikoaren arazoa neokolonialismoaren barnean ikustea: "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n, 560-571. orr. Gisa berean, begira 654-666. orr. pasarte horri bere testuinguru soziala emateko.

EGITEKOAK

- a) Testuan azaltzen diren datu guztiak grafikoko batean inudika.
- b) Grafikoko batean, edo hobeki mapa batean, eman munduko lehenengo hamar multinazionalen salmenten kopurua (dolarretan) eta Bangla Desh, Tanzania, Bolivia, Kuba, Polonia, Italia eta Marokko Estatuak urteko aukeratuak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Testuan garatzen den ideia nagusia azaldu.
- b) Multinazionalak, krisia gainditzeko hobeki antolatuta omen daude. Zergatik?
- c) Euskal Herrian multinazionalik bai al dugu? Eta bertoko enpresek katea honietara hurbiltzeko joerarik bai al dute?
- d) Nongoak dira, jatorriz, multinazional gehienak?
- e) Zergatik inbertitzen dute atzerrian?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XIX. mendeko Europa gainezka jendeztatua ikusita, lurralde huts bat bezala ageri zitzairen Australia europarrei: nolabait ere europarren gizarte berri baten promesa gisa hartu zuten hara irten zirenek. Hortik jaio zen Australia zuriaren politika demografikoa.

"Autogobernuden kolonia gustiek behar zituzten langileak; baina premia hori aldatu egiten zen ekonomiak zituen gora-beheren arabera; horregatik inmigrazioaren arazoa etengabeko estabidagai zen. Estabida horretan sartzen zen, berebat, zein pertsona eta zein ez ametitu behar zirelakoaren arazoa ere. Mendebal Kanadan eta Eki Afrikan egin behar ziren trenbideetarako Trinatik eta Indiatik eraman ziren peoiak. Fiji, Natal, Queensland eta Mendebal Indiatiko sail-jabeek Indiatik eta Polinesia-tik bildu zituzten langileak kontratu bidez. Jokabide honek estabida latzak sortu zituen autogobernuden kolonietan, ze bertako langile biziliarrak beldur ziren, asiarren etorrerak bizimaila eratsiko ez ote zien. Columbia britainiarrean eta Australasian erresumin bizia sortu zuen asiar eta polinesiarren eskusioak. Eta mankomunitate australiarra eratu bezain berehala, lege federalek neurriak hartu zituzten, Australiako populazio zuria segurtatzeko asmoz.

Asiarren eskusioari buruzko polemikak politika-alorrera bultzatu zituen langileak, eta federatuzera animatu Australiako koloniak. Legeria eraberdin bat behar zen, Australia arraza zuriaren kontinente bezala mantentzeko. Baina ez zen isan arraza-nagusitasunaren uestea, eta bai beren bizibideak babestu nahia, langile australiarrei inmigrazio-arazoan hain jarrera zorrotza har erazi ziena (...).

Frantses hizkuntzako kanadarrak eta beren hizkuntza propioan hits egiten zuten hego afrikarrak ederki batean jakin zuten britainiar-gisako gobernuaren instrumentuak erabiltzen".

(P. KNAPLUND)

Testu demo-historiko honetan, P. Knaplund-ek XIX-XX. mendeetako kolonialismoaren hautabide estabidagarrienetako baten aurrean jartzen gaitu: nork, noiz eta nola har ditzake lurralde "hutsak"? Eta norberak beretzat bakarrik hartu al ditzake, gainerako herrien eskubideak ukatuz? Arazo honetan Australiaren kasua jakingarrienetakoa dugu.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n bilduta dauzkazu Australiari buruzko albiste labur batzuk: ik. 505-512. Hor daukazun datuekin hainbat lan egin ditzakezu. Horren antzeko fenomenoak ez ote dira gertatu beste tokietan: EE.BB., Kanada, Argentina, eta abarretan? Kolonialismoarekin eta migrazioekin lotuta ikus liteke hemen autoreak darabilen gaia.

EGITEKOAK

- a) Adieraz, mapa batean, kolonia izandako lurraldeetako zeintzutan den nagusi populazio zuria, edo botere politikoa behintzat non gordetzen duten zuriek?
- b) Egin Australian mapa bat eta eman bertan zurien eta jatorrizko bertakotarren lurraldeak.
- c) Egin gauza bera 19. mendeko beste mapa batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Agiriaren funtsezko ideiak aipa.
- b) Australia zuriaren ideia eta xedeak nola definituko zenituzke?
- c) Nondik etorriko lirateke Australian inmigranteak, emigrazioa librea izango balitz?
- d) Eta, joan, joan zirenak nondik joan ziren?
- e) Konparatu Hego Afrikako egoera eta Australianena. Erakus aldeak eta kidetasunak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Energi iturrietako batek, petrolioak, gizartean duen eraginari buruz ari da hau. Bigarren industri iraultzak, lehen pausoak eman ondoren, bizkortze handi bat lortu zuen petrolioarekin. Honen balioa, beste mende batzuetan metale preziatuekin gertatu zen bezala, aldarte eta oreka/desoreka askoren esanetara egon ohi da.

"Royalty direlakoez, gizarte-privilegio sail bat sortzen dute herrialde musulmanetan. Royalty-etako dirua ez da zuzentasunez banatzen; aitsitik, askotan, kasta baten itzuragabeko luxua handitzeko isaten da, eta luxu honek ez du areagotzen produkzio lokalik: diruak atzerrian zahutzen dira, eta zahutuz ere, herrian bertan sekula emankor izango ez diren ondasunak erosten. Saudi Arabiak petrolioari zor diskio bere hiri, kamino, trenbide eta aireportuak, eta aurrerapen hau nabaria da noski. Baina errege-familiaren eta tribu-buru nagusien neurrigabeko luxu anakronikoa ere petrolioari zor diskio. Ikuskizun honek bere onetik ateratsen du gasteria, Egyptoko iraultzaren esenpluak asaldaturik dagoena, eta burgesia ere bai, irrikitzen bait dago arazo publikoetan parte hartzeko..

Erreparatsaile on batentzat, Ekialde Hurbileko petrolio XVI. mendean Amerikako zilarra izan zenaren parekoa da: bertako ekonomia indartu gabe igaro zen Espainian barrena, eta Europako ekonomia indartsuak aberastera atera zen kanpora". (F. BRAUDEL, 1983)

F. Braudel historilaria, Frantziako "Annales" eskolakoa da, eta urte-sail batean zuzendu ere egin zuen albistari berau. Eskola historio-grafiko honek metodo-berrikuntza bat ekarri zuen, batez ere herri latinoetan Historian ari zirenen artean. Historiaren osotasuna eta erritmo ezberdinak azpimarratu izan ditu "Annales"ek.

Energi ekonomiaren arazo hau alde askotatik uki liteke, batez ere produkzio-sistemak aldatzean gertatu ohi diren aldakuntzak tartean direnean. Petrolioaren eragin historiko-kulturalak bere testuingurua du orain, adibidez ik. "Mendez Mendek. Aro Garaikidea"n 529-538. Deskolonizazio eta neokolonialismoarekin ere lot liteke: ik. 560-571. orr., edo gatazkagune larriekin, ik. 571-573. orr., edo energi berrikuntzen arazoekin, ik. 661-664. orr., edo multinazionalen buruzkoekin, 531-517.

EGJTEKOAK

- a) Egizu munduko mapa bat, eta adieraz bertan, testuan agertzen diren aipamen geografikoak.
- b) Begira, hiztegiaren baten, kontzeptu hauek: Royalty, Kasta.
- c) Begira testuan agertzen diren aipamen historikoak. Egiptoko iraultza, 16. mendeko Amerikako zilarra, etab.
- d) Goian iradokitzen den gogoeta-punturen baten inguruan eratu lagunarteko eztabaidaren bat.
- e) Egin petrolioaren produkzio- eta merkatalgo-mapa bat.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Labur agiriaren esanahia, hiru edo lau lerroetan.
- b) Testuan, lehen parrafoan, azaltzen den egoeraren arazoak bilatzen saia zaitetz: Kapitalismoak eta Inperialismoak, edo Neokolonialismoak, zein eragin ote dute honetan?
- c) Nolakoa da gazteriaren eta burgesiaren erantzuna? Motibazio berdintsuak ote dauzkate? Zein da burgesiaren nahia?
- d) Burgesiak arazo publikoetan parte hartzeko eskubide hori lortu zuen: Noiz eta nola? Zein joera mantendu zuen gero?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XX. mendea

Iran-eko Xa-ren gobernuaren kritika egiten du tes-tu honek. Potentzia handiak inoren barne-arazoetan esku-hartzeak, mugimendu nazionalistak indarberri-tu baizik ez ditu egin, lurralde musulmanetan. Xa-ren politika mendebaltzaleak eta diktatorialak erantzun bortitza izan du iraniar xii ortodoxoen artean: Islam-a, nazio askearen sinboloa da.

"Gorteko harrera kostosoak eta alferrigaltze gusti horiek kendu-ko balira, Haziendak ez luke horrenbesteko zulorik eta defizitrik izango, eta ez legoke Amerika edo Ingalaterraren aurrera belauniko laguntza eta babes eske joan beharrik! Gure herria pobretu baldin bada, alferrigaltze eta lapurreta horiengatik da. Ez daukagu, ba, petrolio gure esku? Aberatsak gara gu, izan, baina lapurreta ho-riek pobretu gaituzte. Hor dago alferrikako organizazio adminis-tratibo hori ere, bere burokrasia eta paper-jarioarekin, Islama-rentzat osoro arrotz dena, eta altxor nazionalari hainbeste kosta-tzen zaiona.

Honek gustiak ez dauka zerikusirik Islamarekin eta buruhauste eta denbora-alferrigaltzea besterik ez dio herriari ematen. Aitzit-ik, oso sinpleak, praktikoak eta biskorrak dira Islamak erabili-tako metodoak. Justizia islamdarra indarrean zegoenean, aski zen epailea bere bi akolitorekin, luma bat eta tintontzi batekin, jen-dearen arteko haserreak eta konpondu beharrak konpontzeko eta jen-dea lanera bidaltzeko". (JOMEINI, 1979)

Buruzagi erlijioso eta estatu-gizon iraniarra da Jomeini: Iraultza iraniarraren gidaria (1979). Kolonialismo britainiarraren aurka borroka-tu ondoren, Xa-ren kontrako ahaleginen gidari politiko indartsuena bila-katu zen, berau Iran-etik iraitzeraino (1978). Handik hona, etnien eska-kizunak itoz eta Iran-en ezezik mundu musulman osoan ere, politika-be-rritze bat bultzatu izan du.

Deskolonizazio-fenomenoaren barnean begiratu behar da testua: ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 560-574. orr. Hemen interes berezia dute Mendebaldearen politika kolonialistari aurre egin dioten mugimenduak eta, hauen artean, Islam-aren erresistentziak: ik. 529-538. orr.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko bat begiratu, eta egin Iran-en mapa: lurraldea eta herriak eman.
- b) Mapa hori hedatuz, Irak ere eman: hurbiltasun eta ezberdintasunak ikus.
- c) Idatz Pertsia/Iran-ek bizi izan duen historia koloniala: egin 19-20. mendeetako kronologia labur bat.
- d) Egizu Jomeini-ren biografia.
- e) Bila egunkarietan Iran eta Irak-en arteko gerrari buruzko kronikak (1980. hurr.) egin ikasgelan azalpena.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer da "Xa"? Monarkiaren historia luzea al da Iran-en?
- b) Zeintzuk dira Jomeinik egiten dituen kritikak?
- l) Zertun oinarritzen da Iran-en aberastasun ekonomikoa?
- d) Zein zerikusi dago Gorteako alferrik galtzearen eta Haziendako defizitaren artean?
- e) Estatu modernoak bai al du testuak deskribatzen duen gisa horretan lan egiterik?
- f) Nola ulertzen dituzu testuaren bi zatiak? Kontrajarrnita al daude? Zergatik defendatzen du bigarren parte hori Jomeinik?
- g) Gogora itzazu Islam-aren ezaugarri nagusienak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Lekukotasun interesgarri baten aurrean gaude. Azken Mundu-Gerratean gertatutako izugarrikeria batzuk, beren itxuragabeko tamainan bederen, gerraondoan ezagutu ziren, kasu batzuetan protagonistek berek aitortuta. Hemen kontzentrazio-ze-laietan gertatutakoaz ari da testua.

"Berrogeitasei urte daukat eta alderdi nazional-sozialista alemaneko baskidea naiz 1922az gerostik, S.S.etakoa 1934etik hona, Waffen-S.S.etakoa 1938tik gaurdaino. 1934eko abenduaren lehenengotik S.S.-Herio-Bumhesur erakundekoa izan naiz.

1934az gero kontzentrazio-esparruen administrazioan lan egin dut etengabe. (...) 1940ko maiatzaren lehen Auschwitz-eko komandante izendatu ninduten. 1943ko abenduaren lehen zuzendu nuen Auschwitz, eta, uste dudanez, gutxienez bi milioi t'erdi lagun izan ziren gasez erakutatuak eta garbituak, eta ondoren erraustuak. Milioi erdi bat gutxienez gose edo gaitortasunez hil zen, hau da, hiru bat milioiko zifra bat. Auschwitz-era bidalitakoetatik % 70 edo 80, alegia. Gainerakoak, esparruaren industrietako lan bortxatuetarako aukeratuak eta enplegatuak izan ziren. (...).

Gasesko talde-errekusioak 1941eko udan hasi ziren eta 1944eko udazkenean luzatu (...). Gasesko errekusio gustiak R.S.H.A.ren mandatu zuzen, gainbegiratu eta erantsunkizun pean egin ziren. R.S.H.A.tik zuzenki jasotsen nituen nik talde-errekusiotarako beharrezko argibideak". (R. HOSZ, 1946)

Testu historiko hau, Nürnberg-eko Judizioan entzun ahal izan zirenetakoa da. Gertakarien zuzeneko lekukoa da Rudolf Hozs hau. Auschwitz-eko kontzentrazio-esparruan buruzagia izan zen (Polonian). Barruti haren izena --izen gaiztoa, benetan-- mundu osora zabaldu zen, ezagutu ahal izan ziren izugarrikerien albisteak ezagutzean.

Gerra haren eta inguruko gertakarien oinarrizko informazioak, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n topa ditzakezu: ik. 540-543. Agiriak eta testu honek bakearen arazo orokorra aurkezten du: horretarako ik. 543-558. orr.

EGITEKOAK

- a) Alemaniak izan zituen kontzentrazio-esparruen zerrenda bat egizu.
- b) Zenbat jende sartu zuten kontzentrazio-esparru horietan? Zenbat hildako egon ote zen? Egin lauki estatistiko bat.
- c) Begira entziklopedietan zer esaten den kontzentrazio-esparruei buruz, edota Nürnberg-eko Judizioaz (1946).

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer ziren S.S.ak? Noiz eta zertarako sortu ziren?
- b) Zer zen R.S.H.A.?
- c) Jada 1934ean bazeuden kontzentrazio-esparruak. Zein betekizun izan zekazeten gerraurrean?
- d) Zeintzuk izan ziren kontzentrazio-esparruetara bidaliak? Nola zuzenetsatzen zen ekintza hau?
- e) Zer izan zen Nürnberg-eko Judizioa? Zeintzuk izan ziren epaituak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1945

Yaltako Konferentziaren ondoren, aliatuek bakeaz eta segurtasunaz arduratuko zen nazioarteko erakunde bat sortzea/erabaki zuten. Batek baino gehiagok esan zuen porrot egindako Nazioen Elkartearen (Versailles 1919. Geneva) segida izango zela. 1945ean, San Frantziskoko Konferentzia bukatzean, Nazio Batuen Gutuna sinatu eta Erakundea eraiki zen. Ondoko berrogei urteetako nazioarteko arazoe-tan garrantzizko harreman-tresna izan dira Nazio Batuak.

"Nazio batuetako herriok erabakita gaude:

- gure bizitzan, birritan, gizadiari, esan ezin ahalako sufri-karioak ezarri diskion gerra-zigorretik gure ondoko belaunaldiak gordetzera,

- oinarrizko giza eskubideetan, giza pertsonaren duintasun eta balioan, gizon-emakumeen eta nazio handi-trikien eskubide-berdintasunean gure fedea indarberritzera,

- tratatuei eta nazioarteko beste zuzenbide-iturriari darizkien betebeharren errespetua eta justizia saintzeko baldintzak sortzera,

- aurrerapen soziala sustatzera eta askatasun-kontzeptu sabalago baten barnean bizi-maila jasotzera, eta xede hauek ditugula, erabakita gaude:

- tolerantzia praktikatzera eta auzoko onak bezala elkarrekin bakean bizitzera;

- nazioarteko bakea eta segurtasuna saintzeko gure indarrak elkartzera;

- indar armatua denon interesaren zerbitzuan baizik ez dela erabiliko printzipioen eta metodoen onarpenaren bidez segurtatzera, eta

- herri gutien aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzeko nazioarteko erakundeak erabiltzera.

Helburu hauek lortzeko erabakita gaude gure ahaleginak batzera".

(GUTUNAREN LEHEN HITZAK, 1945)

Nazio Batuen konferentziarako deialdia, Yalta-n egin zen; irabazle izango ziren aliatuen deia zen. San Franciscon bildu ziren, Txina, EE.BB., Soviet Batasuna, Britainia Haundia eta Frantzia, Erakunde berriari oinarriak emateko: Gutun honetako erizpideen gain eraiki zen hura. Gerora, multzoka edo banaka, munduko ia Estatu denak bildu dira Nazio Batuen Elkartera.

Gerraondoko gatazka politiko eta armatuen testuinguruan jarri behar dira, UNOnen jaiotza ezezik, geroko bizitza eta zeregina. Ik. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n 543-574. orr. Munduko botere-banakuntza, bakearen administrazioa, deskolonizazioa eta abar honelako Erakunde baten babesean daude, nahitaez.

EGJTEKOAK

- a) Har 2. Mundu-Gerra-ondoko mapa bat, eta adieraz bertan azken urteetan gertatutako aldakuntzak.
- b) Mundu-mapa batean eman Estatuaren sarrera-urtea, beharrezko argibideak biltzen baldin badituzu bederen.
- c) Argitu, organigraman baten bidez, UNOnen funtzionamendu eta erakundeak.
- d) Azaldu zer den beto-eskubidea, kasu politikoren bat aipatuz. Bidezkoa ote da hori?
- e) Munduan badaude nazioarteko beste erakunde kontinental ezagun batzuk ere: egizu mapa bat horien esparruak mugatuz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola ikusten duzu gaur eguneko arazoekiko UNOk duen egitekoa.
- b) Gerra- eta politika-arduraren ondoan bestelakorik bai ote du UNOk munduan?
- c) Zer da Gerra Hotza?
- d) Irakur lehen eta bigarren puntuak: Ez ote da hori amets handiegia?
- e) Zer esan nahi ote du esaldi honek: "Aurrerapen soziala sustatzera eta askatasun-konzeptu zabalago baten barnean bizi-maila jasotzera erabakita gaude"?
- f) Indar armatuak denon interesaren zerbitzuan erabiliko direla baieztatzen da. Egiaztatzen al duzu arno hau. Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke; aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

c. 1950

Agiri honetan, deskolonizazioaren arrazoi batzuen azalpena eskaintzen zaigu. Bigarren Mundu-Gerratea izan zen kolonialismoaren azkenaren hasiera. 1946. urtea geroztik, europarren menpean zeuden herrialde askok eta askok bere independentzia politikoa lortu du. XVIII. eta XIX. mendeetan sortutako independentzi prozesuak, orohar, oraingo hauetatik beste testuinguru batean burutu ziren.

"Munduaren eraldakuntza sakonaren arrazoiak oso nabariak dira: horien sorburu dira, lehenengo, Estatu kolonialek beren barnean jasan dituzten krisiak, beren prestigio-galtzea, lurralde kolonialen administrazioan aurkitu izan dituzten zailtasun materialak. Baina badira beste arrazoi batzuk ere, eta gustietan garrantzitsuena, bi Estatuk erregimenez elkarren kontrako baina paradoxaski postura antikolonial batean elkarrekin bat datosenek, EE.BB. eta SBk, lortu duten garaipena.

Ezagunak dira Errepublikak amerikarrek Europako kolonialismoari buruz dituzten sentimenduak. Independentia egin dira Hamairu koloniak, eta independentzia haurre izan da, gerrate latz baten ondoren, Europaren hegemoniari jarri zitzaion lehenengo muga. (...).

EE.BB.en deklarazioa izan zen lehenengo aldarrikapena, 'herriek, zein gobernu-moduren aspian bizi nahi duten aukeratzeko, duten eskubidearen' alde; horren ondoren beste manifestazio batzuk ere etorri ziren, koloniei bide ematen zietenak, jadanik formulatutako errebindikazioak aurkezteko, baina aurkestu ere, alituak isateko segurtasunarekin". (R. CÉRÉ, 1970)

Roger Céré batez ere azken Mundu-Gerrate-ondoko bakearen antolamenduz arduratu da, honelako arlo batek dituen erakunde, plan, krisi eta baliabideak aztertuz. Testuinguru zabal horren barnean lekutzen du Céré-k, hemen aipatzen duen deskolonizazio-arazoa ere.

II. Mundu-Gerratearen ondoko hamarkadaz, "Mendez Mendeko Aro Garaikidea" ikus dezakezu: begira 543-574. orr. Baina deskolonizazioak: XVIII-XIX. mendeakoz, kapitulu osoa daukazu (231-333. orr.); kolonizazioaren ondorioak, ik. 120-126. orr.; zuzenki azken deskolonizazioak, 483-490 (Afrika), 531-538 (Maghreb), 559-571. orr.

EGJTEKOAK

- Erakutsi mapa batean Europak 1945etik hona galdu dituen koloniak. Zer da oraindik bere menpe daukana?
- Atlas historiko batean ikus noiz eta nongo herrialdek lortu duen independentzia. Zein mundu-eskualdetan nabaritzen da berezikiago deskolonizazioa?
- Hirugarren Munduko herrien zorrak eta hartzekodunak nola emango zenituzke mapa batean? Eska laguntza irakasleari. Komentatu elkarren artean. Mapa edo grafiko bat egizu, hori azalduz.
- Nola dago banatuta mundua Estatu aurreratu eta azpigaratuen artean? Mapa edo grafiko bat egizu, hori azalduz.
- Gibraltar, Ceuta eta Melilla-ren egoeraz bila argibideak: zein izan liteke horien etorkizuna, zure ustez.

ERANTZUTEKOAK

- Zeintzu dira autoreak aipatzen dituen deskolonizazioaren arrazoiak?
- Angi itzazu hor agentzen diren arrazoi batzuk: 1) "Estatu kolonialek beren barnean jasan dituzten krisiak". 2) "Beren prestigio-galtzea". Zergatik? Noiztik? Zer esan nahi du horiekin? Adibide zehatzak eman.
- Estatu Batuen eta Soviet Batasunaren garaipean Europak protagonismoa galtzarekin bai al du zerikusirik? Zergatik? Nola ulertzen da bi potentzia horien jarrera antikoloniala?
- Europako hegemonia itzaltzean, nolako hegemonia sortzen da? Egizu horretaz idazlan labur bat. Nazioarteko erakundeek, nolako betebeharra dute deskolonizazioan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1969

Vietnam-eko gudari buruz hitz egiten zaigu hemen, garaipenaren itxaropen osoa agertuz. Ho Txi Min-ek, inperialismo amerikarraren aurkako guda hau, deskolonizazio-gerra bezala hartu zuen, hau da, Frantziaren aurka hasitako gerraren segidatzat. Bere laburtasunean ere interes historiko handia du dokumentuak, batez ere ondoko urteetako gertakarien argitan irakurtzen bada.

"Vietnam-eko Errepublika Demokratikoa: Independentzia, askatasuna, zoriona.

Eraso amerikarraren kontrako borroka abertzalean, oraindik ere jasan beharko ditugu hildura eta nekeak, baina ziur gaude lortuko dugula garaitzapen osoa. Erabateko ziurtasuna daukagu horretaz. (...).

Zalantzarik gabe, garaituko du gure herriak. Inperialista amerikarrek hanka egin beharko dute. Gure aberria bateratua izango da. Ipar-Hegoaldeetako gure aberkideak teilatupe berean bilduko dira. Gure herri txiki honek, bi inperialista handi, frantsesa eta amerikarra alegia, garaitu dituen nazio txiki baten ohore paregabea izango du".

(HO TXI MIN, 1969)

Ho Txi Min (1890-1969) gidari komunista Vietnam-eko independentziaren aita izan da. 1941ean Vietminh alderdia sortu zuen, eta japoniarren aurkako borroka zuzendu. II. Mundu-Gerratearen ondoren, Frantziaren aurkako mugimendua gidatu zuen, 1954. urtean Ipar Vietnam-eko independentzia lortuz. Estatu berriaren Lehendakari eta Alderdi Komunistaren buru nagusia, sozialismoaren eraikuntzari ekin eta amerikar inperialismoari aurre egiten dio, Ipar eta Hego Vietnam-en batasuna proposatuz. Marxismo teorikoaren barnean, gerra nazional-iraultzaileari buruzko haren ekarria (deskolonizazioa eta sozialismoa uztartzean) berritzailea gertatu da.

Honelako agiri bati bere testuinguru orokorra emateko, nahikoa lan-gai eta argibide baduzu "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n: ikus kolonialismoaz eta deskolonizazioaz ematen direnak, 104-106 eta 563-567. orrialdeetan. Beste eskualdeetakoak ere hainbat lekutan daukazu: Amerika (231-333. orr.), Afrika (483-490. orr.), Maghreb (532-538. orr.).

EGJTEKOAK

- a) Indotxina-ko mapa batean marraztu Vietnam-eko independentziaren fase desberdinak.
- b) Indotxina-ko independentziaren kronologia bat egin.
- c) Vietnam-eko gerrari buruzko pelikularen bat komentatu ikasgelan.

ERANTZUTEKOAK

- a) Vietnam-ek bi inperialismo jasan dituela dio testuak, frantsesa eta amerikarra. Zein momentutakoa da bakoitza? Zeintzuk dira inperialismo hauen helburuak?
- b) Frantzesen Vietnam-eko presentzia noizkoa da? Noiz arte jurraidu zuten haiek Indotxina-n?
- c) Noren laguntza jaso zuten vietnamdarrek beren independentzi gerratean?
- d) Vietnam-eko gerra, kolonialismoaren aurkako borroka hutsa izan zela uste al duzu? Zergatik? Bai al du zerikusirik blokeen politikarekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorra (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XIX. mendearen azken aldian Inperialismoak, industri iraultzaren betenahiak burutzeko, mundu osora hedatu zuen bere kontrola. Bigarren Mundu-Gerratearen ondoren, deskolonizazio-prozesuarekin aurreko hamarkadetako historia horri gaina hartuko zitzaiola uste izan zen, baina kolonialismoarekin zenbait herrialderen dependentziak molde berriz mantentzea baizik ez du egin. Horretaz ari da testu hau.

"Hasieran kontzeptu hau botere kolonialei bakarrik aplikatu bazitzaien ere, kapitalismo aurreratuko herrialde gustietara hedatu zen berandu baino lehen. Neokolonialismoa, behialako lurralde kolonizatuak esplotatzen jarraitzea bezala definituz, zeharkako menpetasun horren erroñura nabarmen erazten zen, aditzera emanez, hori ez zegokiela berriki askatutako herriei bakarrik eta bai presio berdinen menpean zeuden beste askori ere. Duda egin zen, ea EE.BB. eta SB ere nazio neo-kolonialen artean sartu behar ote ziren. Baina Pierre Naville-ren artikuluko batek biak sartu zituen Neokolonialismoaren kontzeptu berri horretan: Soviet Batasuna ere botere neokolonialista da.

Herri afro-asiarren solidaritatezko konferentzia batean (Bandung, 1961eko apirilaren 10-13etan) praktika neokolonialisten salaketa egotzi zitzaieen, ez kapitalismo aurreratuko herrialdeei bakarrik, eta bai nazioarteko organizazioei berei ere, hala nola NATO, OTASE, CENTO, eta abarri, oro har nazioarteko organizazio guztiak, beren programa eta iharduerak herrialde industrial aurreratuen menpean dauzkatelako". (M. FERRO, 1971)

Marc Ferro, historilari frantsesa da (1924). "Annales" aldizkariaren zuzendari-laguntzailea. Bere ikerlanetan Lehenengo Mundu-Gerratea eta Errusiako Iraultza dira gehien landu dituen arloak. Zinearen eta Historiaren arteko zerikusiaz ere berezitu da, egungo gai historikoez laburmetraiak eginez. "Zinema eta Historia" da honen beste obra bat.

Testu honetan ageri diren ideiak mundu osoko hainbat herri neokolozatuz aplikatzekoak izan litezke. Histori une berri honetaz badituzu "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n argibide baliagarriak, ikus, adibidez, Ibero Amerikaren deskolonizazioaz (308-321, 326-333. orr.), Indiakoaz (392-396. orr.), Afrikakoaz (483-490. orr.), Mendebaldearekiko menpekotasunaz (513-517, 519-526. orr.), edo Islam-aren erresistentziak (529-538. orr.) esaten direnak. Eta ez ahantz, laborpen gisa, 559-571. orrialdeetakoak.

EGITEKOAK

- a) Egizu munduko mapa bat, eta adieraz bertan neokolozatuz hartu daitezkeen herrialdeak.
- b) Arazoa ongi ulertzeko, hiztegi batean kontsulta "Neokolozalismo"aren kontzeptua.
- c) Bandung-eko Konferentzia: Bila konferentzia honetaz premiazko argibideak.
- d) Mapu berean jasotzen diren nazioarteko erakundearen eremuak.
- e) Mullinazionalen presentzia neokolozalismoaren adibide bat izan daiteke. Zer esan zenezake horretaz.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nola definitzen du Marc Ferrok neokolozalismoa?
- b) Noza hedatzen dute beren neokolozalismoa EE.BB.ek eta Soviet Batasunak?
- c) Bandung-eko Konferentzian, badinudi arazoa gogortu egin zela. Zergatik?
- d) Noiz izan zen Bandung-eko lehenengo Konferentzia? Zeintzuk haren helburuak?
- e) Ezagutzen al duzu Hirugarren Munduko beste nazioarteko erakunderik? Bila berorien albisteak.
- f) Zer esanok zenuke neokolozalismoaz? Eman zure erantzua.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

c. 1950

Ertamerika eta Latin Amerikako arazo latz bat azaltzen zaigu agiri honetan: Estatu Batuek Guatemalan izan duten esku-sartzea dakar autoreak haien politika-moldearen adibide bezala. Koloniondoko independentziaren ondoren, Ingalaterraren eta Estatu Batuen hedapen-politikak besarkatu zuen Ibero Amerika. Neokolonialismoak eta gerra hotzak geraldiki ekonomikoa eta dependentsia politikoa mantendu dituzte.

"Arévalo-ren ondoretsak drama ilun bat sortu zuen armadaren barruan; Aranda koronela, hautagairik seguruenak bezala itzuratsen ari zena, eta joeraz moderatua zena, misteriotsuki izan zen erahila; horren kontrarioa, Arbenz koronela, 1950ean izan zen hautatua. Laster hasi zen larritzen EE.BB.ekiko tentsioa: alde batetik, gobernu errepublikarra aurrekoa baino ere sentikorragoa zen United Fruit Company-ren interesentzat, (beronen banana-lurraldeek mehatrupean bait ziruditen) Guatemalako gobernu aurrera eramaten ari zen lur-erreforma zela medio.

Bestalde, lehen ikusi denek, prest zegoen gobernu hori Latin Amerika gerra hotzean mobilizatzeko eta gero eta alarmatuago ageri zen, komunismoak Guatemalako gobernuaren gain zuen itsalaren aurrean; mehatxu horren kontra Caracasen ia ahobatezko arbuioa antolatatu ondoren, inbasio militar bat prestatu zuen Honduras-eko lurraldetik hegaskin-laguntza eta gusti; honen kontra, berriz, adore eskaseko jarkipena erakutsi zuen Guatemalako armadak. Arbenz-ek desterrura alde egin behar izan zuen; Castillo Armas, inbasoreen burua, lehendakari egin zuten eta diktadura zorrotza ezarri zuen. Guatemalako iraultza bukatu zen; arazoa azken buru honetara ekarri zuten gorabehera eskandaluzkoek adierazten zuten, elementu berri batek esku hartzen zuela, oreka soziopolitiko berriak bilatzea oraindik zailagotzeko: gerra hotzak, alegia, izan ere honek bere pisu erabakiorrarekin bultzatsen bait zuen Latin Amerika, bidea, gero eta gehiago, desoreka eta borrokatu bama bilatzera".

(T.H. DONGHI, 1969)

Tulio Halperin Donghi, Latin Amerikaren historia garaikidean espezializatua da, eta Harvard-eko Unibertsitatean irakaslea. "Historia Contemporánea de América Latina" obran, XVII. mendeko Amerika kolonialetik hasita paktu neokoloniala hausteko ahaleginetan ari diren egungo herrialdeen borroka azaltzen du. Egungo arazoetara helduz, Latin Amerikako garapen historikoaren deskribapen zorrotza egiten du.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n Latin Amerikari buruzko hainbat argibide aurkituko duzu: 110-113, 285-286, 301 (irudia), 305, 308-309, 316-317, 328-330. orr.

EGJTEKOAK

- a) Adieraz, Amerikaren mapa batean, agiriko alipamen geografikoak: Estatu Batuak, Guatemala, Kanarar, Honduras.
- b) Estatu Batuen eragin zuzena zein herrialdetara hedatu zen, eta da? Adieraz mapa batean.
- c) Bila Guatemalaren argibide historikoak. Batez ere agirian agertzen den garuiaz: Anévalo, Arbenz koronelaren garaiak. Nolako eraldakuntzak hasi zituzten?
- d) Multinazionalen eta potentzia politikoen interesak bat datoz askotan: informaz zaitetz agiriko United Fruit Company-az. Zeintzuk ziren honen interesak?
- e) Hiztegi historiko batean azter ezazu "gerra hotza" kontzeptua. (Begira, bestela, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n: 551-554. orr.)

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik Estatu Batuen Guatemalarekiko ezinegon hori?
- b) Nola burutzen da Estatu Batuen ekintza hori? Non gehiago burutu dituzte antzeko ekintzak?
- c) Zergatik ekiten dute Estatu Batuek?
- d) Zer da gerra hotza? Honen ondorioetatik latzena armamenduen ugaltzea izan zen. Zergatik?
- e) Nolako eragina du gerra hotzak Latin Amerikako herrialdeetan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

B. Russell-ek bere bizitzan agindu duten hiru grina simple baina funtsezkoenak azaltzen ditu hemen: maitatu-beharra, jakiteko egarria eta gizadiaren sufrimenduen sentipen jasanezina. Interesgarria da halako oihartzun filosofiko eta kulturala izan duen pentsatzaile honen aitorten pertsonal hau ezagutzea.

"Hiru grina, simple baina eutsiesinok agindu dute nere bizitzan: maitatu-beharra, jakiteko egarria eta gizadiaren sufrimenduen sentimendu jasanezinak (...).

Maitasuna bilatu dut, lehenengo eta behin estasia delako (...).

Beste horrenbesteko amorrus jakitearen irrika izan dut (...). Bertute pitagorikoa neregatzen saiatu naiz beti (...), zenbakien ahalmena, aldaketa unibertsalaren gainetik, mantentzen duena (...).

Maitasunak eta jakinduriak, eskura nitzakeen neurrian, lurretik gora jasotsen ninduten. Beti eraman izan nau errukiak, eta bihozberotasunak beti lotu naito lurrari. Oinazesko garrasiak oihartzun-ka ari saiskit nere barrenean. Ume gosetiek, zapaltzaileen eta torturatutzaileen biktimek ukitu naute: Oinazesko, behargorritako eta bakardadesko mordu oso bat ari da bisitza, behar lukeen bezalakoa, isekatsen". (B. RUSSELL: *Autobiography*, 1967-1968)

Bertrand Russell (1872-1965), filosofo, pedagogo, matematikari eta saiolari ingelesa zen. Soviet Batasunean eta Txinan egon zen arazo politiko eta sozialak aztertzen. 1950ean Literaturako Nobel saria hartu zuen. Obra filosofiko handia utzi du.

Komeni da testu hau bere inguru historikoan irakurtzea. Horretarako begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 580-584. Bertan daukazu Russell-en biografia txiki bat ere.

EGJTEKOAK

- a) Bila B. Russell-en biografiako datu garrantzitsuenak.
- b) Zeintzuk dira Russell-en obra aipagarriak?
- c) "Russell Auzitegia" (Tribunala) deitua oso ezaguna izan zen bere garaian: Zentarako eratu zen berori?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esan dezakezu B. Russell-ek aipatzen dituen hiru grina honietaz?
- b) Gaurko jendearen artean grina hauek nahikoa orokorrak direla iruditzen al zaizu? Nola baloratuko zenuke zuk hori dena?
- c) Bai al dakizu Russell-en filosofiaz zerbait? Nola laburtuko zenuke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

"Dadaismo"aren mugimendu kultural eta artistikoa-
ren ezaugarri orokorrak aipatzen ditu Hauser-ek I.
Mundu-Gerra garaiko fenomeno artistikoa da; orduko
zibilizazio eta aurreko arte-tradizioarekin eten
nahi zuen, mundua itzulipurdikatuz. Salaketa-arte
bat bezala har daiteke berau. Espontaneotasuna
aldarrikatu zuen, baina aldi berean kontraesan bat
zuen bere teoriarik: ulermena bilatzen dute, eta
komunikabide guztiak ukatu. Nola, beraz?

"Espresabide konbentsionalen kontrako borroka sistematikoa, eta ondorioz XIX. mendeko arte-tradizioarekin haustea, dadaismoarekin hasten dira, 1916an. Gerra-garaiko fenomeno tipikoa da dadaismo hau, gerrara eramán gintuen zibilizazioaren kontrako protesta, eta, beraz, derrotismo-modu bat. Mugimendu osoaren asmoa da, lehendik mamituta zeuden formen erakargarritasunari eta klitxe linguistikiko erosoei kontra egitea, hauek gastaturik egotean, baliorik ez dutelako eta deskribatu behar duten objektua faltsutsen eta espresioaren espontaneitatea alferrik galtzen dutelako. Dadaismoa (eta surrealismoa ere bat dator osoro horrekin gai honetan) zuzeneko espresabide bat aurkitzeko borroka da, hots, mugimendu erromantikoa bat da furtsean. Esperientzia formen bidez faltsutzearen kontra doa haren borroka (...).

Baina XIX. mendeak oreka, bat baino bilatsen ez duen bitartean --oreka zaharraren eta berriaren artean, tradiziozko formen eta individualismoaren espontaneitatearen artean--, dadaismoak espresio-bide arrunt eta gastatu gustien desegitea eskatzen du. Espresakera gustiz espontaneo bat galdatzen du, eta horregatik kontraiatzate batean oinarritzen du bere teoria. Izan ere, nola ulertuko gaituzte, ba, --eta surrealismoak ere ulertua izatea bilatsen du--, aldi berean komunikabide guztiak ukatzen eta desegiten baditu?"

(A. HAUSER, 1968)

Arnold Hauser, Hungarian jaio zen (1892-1978), eta Budapest, Parise eta Berlin-en ikasi zuen, eta Viena-n eta Londres-en izan da irakasle. 1951n eman zuen argitara bere "The Social History of Art" (Londres), gero beste hainbat hizkuntzatarara itzulia, eta gaztelaniaz Guadarrama argitaletxeak argitara emana. Benetan liburu estimagarria.

"Artearen Historia/3" (UBI) liburuan jaso dezakezu informazio orokorra: 94-124. or., eta zehaztasunak 115-118. orrialdeetan. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n, berriz, ikus pinturari buruzko azalpen labur bat: 608-618. orr. (1900-1945. urteak).

EGJTEKOAK

- a) Histori liburua, entziklopedia eta abarretan miatuz, egizu 1. Mundu-Gerrateko mapa bat.
- b) "Artearen Historia/3" liburutik, 94-95. orrialdeetako sarreraz aztertu ondoren, idatz adierazten dizkigun ideia orokorrak.
- c) "Dadumouren" azterketa egizu 115-117. orrialdeetan: Jatorria, hedapena, artista aipagarriak, etab.
- d) Arte-liburuetan, pintura eta, ahal bazenu, diapositibetan ere begira "Dada" artisten obrak: Picabia eta Marcel Duchamp-en obrak batipat.
- e) Irakaslearen laguntzarekin egizu koadro baten azterketa zehatza.

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz eta non sortu zen Dadaismoa?
- b) Zeren ondorioa izan zen? Zein haren helburua?
- c) Zergatik esaten da mugimendu artistikoa baino areago mugimendu kulturala zela?
- d) Zeintzuk izan ziren mugimendu honen artistarik adierazgarriak?
- e) Zergatik dio Hauser-ek "mugimendu errromantikoa" dela funtsean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

1917ko Urrian, Soviet Batasunean Iraultza Sozialista burutzean, gizarte erabat berria sortzea izan zen ametsa, ordurarteko kultura guztiz itxuraldatuz. Honen ordeztu gizarte eta kultura proletario arras berriak eraiki nahi ziren. Beraz, proletkultura hau izango litzateke, proletalgoaren eta proletalgoarentzako kultura. Testu honetan, Moskun 1918ko Irailean Soviet Batasuneko proletkult-antolamenduen lehenengo Biltzarraren zenbait erabaki ematen da.

1. Artista proletari guztiak bildu behar dira langile-komunatan, irakatsi eta aldi berean propagandan lan egin dezaten.

2. Komuna hauei, tailer, estudio eta laborategien antolaera eta instalazioa gomendatu behar zaie, arte plastikoetako eremu gustietan sormen kolektiboa sustatu eta gararazi dezaten.

3. Arte-sormen proletariaren oinarri ideologikoak taldean landu behar dira. (...)

4. Sovietar lurralde osoan sortu behar diren unibertsitateek, produkzio-prozesuari lotuta zuzenean sortutakoek, modu kolektiboan zabaldu eta gararazi behar dituzte arte plastikoaren zientzia proletaria eta horren metodoak (...).

8. Kultur ilustraziorako organizazio proletarien lehen biltzar pan-errusiarrak uste du, arte plastikoetako sormen-obra, proletal ideologia iraultzailearen eraginez sortuak, alaitasunaren, edertasunaren eta jakinduria praktikoaren iturri behar dutela izan, bai-na klase-kontzientziaren propaganda-arma bortitz ere behar dutela bilakatu nazioarteko proletal iraultzan".

(PROLETKULTURAREN BILTZARRA. MOSKU, 1918)

Iraultza Sovietarraren denboran, eta berehalako urteetan, kultura zeharo proletarioa sortu nahi izan zen Errusian. Arte-lagunarteak berez sortu ziren, eta artista proletari gehienak, hasieretan, talde espontaneotan bildu. 1917an batu zen proletkulturalismoa erakunde batean, eta 1921ean ito zen. Historia kultural honetaz baduzu euskaraz liburu bat: AZURMENDI, J.: "Kultura Proletarioaz" (Jakin, 1973).

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n baduzu langai eta argibiderik mugimendu sozio-kultural hau ezagutzeko: 597-599, 615-616. orr.

EGITEKOAK

- a) Begira H. Kinder eta W. Hilgemann-en "Atlas histórico Mundial"ean (1st-mo Editionala) Soviet Batasunean zer gertatzen ari zen garai honetan. Laburpena egin.
- b) Zuen hirian dagoen arte-eskolara bisita egin daiteke, metodologia eta dituzten arazoez galdetuz. Txostena egin.
- c) Agiri honetan agertzen den proletkulturraren filosofia, gaur egun eta hemen, jarraitzaileek baduen jakiteko zuen ikastetxeko marrazki- eta arte-irakasleekin elkarriketa izan.
- d) Ikus eta azter, irakaslearen laguntzarekin, 1970.eko hamarkadako Agustín Ibarrolaren artelanak (liburu edo diapositibetan agertutakoak), eta aldera ea agiri honetan azaltzen den filosofiarekin baduen ahaidetasunik.

ERANTZUTEKOAK

- a) Agirian zer ulertzen da artista proletarioaz, eta langile-komunaz.
- b) Zeintzu dira proletkulturraren oinarri ideologiko-estetikoak: azter arazoa gelako lagunekin batera.
- c) Zein lan-metodologia aukeratu zuten proletkulturrakoe.
- d) Agirian "proletari", "komuna" eta "kolektibo" hitzak esanahi handikoak dira. Azaldu ideologia horren helburu nagusiak.
- e) Zein da testuaren pentsamendua bere osan.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

W. Gropius-ek eman zuen argitara testu hau (1919-an), "Bauhaus" eskolaren artearen hastapenak azalduz. Gerora naziek itxi zuten eskola honek oihartzun zabala izan zuen, orduan eta gero, munduko arkitektoen artean. Beronen obra eraikien ondoan ezin bazter, gainera, arteaz eskaini zuen obra teorikoa.

"Artea edozein metodotatik aparte sortzen da, eta es dago irakasterik; aitzitik, artisautza ikas daitekeen gauza da. Arkitektoak, pintoreak eta eskultoreak, denak dira artisau, hitsaren jatorrizko esanahian; (...) horregatik, oinarrizko artisau-prestamaena eskatuko zaie ikasle gustiei eta hori tailerretan eta esperimentazio- eta lan-tokietan hartzeko modua izango dute (...). Horregatik, Bauhaus-ean ez da irakasle eta ikaslerik izango, maisu, ofizial eta ikastunak baizik. Irakaskuntza-modua tailerren isakeratik beretik deribatuko da:

Figuragintza organikoa, artisau-trebetasunetik hara landua. Edozein zurruntasun bastertu; sormenezko aldeak landu batipat; bakoi-tza libre utzi, baina ikasketa zorrotz egin.

Korporazio-moduko examinak izango dira maisu eta ofizialentzat, Bauhaus-eko maisu-kontseiluaren aurrean, edo kanpoko maisuen aurrean.

Ikasleek maisuen lanetan parte-har erazi. Enkargu-bidesko lanak bilatu, baita ikasleentzat ere. Elkarren artean hegada handiko lan utopikoak proiektatu --herri- eta eliz eraikuntza-- geroari begira (...).

Etengabeko harremana herrialdeko artisautza eta industriako elementu garrantzitsuenekin. Harremanak bizitza publikoarekin eta herriarekin, erakusketak eta bestelako agerpideak direla medio (...).

Lanetik kanpora ere adiskidetasuneko harremanak antolatu maisu eta ikasleen artean: antzertia, hitsaldiak, poesia, musika, txantxo-dantzak. Bilera hauetan festa-seremonial bat sortu".

(W. GROPIUS, 1919)

Walter Gropius (1883-1969) izan da "Bauhaus" eskolaren aitagoia. Arkitektura ezezik diseinua ere landu zuen aleman honek, 1910etik aurrera. Gropius-en oinarritzko lanak 1919-1928 urteetan burutu ziren. 1934-ean, nazietatik ihesi, erbestera joan zen (Ingalaterra eta Estatu Batuetara). 1937tik aurrera Harvard-eko Unibertsitatean egin zuen lan, irakasle eta eraikile bezala. Idazle teoriko handia izan zen, gainera: eraikuntzaren alde sozialari lekurik arduratuena eman zion teorikari honek.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n baduzu argibiderik: 601-602. orr. Ez ahantz, gainera, aurreko eta ondoko orrialdeetan daukazu informazio osagarria. Gisa berean, "Artearen Historia/3"an begira 148-151. orr.

EGJTEKOAK

- a) Begira "Atlas Histórico Mundial"ean garai hartako Alemaniako egoera sozial, politiko eta ekonomikoa.
- b) Jhus 20. mendeko arkitektur joeren diapositiba aukeratu batzuk, ahal balitz Bauhaus eskolako artisten adibideren bat ere jasoz.
- c) Joera hauetako eraikinen bat deskriba, zure hirikoen artean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Artearen eta artisautzaren definizioak ezagututa, aldera testuan esaten denarekin.
- b) Gropius-en ustetan, zertan datza oinarrizko artisauprestamena? Egun, honrela gertatzen al da?
- c) Zein da Bauhaus-en proposatzen den estetika? Zein eritzi duzu horretaz?
- d) Zein da testuaren pentsamendua, bere osoan?
- e) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

H. Matisse, pintoreak, 1908.ean argitara eman zuen ondoko pasarte hau, "La Grande Revue" aldizkarian. Pasarte motz honetan Matissek dioena zera da: Artista, bere estilo edo arteari buruzko ideiak idatziz azaldu nahi dituzenean, bide arriskutsutik abiatzen dela, ez bait da mundu hori bera murgildu behar den arloa, letra-gizonena baizik. Pintoreak bere koadroen bitartez esaten du esatekoa: pintura da haren lengoiaia.

"Pintorea, jendeari bere obra aurkeztu beharrean, pintatzeko arteari buruz bere ideietakoren bat azaltzen hasten denean, bide arriskutsu batean sartzen da.

Lehenengo eta behin, jakin bait dakit nola pertsona askok pintura literaturaren menpeko zerbait bezala ikusten duten, eta nola pintoreari eskatzen dioten, ez bere medio eta helpideei dagozkien ideia orokorrez eta bai areago hertsiki literaturazkoak direnez mintzatzea, beldur naiz, aski harritu gabe onartuko ez ote den, pintorea arriskatu eta letra-gizonaren arloan sartzea. Argi eta garbi ikusten dut, pintoreak bere estiloaz eman dezakeen azalpenik onena bere koadroetatik ateratzen dena dela.

Alabaina, Signac, Desvallières, Denis, Blanche, Guérin, Bernard bezalako artistek aldizkarietan ere idatzi zuten".

(H. MATISSE, 1908)

Henri Matisse (1869-1954), pintore frantsesa zen. Lege-ikasketak egin ondoren, 1890etik aurrera pinturarekiko zaletasuna erakutsi zuen, eta arte-arlo honetan ohizko pintura landuz abiatu zen. Hasierako lanean, Pissarro eta Cézanne-ren eragina jasan zuen; baina, 1907tik aurrera, bere bideari ekin zion, "Fauve" mugimendu piktoriko berria sortuz.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n baduzu Matisse-ri buruzko berririk: ik. 608-609. orr. Komeniko da ondoko orrialdeetakoak ere irakurtzea. "Artearen Historia/3" (UBI) liburuan aurki dezakezu, gainera, XX. mendeko mugimendu artistikoari buruz informazio orokorra: 94-124. orrialdeetan, eta "Fauvismo"ari buruzko zehaztasunak: 119-124. orrialdeetan.

EGITEKOAK

- a) Ante-liburuetan, entziklopedia eta abarretatik egizu 20. mendeko hasieran eman ziren mugimendu artistiko ezberdinen sinopsi bat.
- b) Goian aipaturiko liburuetatik atera "Fauve" estiloaren ezaugarri bereizgarrienak. Eman lauki batean.
- c) Idatzz Henri Matisse-ren biografia laburra.
- d) Fauvismoaren munduko beste artisten izenak eta obrak aipa.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Nor izan zen Henri Matisse?
- b) Zeintzuk dira Fauvismoaren ezaugarriak?
- c) Zer adierazi nahi du "Fauve" izenak? Zergatik eman zitzaion delako izen hori? Noiz?
- d) Zein da testu honetan Matissek defendatzen duen ideia nagusia?
- e) Zein erlazio dauka Fauvismoak Espresionismoarekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Rouault pintoreak, aitorpen intimo baten erara, arteari buruz bere burua sinestun bezala defini-tzen du. Barneko aginduekin esaneko izatea eta aiurri eta dohainei dagokien espresabideak bila-tzen bizitzea neketsua dela esatean, bere barne-kezkak azaltzen ari da pintorea. Rouault-ek, Udazkeneko Aretoan hiru obra fauvista aurkeztu zituen; baina laster pasa zen Espresionismora. 1930etako hamarkadan, berriz, gai-erlijiosoak lan-du zituen bere marrazkia abstraktoagoa eta bizia-goa bihurtuz.

"Akademiatik urrun bizi izan zaren arte herritar hori, itsuliko ote sara gero inoizkotan bizitsara? Eskola ez zegoen hilda, egon, baina hain zegoen makaldua, ze ez bait zekien nora jo eta nori jaramon egin ere, naturaletik kopiatzek ezin izan zuen askatu: gaizki doitua zeukan bere snobismo integratatatik ezin ihes egin; (...).

Askotan gertatzen da, jentilek, begiak sabal-sabalik ditustela ere, biziro argi ez ikustea. Ez ahal diskigute, ba, belarriak be-ren dekorazioekin txundituta utsi! Arte dekoratibo deitzen duten zera hori ez da existitzen, artea arte besterik ez da, dela in-timo, heroiko nahiz epiko (...).

Ni sinestun eta konformazale naiz. Asaldatzea edozeinek egin dezakeen gauza da; nekezagoa da gure barruak agintzen digunari isilik obeditzea eta gure temperamentuei eta dohainei, batere baldin badaukagu behintzat, dagozkien benazko espresabideak bilatsen bizitza igarotzea. Ez naiz ni 'ez jain eta jainko' dioten horietako-a, eskomikatu duten Jainkoaren lekuan gero beren buruak jar-tzeko...

Ez ahala da hobe Chardin bat izatea, edo hori baino askoz ere gutxiago dena, florentziar handien distira hits eta zorigabeko bat izatea baino?

Angelico-ren pare izateko, ez da aski pintatu aurretik erreza-tzea; helpide izpiritualetan fede izateak ere ez du obra egokirik sortuko; lehen-lehenengo sena behar da hartarako, sen gogor eta bizia".
(G. ROUAULT, 1936)

Georges Rouault (1871-1958), pintore frantsesa zen, arotz baten semea. Honen gaien artean gizarteko faltsikeria salatuz egindakoak leku zabala izan zuten: handinahia, lukurreria, hañrokeria, klase zapaltzai-leak... denei eraso zien bortizki. Gizarteko zapalduenak maitatu zituen; Léon Bloy idazlearen adiskidea, gai erlijiosoei garrantzi handia eman zien bere produkzioan. Bere "marchant"arekiko auzia irabazi ondoren, 1948an, eskasagotzat zeuzkan bere 315 koadro erre egin zituen jendau-rrean.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n badago Rouault-en inguruko historiaz hainbat berri. Ez dira ahantzi behar Fauvismoari eta Espresionismoari eskainitako oharra: 608-609, 313-614. orr. Orobat, "Artearen Historia/3"an ik. 119-124. orr.

EGITEKOAK

- a) Lauki argi batean aipa 20. mendeko mugimendu estetiko aipagarrienak.
- b) Zeintzuk dira Espresionismoaren berezitasun nagusiak?
- c) Nola esprika dezakezu Espresionismoarako Rouault-en eboluzioa?
- d) Aipa itzazu pintore fauvista batzuren izenak eta lan aipagarrienak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Bila Artearen Historiaren batean Rouault-en biografia.
- b) Zeintzuk dira Rouault-en obretan ageri diren une aipagarrienak?
- c) Rouault-en kuadro batzuren inudiak aurrean dituzula, esprika beronietako teknika eta esanahiak.
- d) Zergatik esan liteke Rouault-en lanak espresionistak direnik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XX. mendeko artean presentzia eta eraginik handiena izan du surrealismoak. Hastapenetan dagoen "Manifestu"tik jaso dugu ondoko testu hau. Surrealismoak bere ekarria, arte plastikoetan ezezik, Literaturan ere izan du, eta bortitza, gainera. Bestalde, dimentsio iraultzaile bat ikusi izan da mugimendu honetan.

"Jendartean burugabe zabaldu den gure asmoari eman zaion interpretazio faltsuaren aurrean, aitortu beharra daukagu gaurko kritika literario, dramatiko, filosofiko, exegetiko eta are teologiko totelak hautematen ez duen zerbait:

1. Guk ez daukagu literaturarekin zerikusirik batere; baina, hala beharrez gero, hartaz baliatzeko gauza ere bagara, mundu guztiak egiten duen bezalare.

2. Surrealismoa ez da espresio-bide berri edo errazago bat, eta poesiaren metafisika ere; izpiritua, eta honen antzik izan dezakeen edozertatik liberatzeko bide bat da.

3. Iraultza egitea erabaki dugu, erabat.

4. Surrealismo hitza iraultzarekin elkartu dugu, iraultza honen izaera desinteresatua, independentea eta are osoro desesperatua ere nabarmen erasteko.

5. Ez dugu gizon-emakumeen ohiturak aldatzeko asmorik, baina ikuserazi egin nahi diegu zeinen desegin-errazak diren horien pentsamenduak, eta zeinen oinarri koloken gainean, nolako kobazuloren gainean jaso dituzten beren egoitza kordokariak.

6. Zinezko ohar hau egingo diogu Gizarteari: kontu har diezaiela bere erokeriei, bere izpirituak ematen dituen pauso ustel bakoitzari. Ez dugu kupidarik izango.

7. Bere pentsamenduaren bihurtzeari bakoitzean, gurekin topo egingo du gizarteak.

8. Iaiok gara Erreboltagintzan. Ez dago ekintza-biderik, hala beharrez gero, guk erabil ez dezakegunik.

9. Mendebaldeko mnduarentzat dihardugu batipat: Izan, bada Surrealismoa!"

(L. ARAGON eta beste, 1925)

Louis Aragon (1897-1982) idazle frantsesa zen. 1919an, Breton, Soupault eta abarrekin, "Littérature" deituriko aldizkari berria atera zuen. Surrealismoaren buruzagi izan ondoren, mugimendurekin hautsi (1931), eta gizarte burgesaren kritikari ekin zion. II. Mundu-Gerratean poesia abertzale herritarra eskaini zuen. Kazetaritzak, nobelak eta saiakera politikoek osatu dute Aragon-en obra.

Aragon-i bere testuingurua emateko komeniko da "Mendez Mende. Aro Garaikidea" begiratzea: 589-590 (literatura) eta 608-617. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila Literaturako testuliburu batean "Surrealismoaren Manifestua" (1924), eta azter berorrek defendatzen dituen ideia nagusiak.
- b) Zer esan nahi du, "Surrealismoa giza existentziaren sakontasunean arakutzen saiatzen dela" horrek?
- c) Zein funtzio betetzen dituzte ametsak Surrealismoan?

ERANTZUTEKOAK

- a) Nonk eta noiz erabili zuen lehen aldiz "Surrealismo" hitza? Zergatik?
- b) Ezagutzen al dituzu literatur arloan surrealista aipagarrienak zeintzuk izan diren? Eta lanak?
- c) Nolakoak izan ziren idazle, poeta eta pintore surrealisten harremanak? Zeintzuk izan ziren artista garrantzitsuenak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Picasso-ren etxean, Picassok eta Kahnweiller-ek izandako elkarrizketa bateko hitzak dira testu honetakoak. Agiriak duen zentzu alaiak, Picassoren mortasun baikor eta irekia gogoratzen du: neskek, kinkailariak eta loreak duten edertasunaz dihardu. 1946an, II. Mundu-Gerratearen bukaeran, Picassok une baikor bat hasi zuen, pinturaren izaeraz gogoeta emankorrek eskainiz.

"Picasso-k: 'Lehengo batean St. Denis karrikatik paseatu nintzen. Ikusgarria da'.

Kahnweiller-ek: 'O, ikusi duzu! Askotan igarotzen naiz ni ere handik etxerakoan. Huraxe ba ederra, neska guztiak ilaran espaloian dituela'.

Picasso-k: 'Bai, ederra ere huraxe da benetan; neska, kinkailariak, loreak: zoratzekoa da. Hala nioen behin nere gisara: Benetan baso bat eta zigarro-pakete bat ere zoragarriak dira, baina azken judizioa bezain zailak; baina berdin dio, ikusgarria litzateke batek hiriko bizitza plasmatu ahal izatea. Baina hau ez dago dena batek egiterik, behinola kubismoarekin bezala egin behar da, talde-lanean".

(PICASSOren etxean: 1952.07.3)

Pablo Picasso (1881-1973) malagarra zen. Hainbat pintura-molderen sortzailea izan da XX. mendean, bere Pariseko egoitzatik. Mendearen lehen hamarkadako une ezberdinetan beti ere aitzindari izan zen. Jakin-min zolia izan zuen, eta bide berrien bilaketa izan da Picassoren aiurria definitu duen dohainik harrigarrietakoa. Bere epe-une pertsonalago ezberdinen ondoan, garaian garaiko mugimenduetan izan duen lekua azpimarratu behar da. Beraren produkzio erraldoiaren barnean, "Gernika" gogoratu beharko litzateke hemen.

Picasso, nolabait esateko, mende honetako arte-korrante nagusienetan presente egon da, eta ezin da bera horietako bakar batetik definitu. "Mendez Mende. Argo Garaikidea"n topa litezke ingurua ezagutzeko albisteak: 609-611. orr. Ik. "Artearen Historia/3"ko 108-110. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila ezazu Artearen Historia batean Picasso-ren biografia.
- b) Esprika ezazu Picasso-ren arte-lanaren eboluzioa, garai bakoitzeko bi obra aipatuz.
- c) Zer da Kubismoa? Zeintzuk dira mugimendu honen berezitasunak eta artista aipagarrienak?
- d) Nola bereizten dituzu Kubismo Analitikoa eta Kubismo Sintetikoa? Azter bi koadro hautatu.

ERANTZUTEKOAK

- a) Konpara itzazu Picasso-ren une ezberdinetako lanak, zure iruzkinen bat eginez.
- b) Zergatik esaten zaizkie Epe Undina eta Epe Arrosa Picasso-ren urte bazuiei?
- c) Zeintzuk dira Picasso-ren Surrealismo-garaiko lan garrantzitsuenak?
- d) Azter ezazu "Gernika". Zer sinbolizatzen dute bertan agertzen diren irudiek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1905-1955

Jakitunengan bereziki interesgarria izaten da beren aurkikunde zehatzen azpian egon ohi den teoria orokorra, eta jakitunak izan dezakeen giza jarrerara. Benetako jakitun jatorrak jakinduria eta etika elkartu behar ditu bere baitan. Einstein hartzen da adibide bezala hemen, jakitun honen zenbait pentsamendu bilduz.

- *"Jainkoa sofistikatua da, baina ez gaizki-nahizkoa" (Horrekin esan nahi du, fenomeno naturalek formalismo matematiko oso konplexu bat jokoan jartzan badute ere, lege-sistema baten menpean daudela eta giza izpirituak asma ditzakeela lege horiek).*

- *Ideia-modu berari jarraituki: 'Gauzarik ulertezinekoena, mundua ulergarri izatea da'.*

- *'Nik ezin dut sinetsi Jainkoak munduarekin dadu-jokoan dabilenik'. (Heisenberg, Schrödinger eta Bohr-en indeterminismo eta probabilitismoari emandako erantzuna).*

- *'Esperientzia erlijioso kosmikoa da ikerketa zientifiko handien eta nobleenen arrazoia'.*

- *'Teoria bat esperientziaz froga daiteke, baina biderik ez dago esperientziatik teori sorkuntzara daramanik'.*

- *'Pertsonalitate ospetsuen kualitate moralak garrantzi handigokoak dira agian belarinaldi batentzat eta historiaren martxarentzat, adimen hutsezko lorpenak baino'".*

Albert Einstein (1879-1955), Fisika modernoaren sortzailea dugu bere teoriei esker: Erlatibitatearen teoria mugatua (1905) eta Erlatibitatearen teoria orokorra (1915) zor zaizkio. Materiaren egitura atomikoa, termodinamiaren ulermen estatistikoa, argiaren izaera...: arazo funtsezkoen hauek eman zituen bere lanak. Newton-en mekanika-legeak aldatu eta masa/energiaren baliokidetasuna azaldu zuen. Berna, Zurich, Praga, Berlin... izan ziren Einstein-en irakas-lekuak. 1921ean eman zitzaion Nobel Saria. Bere sonaz baliatuz, zapalduen aldeko kanpainetan hartu zuen parte. 1933rarte Alemanian ihardun zuen, nazien politikatik ihesi Ameriketara joan zen arte. Bakezale amorratua izanik, IIP. Reich-aren izugarrikerien aurrean, bomba atomikoaren lanei lagundu behar izan zien: "Gerra irabazi da, baina ez oraindik bakea", idatzi zuen gerrate amaitzean. Arma berrien kontrako kanpainetan buru-bihotz sartu zen, eta mac-carthismo itsuaren kontra ihardun.

"Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n badauzkazu Einstein-en inguruko munduari buruzko argibideak: 638-646, 654-666. orrialdeetan zientziari dagokionak; 540-558. orrialdeetan, bakearekikoak.

EGJTEKOAK

- a) Mapa batean eman Einstein-ek izan zituen bizilekuak, toki bakoitzeko bizialdiaren urteak jasoz. Inakur, lehenik, entziklopediaren batean haren biografia.
- b) Mapa batean adieraz non eta noiz lehertu ziren lehenengo bomba atomikoak, eta berorietarako proba-lekuak non dauden.
- c) Zer da "Klub atomikoa" deitu ohi dena? Adieraz mapa batean Klub-kideen zerrenda.
- d) Eman grafiko batean arma atomikoen estatistikak: prentsarik jasotako, ahal baduzu. Batez ere bi potentzia handien datuak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Einstein-en eritzi hauek azaldu, zure gisara.
- b) Bai al dago erlazioen bat aburuen artean?
- c) Kontraesanik bai al dago bigarrenen?
- d) Moralari horrenbesteko garrantzia ematea bidezkoa iruditzen al zaizu?
- e) Pertsonalki erantzun: ideia horien artean zein duzu gustokoena? Eta zein gutxien gustatzen zaizuna?
- f) Indeterminismoaz eta probabilitateaz informazio zaitetz. Zer esango zenuke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XX. mendeko iraultza zientifikoaren arazo orokor bat da, funtsean, hemen ukitzen den hau: munduaren ikusmolde euklidearra dago eztabaidan. Einstein izan da erro-errotik dena itzulipurdikatu duena. Jakintzaren bilaketa etengabea aurrera-pauso erabakiorra izan da erlatibitatearen teoria. Hemen adibide batez espikatzen zaigu mundu-ikusmoldearen erlatibotasuna.

"Demagun, izaki zapal-zapal batzuk, Lurra bezain handia den esfera lehen batean bizi direla (ik. hurrengo orrialdean). Eta ekuatorearen parean AB luzera bat hartzen dute, metrobetekoa; gero, metro horren ertzetan bi perpendikular jartzen dituzte AC eta DB, metro banakoak hauek ere. Gure izaki hipotetiko horiek lehen mailako eskolarik jarraitu badute, uste izango dute bi 'paralelo' egin dituztela, hau da, bi lerrozuzen zenbatnahi luzatzen direnak eta beti distantzia berdineko gelditzen direnak. Baina hura harri-dura paralelotasuna egiaztatzen hasten direnean! Orduan konturatu-ko dira, AB metroa hamar milioi aldis ACren eta BDren jarraian eraman ondoren (eta eraman ere metro guztiak aurreko horien luzapen bezala sorrotz eramanez), bi lerroen muturrak esainean-esainean elkarrengana hurbiltzen direla eta askenik Ipar Poloan bateratzen direla. 'Geometria esferikoa' paralelorik gabeko geometria da. Hala ere, esfera baten zirkulu handiak plano baten lerro-zuzenekin berdintzea ez da batere burugabea; ez, aitzitik agrimentso-re eta arkitektoen teknikarekin oso ados datorrena da.

Erlatibitate orokorrak frogatu duenez (Einstein, 1912), gizakiak, 'Unibertsoan', Lurraren tamainako bola liso baten gainean dabiltsan inurriekin konpara daiteske. Baina Unibertsoak askoz ere kurbadura trikiagoa du (guretzat), delako bola horrek (inurrientzat) lukeena baino, nahiz eta geometria euklidearra, akats nabarmenik gabe, egokia izan gaur ere ohizko espazioarentzat".

(M. BOLL, 1979)

Marcel Boll-ek dibulgazio-lan ugari argitara eman du, zientziaren historiari hainbat argitalpen eginez: matematika, mekanika, zientzia eta fedea, logika, energia, irratia, infinitua, eta gairik ezberdinenak azaldu ditu bere lanetan, izenik onena duten zientzi bilduma ezagunetan (Pariseko PUFen "Que sais-je?"n, adibidez). Liburu horietako batetik jaso dugu hemengo hau: "Histoire des Mathématiques" (Paris, 1979).

"Mendez Mende. Aro Garaikidea", begira dezakezu, zientzia modernoaren teoria eta lorpenak piska bat ezagutzeko: begira, batez ere, 638-646, 654-666. orr. Begira entziklopediaren batean "Einstein", "Fisika", "Matematika" eta horrelako terminoetan zientzien historia.

EGJTEKOAK

- a) Kostaldera zoazen batean begira zer gertatzen zaion urrunduz doan unziari: Nola deskribatuko zenuke ikusten duzun hori?
- b) Begira, entziklopedia batean, erlatibitatean teoria frogatzeko egin izan diren behaketak. Ulertzen al duzu zer esaten den hor?
- c) Andatz kronologiko batean eman erlatibitate-teoriaren sorruntza eta onarpen zientifiko-sozialaren historia labur bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Agirian ideia onokorra azaldu, zure hitzez.
- b) Zer da Geometria euklidearra?
- c) Zergatik ukatzen du Einstein-en teoriak geometria euklidearra?
- d) Nahiz eta gainditua izan, gaur egunean erabiltzen dugun Geometria Euklide-rena da: Zergatik?
- e) Fisikan egindako aldakuntza nagusiak aipa, eta zure modura azaldu.
- f) Aldakuntz zientifiko horiek nolako ondorio teknologiko edo praktikoak ekarri dituzte?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Gaia, ekonomiko eta soziala dela esan daiteke, edo zuzenago esanda: gaia eta helburua antimilitaristak dira. Zientzia eta teknologia berriek esker, gizakiak armak asmatu eta egiteko inoiz baino ahalmen handiagoa du. Nazioarteko gatazkek eta bloke-banakuntzak, armamendu-lasterketa bateraino eramán dituzte Estatuak. Guzti horren ondorioz, Estatuak eta, azkenean, herriek beren aurrekuentatik parte itzela armak egiten ematen dituzte, alor emankorragoetan eralgi ordeiz.

"Eurrez arakatu dute ekonomistek gai hau. Adam Smith-en ondoren negatiboak dira tesirik gehienak, baina sarrirenik faltsua izaten da estabaida bera. Tesi honen aldekoek produktibitate hitz honi ematen dioten esanahia hertsia izaten da, alegia, jendeak erabil-aberastasun materialak zuzenean produzitzeko gaitasunari esan ohi dio produktibitatea (...).

Hala ere ez dago zalantzan jartzetik gastu hauen baliagarritasuna, esta ikuspuntu ekonomiko hutsetik begiraturik ere.

'*Stricto sensu*', beraz, kontuz bereizi beharrekoak dira produktibitatea eta baliagarritasuna, eta bereizi ere sailketaren eta balio-judizioaren artean inolako ekibokorik eta nahasketarik ez usteko moduan bereizi behar dira bi kontzeptuok. (...)

Hemen, ordea, elkarren pareko egiten dira produktibitatea eta baliagarritasuna, eta gastu militarrek ekonomikoki inproduktibotzat jotzen dira, politikoki baliogabetsat jotzen direnean; honek, berriz, erabat zabalik uzten du estabaida.

Baiki, gastu militarrek, gastu publikoak orokorrean bezala, nazio-ekonomiaren zeharkako karga dei daiteskeenak edo dira, gizartearen antolamenduak berekin dituenak alegia. Horien funtsezko baliagarritasuna zalantzan jartzea, gizarte-antolamendu hau bera zalantzan jartzea da. Honek eskatzen duen gutxienekoa, berriz, ondorio horretaz jabetzea izango litzateke". (P. HERVIEU, 1974)

Testu honen autoreak, P. Hervieu-k, esanahi berezia du hemen, gai honetan: Frantziako jenerala da Hervieu, eta oso hurbiletik ezagutzen duen zerbaiti buruz ari da. Frantziako armadan "contrôleur général" izan da, eta armada modernoak dituen arazo tekniko eta ekonomikoak eza-gunak ditu Hervieu-k.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n bila daitezke armamendu eta aurrekontu militarrei buruzko ohar batzuk: 654-666. orr. Batez ere, irakur zientzia/gerra/goseteari buruzkoak: 656-659. orr.

EGITZEKOAK

- a) Untekariren batean, edo entziklopediaren batean, bila gastu militarrek unteko aurrekontuetan zein portzentaia izan duten. Eman grafiko batean.
- b) Bila bi datu-modu: a) Arma-eredu modernoenetako bat zenbat kostatzen den, 2) Gosearen kontrako kanpainetan zenbat diru bildu ohi den. Konparatu zifra horiek.
- c) Mapa batean, edo grafiko konparatibo batean, erakus armamenduetarako Estatuaren diru-kopuruak zenbatekoak diren.
- d) Mapamundi batean adieraz armamenduen merkatalgoa nondik nora doan munduan.
- e) Egin ikasgelan eztabaida bat, armamenduen hobetzea eta areagotzea defendatuz batzuk, eta desarmamendua besteak. Tartean jarrera ezberdinak ere egon litezke.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zein izan liteke testu horretatik atera litekeen ondoriorik nagusia?
- b) Nola arrazoitzen da egoeraz testu honetan?
- c) Zer da produktibitatea?
- d) Eta erabilgarritasuna?
- e) Zure ustez, gastu militarrek onargarriak al dira?
- f) Beharrezkoak al dira gizarte batentzat?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Multinazionalen bidez, munduko ekonomia --merkatangoan ezezik, produkzio-planifikazioan eta kapitalen joan-etorrietan-- nazioartekotu egin da, geroz eta areago. Baina ekonomiaren nazioarteko sare hauek ez dakarte, beste gabe, herrien arteko ezberdintasunak ezabatzea; askotan, bestelakorik ari da gertatzen, gainera.

"Bretainiarren arrantza-produktuak arrantza-tokien hurbileko lekuetan, Afrikako kostetan, eraldatzen dira gero eta gehiago; ba abantaila bat eskaintzen dute horiek, 'lansari tropikalez' ordaindutako lan-eskua alegia. Abantaila hau berriz, biziro estimatzekoa da, zeren eta nola ia kontserba gustia metropolira bidaltzen den, ba aparteko irabazi handiak ateratzen dituzte firmek (...).

Concarneau-k (Bretainia-ko arrantza-portuak), hortaz, etekin eskasa ateratzen du atun-arrantza tropikaletatik. Hego Finisterre-n 1950ean 124 kontserba-fabrika eta 12.300 enplegu zirenak, gaur 39 fabrika eta 4.500 langile besterik ez dira!

Kontserba-fabrika bretainiarrak ixten ari diren bitartean, Sau-piquet (kontserba-enpresa) indartzen ari da bere eraldakuntz potentziala Abidjan-en; S.P.L.I.k (Société Parisienne de Lingerie Indémaillable-k) Bretainia-n hiru establezimendu eta 1.500 enplegu ezabatzen dituen bitartean, fabrika berri bat sortzen du Tunisian. Biderman-ek (janski militarrek) Guérande-n UGECO fabrika (210 enplegu) ixten duen bitartean, beste halako bat irekitzen du Hanoi-n; (...) beste kapital batzuk ere irabazbide hobeak eskaintzen dituzten baster geografikotan berrinbertitzen dira. Dena den, bizitza ekonomikoaren internazionalizazio hau eta kapitalaren mugikortasun hau, firma handiena besterik ez da". (C.CANEVET, 1980)

Gaurko ekonomia eta politikan lurralde azpigaratuei buruz dagoen eztabaidan sar dezakegu agiri hau. Batzuentzat --baikorrak direla esan beharko-- kapital-internazionalizatze horrek aurrera-bultzatuko du gaurko Hirugarren Mundua. Beste askok, alderantziz pentsatzen du.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ikus ditzakezu testuan agerian jar-
tzen diren arazo hauek, munduaren itxuraldaketa oso baten arazoak. Ikus
513-517. eta hurr. orrialdeak, 566-571, 654-666. orr.

EGJTEKOAK

- a) Adieraz mapa batean, kapitala esportatzen duten lurraldeak, eta kapi-
tal-hartzaile direnak
- b) Ahal bada, mapa berean adieraz zein motatako kapitalak diren (indus-
trialak, petrolioarenak, etab.) joan-etorrian dabiltzanak.
- c) Estatu garatuak eta kapital esportatzaile/inportatzaileak elkarrekin
bat datozen ala ez ikus. Eman datuak mapa batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Agiriaren ideia nagusia zein den esan, eta gero, eman zure eritzia.
- b) Inbertsioak nonnahi egiten badira, industrializazioa horrekin batera
zabalduko al da?
- c) Zergatik joaten da kapitala lurralde garatuetatik azpigaratuetara?
- d) Lurralde azpigaratu guztiek jasotzen al dute kapital hau?
- e) Zein baldintza behar izaten ditu lurralde azpigaratu batek kapitala
berenganatzeko?
- f) Aipa kapital atzerritarrak dituen abantail eta desabantailak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko
lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35.
or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta,
denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala,
ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu honetan, Korea-ko bi Estatuotako sistema ekonomiko desberdinen praktikaren ondorio batzuk aipatzen dizkigu autoreak: Hegoaldeko praktika "kapitalista" eta Iparraldeko "sozialista" kontrajartzen dira hemen. Herri bat bera izanik (bi Estatu eta sistematan banatuta dagoela) garapen-test bat gertatzen da Ipar-Hegoaldeak konparatzea.

"Egitura arkaikoa du oraindik Korea zaharrak, zeina bi Estatutan zatitua bait dago gerraren ondorioz; benetako 'burdinezko kurtina' batek banantzen ditu bi Estatuok. 1953tik hara, benetako korrika-apostuan hasi ziren bi Korea hauek garapenaren bila: praktika 'sozialisten' bidetik Ipar Korea, Txinaren orbita-pean; eta praktika 'kapitalisten' bidetik Hego Korea Amerikaren orbita-pean. Ulertzekoa da bien arteko konparazio bat egitea hogeitamar urteko esperientzia baten ondoren, gustiz konparagarri diren alor eta gizarte batean eginak dira eta. Ekonomilari marxistek 'garapen sozialistaren eredu' bezala ikusten dute Ipar Korea, eta Estatuburuak 'sozialismoaren paradisu' dela ere esan du. Ekonomilari liberalentzat, berriz, konparazioa Hego Korearen alde dago erabat: irabazia, urteko eta pertsonako, 1.620 dolar izango litzateke hor, eta ez 719. Berebat, hego korearren erosahalmena, beren iparraldeko senideena baino bi aldiz handiagoa izango litzateke; baina hauek askoz ere babes sozial eta ardura zabalagoa gozatuko lukete Estatuaren aldetik".

(C. CABANNE, 1981)

C. Cabanne, geografo frantsesa da, irakaslea. Eskola-liburu batetik jaso diogu testu hau: "Une seule Terre" (Paris, Magnard). Eskola-liburu frantses hauek estilo berri bat ireki nahi izan dute Irakaskuntza Ertai-netako gizarte-zientzietan. Interesgarria izan liteke irakaslearentzat hainbat ikasle arduratuarentzat.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ikus litezke munduko ekonomian azken hamarkadetan bizi izan diren aldakuntzak: 513-517. orrialdeak eta hurr., 550-558, 656-666. orr.

EGJTEKOAK

- a) *Laburtu sistema ekonomiko sozialistaren eta kapitalistaren ezaugarri orokorrak, sinopsi batean.*
- b) *Bi sistema edo bloke handien geografia eman mapa batean, ez-lerrokatuak ere adieraziz.*
- c) *Egin Koreako Gerratearen historia labur bat.*

ERANTZUTEKOAK

- a) *Nola definitzen dira testuan bi sistemen ezaugarri behinenak?*
- b) *Bigarren Mundu-Gerrateak eta Gerra Hotza deituak izan al zuten Korearen historiarekin zer ikusirik? Zein zentzutan?*
- c) *Nolako antolakuntza politikoa izan dute bi Errepublikak hauek gerra ondoren?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1945-1985

Hazkunde ekonomiko orekatuaren arazo eta zailtasunak agertzen zaizkigu hemengo testu honetan, hainbat adibide aipatuz. Hazkunde horrek herrialde azpigaratuentzat eta langileriaarentzat duen kostea azpimarragarria da. Estatu garatuen eta atzeratuen arteko kontraesanak agerian geratzen dira honelako prozesu batean.

"Badirudi hazkunde ekonomikoa aurretiasko zerbait dela masen zoria hobetzeko. Baina bizimaila benetan hondatzen hasita gero ere, epe labur eta ertain batean, ematen da hazkunderik. Ba hazkunde industrialak izugarriko inbertsioak suposatzen ditu, eta horiek gero jende pobrea pobregotuz atera behar izaten dira. Berrikuntza positiboek berek ere ustegabeko ondorioak izan ditzaketek. Mexikon, esate baterako, % 5 urteko inguru, hazi da erregularki nekazal produktua 1940 eta 1960 bitartean. Baina 1950ean batezbeste 194 egun urteko lan egiten eta 68 dolar irabasten zituen nekazal langile batek, 1960an 100 lan-egun zuen urteko eta 56 dolar besterik ez zuen irabasten. Nekazal produkzioaren hazkunde globaleko % 80a % 3 lursailetan egina zen. XVIII. eta XIX. mendeen bukaeretan, proletari nazionalak bizimodu errukarritan bizi zirela egin zen hazkunde herrialde industriatuetan.

Sinestezinekkoa da, bestalde, gaur egun EE.BB.etan ikusten den garapena lurbira osora sabaltzeko modukoa denik: baliakizun naturalak ere ez lirateke aski izango. Osorik gelditzen da beraz arazoa: hazkundera, bai, baina nolakoa? Nolako garapen-moduak behar dira herrialde behartsuenentzat?". (C. CABANNE, 1981)

C. Cabanne, geografo frantsesa da, irakaslea. Eskola-liburu batetik jaso diogu testu hau: "Une seule Terre" (Paris, Magnard). Eskola-liburu frantses hauek estiko berri bat ireki nahi izan dute Irakaskuntza Ertainetako gizarte-zientzietan. Interesgarria izan liteke irakaslearentzat hainbat ikasle arduratuarentzat.

"Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ikus litezke munduko ekonomian azken hamarkadetan bizi izan diren aldakuntzak: 513-517. orrialdeak eta hurr., 550-558, 561-571, 656-666. orr.

EGJTEKOAK

- a) *Labur itzazu testu honetan agertzen diren datuak, grafiko batean.*
- b) *Neokolonialismoaz dakizunaz baliaturik, idatz testu honetaz iruzkin labur bat.*
- c) *Testuan esaten denaz jabetu ondoren, eman lauki batean etorkizunaz baikor eta ezezkor izateko elkarren kontrako arrazoiak?*

ERANTZUTEKOAK

- a) *Badirudi hazkundea eta berdintasuna ezin daitezkeela batera gerta: Non dago gakoa? Hazkunde-ereduan, agian?*
- b) *Erantzun, testu bukaeran agertzen diren bi galderak, eta justifikatu erantzunak.*
- c) *Azaldu itxaropenerako zure arrazoiak.*
- d) *Nola epaituko zenuke testuan deskribatzen den egoera? Eman arrazoiak.*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.